



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 19

BULARRETIK EHUNDUTAKO AITORTZAK

Bularreko minbizia pasa duten edo pasatzen ari diren bost emakumeren testigantzak bildu, eta dokumentala osatu du Amaia Iparragirre Baleztena leizarrak. Urriaren 18an estreinatuko dute Leitzan. / 7



AMAIA IPARRAGIRRE BALEZTENA

Osasun zerbitzu duina exijitu dute

Baztango osasun zerbitzu publikoaren egoera salatzeko manifestazioa egingen dute irailaren 29an Elizondon. / 10

SINADURAK



ZOKKETA / 60

5.782 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdeko ikastetxeetan / 12

Berako Labiaga Ikastola 50. urteurrena ospatzen hasi da / 14



Oihan Iriarte donamariarra Volkswageneren Aprendiz Hoberena / 30



Ane Fagoaga erratzuarrarekin Izpegiko bestak hizpide / 40



bardoak

2024
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Irailaren 13tik urriaren 26ra

1. Fasea

LEKAROZ. Irailak 20 ostirala. Lekarozko ostatuan, 19:30ean.

Mutilatuak (Bortziriak-Baztan) - Pirini Bardo (Erroibar)

LEKUNBERRI. Irailak 20 ostirala. Lekunberriko Printzan, 19:30ean.

Pikutara goaz (Iruztun) - Argako Bixiguak (Barañain-Atarrabia)

LEITZA. Irailak 27 ostirala. Gaztetxean, 18:00etan.

Manteleko sobrak (Leitza-Altsasu-Barañain) - Drimtim (Iruñea)

ERRATZU. Irailak 28 larunbata. Erratzuko elkartean, 19:00etan.

Baztansopak (Baztan) - Hor gu! (Bortziriak)

Antolatzailea:



www.bertsozale.eus

Laguntzailea:



EGUTEGIAK 2025

Hainbat formatutako
egutegi
pertsonalizatuak
egiten ditugu



Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe



INFORMAZIO GEHIAGO:

Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com



NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Presaren ez da gurea

Ameslari itzuli naiz oportretatik, nahiz eta nire ogibidea aunitz maite, buelta luzatzeko moduen bila. Aldaketa ttikiren bat ere egin dut, iraila hasiera baita, urtarrila bezainbat edo gehiago. Ustekabean igaro zait uda, eta zalantza dut adinaren kontua den ala dena agudoago joaki den. Jakin nahi dut noiz eta nola desagertu ziren uda amaiezin haiek, ea gaurko haurren eta nerabeen uda gurea zen bezain luzea den.

Barekurkuilu izan nahi dut, nire erritmoan ibiltzeko, pausatzeko eta behatzeko, sortzaile izateko. Oporretan ere estresatuta banabil, ikusi bai, baina ez dut begiratuko, eginen dut, baina sentitu gabe. Aspertu nahi dut, nire garunak bere kabuz aurki ditzan estimulu eta ilusioak, eta hor ezkutuan zeuden ideiak prozesatu eta argitara atera ditzan. Meditatu nahi dut, alde espiritualak landu, gauzen zentzua ikertu.

Nahi dut, nahi dut... Hala dabil Unax ere, gure etxeko ttikia. Presa ez da haurrena, presa ez da gurea.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Batch cooking eta sundrying

XX. mendeko *footing* eta XXI. mendeko *running* lasterka joan ziren eta orain Estatu Batuetatik *batch cooking* (aste osorako otorduak txanda bakarrean prestatzea) eta *sundrying* (arropa eguzkitan idortzea) omen datoz ikasturte berrirako. Gure amatxiek burua altxatuko balute! Garai batean bezala, tarteka *sometimes* matelezurrekoren bat *open hand* eman beharra...

NABARMENTZEKOAK



JON PACHECO DOZAGARAT
BAZTANGO FUTBOLARIA



MARIBEL PETRIRENA MURUGARREN
SUNBILLAN OMENDUA

Mendeurrena ospatzen hasi den Baztan Futbol Taldeak bere harrobian sortutako futbolaria omendu zuen ligako lehen partidaren Jokoa Olinpikoetan lortutako urrezko domina ospatzeko.

23 urte baino gehiagoko Sunbillako Ulibeltzak elkartearen garbiketa lanaz arduratu den emakumeak erretiroa hartu duela eta, elkarteko kideen oroigarria eta hitz onak hartu ditu.

GIBELERA BEGIRA



2014-09-18 · TTIPI-TTAPA · 622 zk.

Harriak altxatzeaz Estitxu Almandozekin

29 urteko Estitxu Almandoz Maia lesakarra izan zen duela hamar urte aldizkariko protagonistetako bat. Bortz urte zera-matzen ordurako herri kirolen munduan murgilduta, eta soka-tiran, txingak eramaten eta eta giza probetan aritu ondotik, harri altxatzen hasia zen. Harriarekin lehen pausiak nola eman zituen kontatu zuen aldizkarian: «Egia errateko lehendabiziko saiakerak ez ziren batere onak izan, ez dakizu harriari nondik heldu, nola altxatu, dena beltz ikusten duzu... Baina pixkanaka teknika hartzen joaten zara, hobetuz zoazela ikusten duzu, kilo gehiago altxatzen eta gustua hartzen diozu». Bere buruari erronka ezarria zion lesakarrak: Lesakako ferietan 100 kiloko kopa harria jende aitzinean altxatzea.



erran.eus



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larrebea
Publizitatea
Amaia Odrizola
Arantza Agirre
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolona,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mixelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaiione
Aritzegi, Jaiione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€





KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Egia ez dena sinetsarazi nahian

Uztailean izan genuen Aroztegiko kanpaldiarengatik zazpi baztandarri eman nahi dieten zigorraren berri: hiruna urteko kartzela eta 56.000 euroko zigorrak. Hautsak harrotu zituen zigor eskaerak: elkartasuna eta haserre, dena batean.

Handik hilabete batera *Diario de Navarra* egunkariaren artikulua publikatu zuen Natxo Gutierrez kazetariak. Aztertzeiko moduko artikulua: *Hiru urteko kartzela zigorra eskatzen dute Aroztegia sabotatzeagatik zazpi susmagarrientzat*.

Hasteko, sarreran informazio objektiboz moztortutako esaldiak biltzen ditu. Auto judizialaren lerro nagusien berri ematen du promotore on eta salbatzaile agertzeko aitzakia gisa, Baztanerako onena nahi duen promotorea dela adierazi nahian: «aisialdi proiektua, bizitoki gune, inbertsio konpromisoa, jabetza eskubidea» bezalakoak erabiliz. Eta guk ederki dakigu 45 hektarea aise birkalifikatu zituztela balioa 24 aldiz handituz, *pelotazo urbanistikoa* deitzen duguna. Informazio hori modu interesatuan ematean, promotorea zuritu bertzerik ez du egiten.

Artikuluaren mamian sartuz, fiskalaren zigor eskaeraren dokumentua eskutan duela agerian uzten du kazetariak, salaketaren testua bere horretan kopiatuz. Baina ez nolana, zati zehatzak hautatu ditu, gaizkile talde bat itxuratzeko ekintzak banan bana zerrendatuz: «seinalazioa xehatu

«DIARIO DE NAVARRA'REN ARTIKULUA AZTERTZEKOA DA...»

heriotza mehatxuak dira. Kazetariak, sobera ikertu gabe, aise jakinen luke zein zen fiskalarendako heriotza mehatxua egiten zuen pegatina: herioren irudia, Baztan eta landa eremuaren heriotza irudikatuz erabili zena. Hori baita Aroztegia bezalako proiektu batek ekarriko lukeen etorkizuna. Hor interpretatu du fiskalak heriotza mehatxua zegoela eta kazetariak berrets, egiatako hartuz. Kanpaldian ez zen halakorik egin, egindako gauza bakarria izan zen makinaren aitzinean paratu, obra geldiaraziz. Oroitu dezagun: abiatzeko baimenik ere ez zuen obra bat gelditzeko.

Eta akitzeko, Baztango Udalean onartutako mozioa aipatzen du. Elkartasun adieraztearekin batean Baztango Udaleko Osoko Bilkurak UGEPa bertan behera uztea eta foru intereseko proiektuaren deklarazioa kentzea eskatu zuen. Mozio hori aipatzen du, baina «mozioak dioen bezala» adiera erabiltzen du, kazetariaren iritziarekin bat egiten ez duelako segur aski. Indarra kentzeko berez Kontratu Publikoko Epaitegiak erratan duelarik: «Nafarroako Kontratu Publikoko Epaitegiak –mozioak dioen bezala– balio gabetu egin zuen urbanizazio obra horien esleipena, eta, beraz, ez ziren inoiz hasi behar».

Argi gelditu da obra hauek ez zirela inoiz hasi behar eta argi geldi dadila ere, zazpi baztandar horiek errugabeak direla. Herri batek gelditu zuen nahi eta behar ez zuen obra, bertze aukerarik izan ez zuelako.



MARKEL ADIN BIDEGAIN

Emantzipatu nahi dut, baina ezin dut

Hasteko, gaztea naiz.

Gazteok daukagun arazo presenteena dela nabari dut azken hilabeteotan, baina segur aski ez da azken hilabeteetako gauza izan.

Gazte aunitz gaude etxetik atera nahian; nahia baino gehiago, beharra erranen nuke. Gazteoi etxe huts bat alokatzearen beldur da jendea, etxeak hausten dituzten eta ordaintzen ez duten munstroak bagina bezala tratatzen gaituzte. Beldurrarekin, haserre. Gazteok kriminalizatzen gaituzue, ume batzuk bagina bezala tratatzen gaituzue. Gazteok bagara gai gure bizitza aitzinerat eramateko, bagara gai pisu bat zaintzeko, bagara gai nahi dugun guzia egiteko.

Gainera, erosterakoan, prezioak onartezinak dira.

Erraterako, Elizondon logela bat, komun bat, eta sukaldelaloi bateko pisu bat 140.000 eurotan egotea basakeria latza iduritzen zait.

Zertarako ditugu etxe hutsak? Jendea bizitzeko edo dirua egiteko?

Diruaren kontu beretik, erran nahi nuke etxebizitzak merkatu bihurtu direla, gazteoi edo herriko jendeari alokatu beharrean, nahiago izaten duzue Madrildik etortzen diren turistei udan alokatu. Bai, zuek, segur aski hau irakurtzen ari

«HERRIA HERRITARRONDAKO EDO HERRIA KANPOTARRENDAKO»

bete-beteen. Ardura handiagoa dute etxejabeek, haiek erabakitzen baitute zer nahiago duten: herria herritarrondako edo herria kanpotarrendako.

Hau da nahi dugun etorkizuna, herrian bizi nahi dugu, baina ez dugu non. Herritarroi eta batez ere gazteoi, ezinezkoa zaigu etorkizuna gurasoen etxetik kanpo imajinatzea, gurasoengandik aske egotea.

Sarritan erraten dugu gazteon belaunaldia ameslarien belaunaldia dela, eta bagara ameslariak, nik noizbait amestu nuen baztandarrok biziko genukeen Baztan batekin.

11 GALDERA LABUR

LEXURI AROTZENA PORTU LESAKAKO GAZTEA SUITZAN

«Beti izan dut buruan urte batez kanpora joatea»

Zein dira zure zaletasunak?

Kozinatzea aunitz gustatzen zait. Bertzetik, hizkuntzak ttikitatik gustatu zaizkit, ingelesa bereziki, eta aurten frantsesa hobetzeko bidean nago. **Batxilergoa bukatu eta Suitzara joan zara au pair. Zergatik?** Beti izan dut buruan urte batez kanpora joatea, eta institutua bukatzean aukera ikusi dut. Bertzetik, ez nekien seguru zer ikasi nahi nuen unibertsitatean, eta ziur ez nagoen karrera batean sartu baino, nahiago nuen horrelako esperientzia bat bizi.

Zergatik aukeratu duzu Suitza?

Frantsesa ikasi nahi nuelako, eta au pairrek hemen baldintza nahiko onak ditugulako.

Gazteek ikasketak aukeratzeko presio handia duzue?

Alde batetik bai, baina, aldi berean, ez. Gehienok presioa sentitu dugu ikasketak aukeratzeko, behar dugun nota lortzeko... baina aldi berean, nik erabaki hau hartzean, inork ez nau gibelera bota. Kontrakoa, denek animatu naute, ez dut presiorik sentitu karrera batean sartzeko.

Zerk harritu zaitu gehien Suitzan?

Prezioak ez direla hain altuak. Aditua nuenagatik, pentsatzen nuen ez nuela deus erosteko aukerarik izanen. Egia da garestixeagoa dela, baina ez da horrenbertzekoa.

Zer du Suitzak Euskal Herriak ez duenik?

Aunitzez anitzagoa dela; bizi naizen herri ttikian hainbat portugues, italiar, latinoamerikar, aleman... bizi dira.



Eta alderantziz?

Euskal Herrian nire familia, lagunak eta etxea daude, betitik egon naizen lekua.

Zein dira au pairraren zereginak?

Familia baten etxean bizi naiz, eta nire zereginak haurrekin eskolara joatea, bazkaria egitea, bazkalorduan eta arratsaldeetan beraiekin egotea, eskolaz kanpoko jardueretara eramatea... dira.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Hau idaztean hiru aste bakarrik ditut hemen, baina, orain-

goz, hagitz ona. Familiarekin ongi moldatzen naiz, lekua hagitz ongi dago, lana gustatzen zait eta oraingo, bederen, ez zait sobera gogorra egin etxetik kanpo egotea.

Zure asmoak epe motzera?

Frantsesa hobetzea eta ingurua ezagutzea; Lausana hiria hagitz polita omen da.

Eta epe luzera?

Esperientzia berri bat bizitzea, independentea eta arduratsua izaten ikastea eta hemengo kultura eta lekuak ezagutzea.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Lurralde Kohesiorako Departamentua eta euskarafobia

FERMIN ZABALZA ALEMAN

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

2021eko urtarrilean, Lurraldearen Kohesiorako Departamentuak (PSOeren eskuetan) bi seinale jarri zituen gaztelania hutsean, Arraitzen eta Etxalarren (radarrak iragartzen zituzten: Por su seguridad, control de velocidad). Beti da bidegabekoa, baina gainera, beren legearen arabera, «eremu euskaldunear» daude herri horiek.

Donamariako herritar batek keza jarri zuen Arartekoan, elebitan jar zituzten. Ba Lurralde Kohesiorako Departamentua hiru (!) urtez aritu da luzamenduetan, gezurrak esaten eta aitzakiak jartzen, euskararik ez jartzeko, ea herritar hori nekutzen ote zen.

Lehenik Arartekoari esan zion Espainiako Gobernuaren eskumena zela. Espainiako Gobernuak esan behar izan zuen ezetz («Espainiako Gobernuak ez du eskumenik Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako errepedeetan»).

Ondoren, Lurralde Kohesiorako Departamentuak erantzun zuen ez zegoela legez behartua elebitan jartzera, epaileek 103/2017 Foru Dekretuaren kontra emandako epaiarengatik (PSOeko Juan José Lizarbek jarri zuen errekurtsioa, UGT ordezkaturaz).

Nafarroako Arartekoak ez zuen onartu Lurralde Kohesiorako Departamentuak legez egiten duen interpretazioa, eta adierazi zion

Nafarroako «eremu euskaldunear» nahitaezkoa dela kartelak elebitan jartzea (eta legez nahitaezkoa ez balitz ere, zer? Zergatik erdara hutsean?).

Departamentuak esan zuen Arartekoaren gomendioa beteko zuela... baina ez zuen deus egin. Azkenik, herritarrak berriz Arartekora jo, eta hau erantzun zion Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Txibitek: «Erabaki dugu testua kentzea eta piktograma bakarrik uztea. Horrela, zabalpen handiagoa izanen du, baita beste nazionalitate batzuetako gidarien artean ere».

Ba hau da Lurralde Kohesiorako Departamentuaren jokabidea. Beste hainbat estrategia ere erabiltzen ditu euskararen kontra.

Berriki, Maria Txibite presidentek esan du antzekotasunak ikusten dituela Kataluniako Illaren Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean. Ba gaixoak, katalanak!

BOTA BERTSOA



MAIALEN ORMAETXEA ERRO

LESAKAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN B MAILAN 2. SARIA

Zalantzak

Doinua: Zure bular politik

*Atzean utzi dugu
seigarrengo maila
Lehenengo aldietan
guztia da zaila
Kriston gogoak ditut
iristeko uztaila
Txikia izatea
kriston abantaila.*

*Inguruan badaude
milaka aldaketa
Pentsamendu guztiak
zalantzaz beteta
Tripako minak eta
milaka azterketa
Zerbaitere gehiago
aldatu da eta.*

*Ispilura begira
sortu zait zalantza
Txikitatik honara
aldatu naiz antza
Positiboa izateko
daukat esperantza
Jada ez dut lehenago
nuen konfiantza.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira. (info@ttipi.eus/ 948 63 54 58 / 744 48 43 61)

«Bularreko minbiziaren errealitate gordina plazaratu nahi dugu»

AMAIA IPARRAGIRRE 'BULARRETIK EHUNDUTAKO AITORTZAK' DOKUMENTALAREN EGILEA

Bularretik ehundutako aitortzak dokumentala estreinatuko dute urriaren 18an eta biharamunean bularreko minbizi metastasikoaren ikerketa bultzatu eta finantzatzeko elkartasan festa antolatu dute

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Bost emakume. Bost ahots. Barrua irekita, bularreko minbiziarekin solasean. Horixe da, Amaia Iparragirre leitzarrak *Bularretik ehundutako aitortzak* dokumentalean bildu duena. Minbiziaren, bizitzaren, minaren, baina batez ere bizitzeko grinaren ari dira. Elkarrekin ondu dute proiektua, bakoitzak bere alea jarritik, antzeko egoera bizi dutenentzat lagungarri izan behar delakoan.

Zein izan da proiektu honen abiapuntua?

Betidanik izan dut gertaeren prozesua dokumentatzeko joera, baina proiektu hau martxan jartzeko beharra, ahizpari bularreko minbiziaren diagnostikatu eta gutxira sortu zitzaidan. Hasi batean, prozesu osoa argazkitan jasotzea pentsatu nuen, baina ideia hori garatzen hasi nintzen, askoz aberatsagoa iruditu zitzaidan testigantza jasotzea eta testigantza horiekin dokumentala osatzea.

Hein batean, arazo sozial baten isla da, emakume askok eta askok pairatzen dutena. Egoera hau bizi dutenei laguntzeko, indibidualki zein sozialki, asko egin dezakegula uste dut eta nik nire alea jartzeko konpromisoa hartu nuen. Hor hasi nintzen proiektua eraikitzen eta guztion artean eta guztiontzako aberasgarria izan daitekeen helburu batekin lan egiten. **Zer landu duzu dokumentalean?** Dokumentalak, bularreko minbiziaren pasa duten edo pasatzen

ari diren bost emakumeren hitzak biltzen ditu. Beraien testigantzeekin batera, familiakoen edo ingurukoaren testigantzak eta adituen hitzak ere bildu ditut. Bularreko minbiziaren diagnostikatu zietenetik bizi izan duten prozesua zein izan den azaldu dute: gaixotasunaren garapena, zertan aldatu den beraien bizimodua, zein ondorio izan dituzten... beraien

errealitate gordina islatzen du dokumentalak. Oso testigantza sakonak dira. Gizonezko bat zalantzan egon zen arren, azkenean, Leitza eta Ezkurrako bost emakumek parte hartu dute. Gaixotasuna soilik emakumezkoen artean ematen dela uste den arren, ehuneko baxuago batean bada ere, badira gizonezkoen artean ematen diren kasuak.



Amaia Iparragirre Baleztenak zuzendu du dokumentala. AMAIA IPARRAGIRRE

**«ELKARLANEAN
ETA ELKARREKIN
ERAIKI DUGU
DOKUMENTALA»**

**«OPARI BAT IZAN
DA, IKASKETA
GOGORRA BEZAIN
ZORAGARRIA»**

Kosta zaizu hitz egiteko prest zegoen jendea topatzea?

Ez. Hasierako momentutik erakutsi zuten beraien prestutasuna eta oso aberatsa iruditu zitzaie proposamena. Nire ideia zein zen proposatu nien momentutik, ez zuten zalantzarik izan. Horrelako gaitz bat duen pertsonak bizi behar duen prozesua zein den plazaratzea, jende askorentzat lagungarria izan behar zela pentsatu zuten.

Oraindik badira gaixotasuna isilean eta bakarrik pasatzen duten pazienteak. Gehienak, ingurukoaren sufrimendua ekiditeko egiten dute hori. Baina, orokorrean, ez nuke esan gaitzari buruz hitz egiteko arazorik dutenik; gaitzari buruz hitz egiteko, denbora behar dutela baizik. Gaitzaren diagnostikoa ematen dieten momentutik, horren gestioa egiteko denbora behar duenentzat. Hainbat fasetatik pasatzen dira, hitz egitera heldu arte. Hasierako beldurrik handiena, minbiziaren noraino zabaldua dagoen jakitearekin batera, familiari nola azaldu izaten da. Mutilen kasuetan gehiago kostatzen zaiela uste dut, bada nolabaiteko tabua, ez dagoelako horren normalizatua.

Bularreko minbiziaren da, akaso, gizartearen gehien ezagutzen den minbizi motetako bat.

Mundu mailan emakumeei eragiten dien minbizi ohikoena da bularreko minbiziaren. Dena den, tratamenduetan, prebentzioan eta detekzioetan egindako hobekuntzei esker, minbiziaren biziraupen indizeak nabarmen egin dute hobera.

Zer izan da dokumentala zuzentzeko?

Niretzat opari bat izan da, ikasketa gogorra bezain zoragarria. Oso sakona izan da. Nigan erakutsi duten konfiantzak, ikaragarri bete nau eta esker oneko hitzak besterik ez ditut. Kanpotik eta barrutik biluztu dira nirekin, terapia uneak izan ditugu, momentu gozo eta goxoak, besarkadak, babesa... ahaztuko ez ditudan momentu asko. Gehiena dokumentalean jasotzen saiatu naizen →

—> arren, badira niretzat gordeko ditudan oroitzapen asko. Oso prozesu aberatsa izan da. **Miresmena eta poza nabari dira zure hitzetan...**

Hala da, sentimendu hori izan dut prozesu osoan. Abiapuntua nirea izan zen, baina azkenean taldean egindako lanketa baten emaitza izan da dokumentala. Guztia elkarrekin josiz joan gara, dokumentala elkarlanean eta elkarrekin eraiki dugu eta oso harro nago lortu dugunarekin. Eta partaide bakoitzarekiko, zer esan... miresmena sentitzen dut.

Beraz, prozesu luzea izan da...

Bai, proposamena luzatu nienetik bi urte pasa dira jada, pentsa! Denbora gehiagoz luzatu izan bagenu, baziren gehiago sakondu izanen nituzkeen alderdiak, baina osotasunean, oso pozik nago emaitzarekin.

Babestua sentitu zara?

Oso! Egia esan, hunkigarria da jendearen elkartasuna. Hainbat ate jo ditugu eta denetan eskuzabalik hartu gaituzte, laguntzeko borondatea izan dute... Komunitate polit bat osatu dugu. Zoritarrez, askok eta askok gertutik ezagutzen dugun gaixotasuna da, familiar ez bada, lagunen artean... inguruan, badugu gaixotasun hau izan duen norbait. Gai honekiko, sentsibilitate eta elkartasun handia erakusten ari da jendea.

Jasotako bizipenetatik, zer da nabarmenduko zenukeena?

Guztiek bizitzeko duten gogoia eta indarra: oraina eta momentua baloratu eta aprobetxatzeko duten gaitasuna.

Irailean eta urrian ekitaldi bereziak antolatu dituzue Leitzan. Azaldu prestatu duzuen.

Porrotx pailazoak, kontzertu solidarioa eskainiko du irailearen 18an. Leitzako Herri Aretoan izango da emanaldia, 18:00etatik aurrera. Urriaren 18an *Bularretik ehundutako aitortzak* dokumentala estreinatuko dugu. Printzipioz, bi proiektzio egingen dira, lehenbizikoa 18:00etan eta bigarrena, aur-



Bularretik ehundutako aitortzak dokumentaleko protagonistak. AMAIA IPARRAGIRRE

kezpen ekitaldiarekin, 20:00etan. Hurrengo egunean, urriaren 19an, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna izanik, festa egun solidarioa antolatu dugu. Egun osoroko egitaraua prestatu dugu: haurrentzat tailerrak, kirola, fanfarrea, herrien arteko probak, buruhandi eta erraldoiak, joaldunak, kontzertuak... izanen dira.

Bularreko minbiziaren ikerketarako izanen da bilduko den dirua. Bularreko minbizi metastasikoak ez du sendabiderik, gaitza kronifikatzea da aukera bakarra. Paziente hauek zailtasun asko izaten dituzte, entsegu klinikoetan sartzen dira... berez gogorra den prozesua, are gogorragoa izaten da beraientzat.

«IKERTU DIREN TRATAMENDUAK FINANTZATZEA FUNTSEZKOA DA»

Hori horrela, minbizi metastasikoaren inguruan kontzientziazioa landu eta ikusgarritasuna emateaz gain, bularreko minbizi metastasikoa ikertu eta finantzaketan laguntzeko erabiliko dugu bilduko den diru guztia.

Prebentzio kanpainak eta autoexplorazioa ere funtsezkoak dira. Bularreko minbiziaren inguruko ezagutzan, aurrerapauso nabarmenak eman dira. Prebentzio programak oso garrantzitsuak dira, horiei esker, asko murriztu direlako bularreko minbiziaren heriotza tasak. Bularreko azterketa eta mamografiak baliagarriak diren arren, gaixotasunaren detekzioarako oso lagungarria da norberak bularra aztertzea,

«URRIAREN 19AN FESTA EGUN SOLIDARIOA ANTOLATU DUGU»

masa edo kokkor arrotzak detektatzeko. Dena den, ez da ahaztu behar kasu batzuetan faktore genetikoa erabakigarria izaten dela; mutazio genetikoaren eraginez sortzen da batzuetan minbizia. Kasu hauetan, froga genetikoek ere, berebiziko garrantzia dute.

Aurrerapausoak egon badira ere, ikertzen segitzea funtsezkoa da... Bai, baina ikertzen jarraitzea bezain beharrezkoa da, iker-tuta dauden hainbat tratamendu finantzatzea. Badira dirurik ez dagoela arrazoituz, atzera bota dituzten tratamenduak eta atzera bota dituzten tratamendu horien zain hil diren pazienteak. Tratamendu horiek ziren askorentzat aukera bakarra... Hori, oso gogorra eta larria da. Duela gutxi, sentsibilizazio kanpaina bat egin dute minbizi metastasikoa duten pazienteekin. *Hiltzen ari naiz* leloa erabili dute eta sinadura bilketa bat egin dute ikertu diren tratamenduak finantzatu ditzaten.

Zer sentitu duzu dokumentalean parte hartuta?

Kamera aurrean jarri eta ahoan bilorik gabe hitz egin dute. Bularreko minbizia zutela jakin dutenetik bizi izan dutena azaleratu. Ez da nolanhiko erronka, baina barruko zama arindu eta egoera berean dagoen norbaiti laguntzeko aukera izateak eman die hitz egiteko ausardia. Mingaina dantzan jarrita, emozioak saltoka izan dituzte askotan: «bizipenak, sentimenduak, esperientziak... elkarbanatu ditugu eta momentu ahaztezin ugari bizi izan ditugu elkarrekin». Denek aipatzen dute, dokumentala osatzen joan ahala, zerbait berezia sortzen joan dela beraien artean. Horren erakusle dira dokumentalari buruz hitz egiten hasitakoan aukeratu dituzten hitzak: arnas bidea, ilusioa, erronka, babesa, zama arintzea...». Eskertuta daude oso izan duten aukerarekin: «hunkigarria izan da Amaiak izan duen keinua, laguntzeko borondatea, prozesu guztian zehar nola zaindu gaituen... bihotzez eskertu nahi genioke egiten ari den guztia». Urriaren 18an, Leitzako Herri Aretoan izanen da emaitza ikusteko aukera.



Izaskun Iparragirre Baleztena.

Arnas bidea. Bere ahizpa da proiektuaren sortzailea eta gonbidapena luzatu zionean ez zuen zalantzarik izan: «gaiari ikusgarritasuna ematea jende askorentzat lagungarria izanen zela pentsatu nuen». Oso prozesu polita izan dela dio, aberatsa oso: «dokumentalaren bilakiera eta horrek ekarri duen guztia, arnas bidea izan da niretzat». Bere burua hobeto ezagutzeko bidea ere eman dio: «emozioak identifikatu eta sentitzea. Bizipen eta esperientzia sakonak elkartrukatu ditugu; aberatsak bezain lagungarriak».



Edurne Lamuedra Rodriguez.

Ilusioa. Proposamena, minbizi metastasikoa diagnostikatu eta oso momentu berezian iritsi zitaion eta dokumentala «gogoa eta ilusioa piztu dizkidan argitoxo bat bezala izan da». Oso momentu bereziak bizi izan dituzte: «gogorak, politikak, baita dibertigarriak ere. Elkarrekin bihotza eta burua husteak asko lagundu dit. Besteek prozesua nola bizi duten entzun dugu eta elkarbanatu ditugun esperientziak konpartitzea, oso lagungarria izan da». Eta uste du egoera berean daudenei laguntzeko «aletxo bat» jarri dutela.



Jaione Zabalo Juantorena.

Betetako erronka. Ez zuen zalantzarik izan eta oso positiboa iruditu zitzaion hasieratik proposamena: «sufritzen dutenei edo haien gertukoei laguntzeko aukera bezala ikusi nuen». Maila pertsonalean, dokumentalean parte hartzea «oso erronka zirraragarria izan da, arduraz betetakoa». Bidean sentimenduak eta esperientziak partekatu dituztela azaldu du eta hor sortutako une ahaztezinak eta pasadizoak barruan iltzatuta gelditu zaizkiola: «hasieratik konektatu dugu eta emozioak beldurrik gabe azaleratu ditugu».



Esther Riaño Zabaleta.

Taldearen babesa. Prozesua «oso berezia eta sakona» izan dela dio: «ohorea izan da beste lau lagunekin horrelako esperientzia konpartitzea». Aberasgarria ere bai, «norberarentzat, baina baita besteentzat ere. Gure antzeko egoera bizi duen norbaitentzat lagungarria izan daitekeela pentsatzeak asko pozten nau. Lantaldean oso giro polita izan dutela azpimarratu du: «elkar ulertu eta giro goxoan aritu gara». Amaiak emandako aukerarekin, «oso pozik eta eskertuta» dago, «egiten dituen lan guztiak ederrak izaten dira eta oso pozik nago lortutako emaitzarekin».



Edurne Mutuberria Estanga.

Zama arintzea. «Bidean sufri-mendu eta momentu gogorak dauden arren, familia eta lagun-berotasunarekin aurrera egiten dela erakustea, oso aberatsa izan da niretzat». Dokumentalak beraien bizipen pertsonalak azaleratu eta konpartitzeko aukera eman die, barruko korapiloak askatzeak. Arazo edo konplexuak txikitzeko bidea izan da hori: «daukagun motxila txikitzeak. Hunkigarria izan da Amaiak izan duen keinua, laguntzeko borondatea, gutaz horrela arduratu eta zaintzea. Bihotzez eskertu nahi nioke egiten ari den guztia».



Elena Arretxea Mitxelena eta Izargi Zumarraga Etxandi Baztango Osasun Plataformako kideak dira. UTZITAKO ARGAZKIA

«Denona dena ez badugu defendatzen eskubideak galtzen segituko dugu»

ELENA ARRETXEKA ETA IZARGI ZUMARRAGA BAZTANGO OSASUN PLATAFORMA

Elizondoko Osasun Etxeko egoerarekin kezkatuta, hainbat mobilizazio iragarri ditu Baztango Osasun Plataformak. Irailaren 29an manifestazioa egingen dute Elizondon

G. PIKABEA BAZTAN

«Kezkatuta eta haserre». Haxe daude Baztanen Elizondoko Osasun Etxeko egoera da zein den ikusita. Arazoa «aspaldikoa» dela diote, «eta jakina zen egoerak ez zuela hobera egingen». Bada, aitortu dutenez, «orain momentu latzenetako batean gaude». Aski dela erran eta mugitzea erabaki dute, «borrokatzeko tenorea» dela iritzita. Alde

batetik, Baztango Osasun Plataformak sortu dute, eta bertetik, hilabete honetan hainbat mobilizazio iragarri dituzte. Irailaren 29an, adibidez, manifestazioa egingen dute Elizondoko plazatik abiatuta. Gaiaren harira mintzatu dira Elizondoko Elena Arretxea Mitxelena eta Arraiozko Izargi Zumarraga Etxandi. Plataformako kideak dira eta egoera «larria» dela ohartarazi dute.

Noiz eta zergatik sortu duzue Baztango Osasun Plataformak?

Elizondoko Osasun Etxeko egoerak kezkatzen gintuela eta, herritar batzuk elkartu eta abuztuaren 27rako herri bilkura antolatu genuen Nafarroako Osasun Plataformaren laguntzarekin. Hortik sortu zen lantaldea, eta Baztango Osasun Plataformak bezala izendatu dugu. Taldean hamasei lagun bildu gara.

Zein dira plataformaren eskaerak?

Elizondon eta Elbeten bizi dugun egoerak piztu ditu alarmak, nahiz eta kezka gainerako herrietan ere nabaria den. Momentu honetan, lehenbiziko helburua baztandarroi dagozkigun osasun zerbitzu guztiak bermatzea da, eta hori eskatzen dugu. Horrekin batera, osasun sistema publikoaren aldeko aldarria egin nahi dugu, kalitatezko osasun sistema edukitzea denon eskubidea izanik, jende guziaren esku egon behar duelako. Azken urteotan nabaria da osasun zerbitzuak pribatizatze dagoen joera. Hortaz, Nafarroako Osasun Plataformaren adierazpenekin bat eginez, osasun zerbitzuko enpresa pribatuei baliabide ekonomikorik ez bideratzeko eskatzen dugu.

Osasun zerbitzuan dagoen hutsunea ez da oraingoa. Hala ere, noiz sumatu duzue egoerak okerrera egin duela Baztanen?

Urteak dira lehen arreta mailan gauzak makurtzen hasi zirela: pediatria falta izan genuen, medikuen joan-etorriak... Horrez gain, arreta espezializatuan ebakuntzarako eta kontsultetarako itxaron-zerrenda luzeak... Arazoa aspalditik heldu da, eta jakina zen egoerak ez zuela hobera egingen. Orain momentu latzenetako batean gaudela erraten ahal dugu.

Zein da egoera?

Egoera larriena Elizondon dago. Duela lau hilabete zeuden hiru medikuetatik bat joan egin zen eta ez zen bere ordezkorik etorri; gero bigarren bat ere joan zen eta mediku bakarra gelditu zen Elizondoko eta Elbeteko biztanleria osoarendako. Irailaren 13an hirugarren medikua joatekoa zen, eta beraz, medikurik gabe gelditu gara.

Abuztuaren 27ko bilera irekian, jende aunitz hurbildu zen. Zer balorazio egingen zenukete?

Egia errateko ez genuen espero hainbertze jende hurbilduko zenik. Bagenekien gai honek jendarte zabala kezkatzen zuela, baina hala ere, ez genuen

pentsatzen halako arrakasta izanen zuenik. Jende aunitz elkartu zen. Horrek argi uzten du herrian kezka eta beldur handia dagoela, ez baita aurreikusten epe motzera egoerak hobera egingen duenik.

Bertze plataformekin elkarlanean ari zarete?

Nafarroako Osasun Plataformarekin harreman zuzena dugu. Haiek urtetako esperientzia dute eta erakutsi dute mobilizazioek bere fruituak ematen dituztela.

Irailaren 29an manifestazioa egingen duzue. Zer helbururekin?

Herritarren ezinegona, kezka, haserre... erakusteko helburuarekin. Gure eskubideak aldarrikatu eta kalitatezko osasun sistema publikoa exijitu nahi dugu. Elizondoko plazatik abiatuko da, 12:00etan, baina horren aitzinetik hainbat ekimen izanen dira. Irailaren 11n eta 18an, 11:30ean, elkarretaratzea egiteko gengen Elizondoko Osasun Etxearen aitzinean. Irailaren 25ean, asteazkena, 18:30ean bizikleta martxa aldarrikatzaileria egingen dugu Elizondoko plazatik abiatuta, eta 19:30ean elkarretaratzea Elizondoko Osasun Etxearen aitzinean. Irailaren 29an, igandea, manifestazioa egingen dugu.

Mobilizazio horiei begira, zer mezu emanen zenukete?

Ahalik eta jende gehien elkartzea espero dugu. Horrela erakutsiko baitugu egiazki egoera arras larrian gaudela eta horrek kezkatzen gaituela. Hortaz, eta Nafarroako Gobernuak aditu dezan, jendar-te osoari dei egin nahi diogu parte hartzeko.

Manifestazioaren ondotik, zer asmo dituzue?

Lanean eta borrokan segitzea tokatuko zaigu, dagokiguna lortu arte eta osasun sistema publiko duina izan arte.

Euskaraz artatua izateko eskubidearen aldarrikapena aspaldikoa da. Gaur egun, aldarrikapen izaten segitzen du?

Doike! Eskubide batzuk lortzeagatik, ez ditugu bertze

Herritarren artean kezka agerikoa

Aurreikuspen guziak gainditu, eta 200 lagunetik goiti bildu ziren abuztuaren 27an Elizondoko Arizkunenean, Baztango Osasun Plataformak deituta egindako bilkura irekian.

«Haren beharra izan duen edozeinek badaki osasun zerbitzu publikoaren egoera tamalgaria dela, Nafarroa mailan oro har, eta Baztanen konkretuki». Horixe izan zen bilkuraren zergatia esplikatzeko emandako azalpena. Eta egoera ikusita, «antolatu eta mobilizatu» beharra azpimarratu zuten, «osasun sistema publikoaren, duinaren eta unibertsalaren alde, ez dezaten osasun zerbitzurako eskubidea ordaindu dezaketenek bakarrik izan».

Lazaro Elizalde Nafarroako Osasun Plataformako kidea ere gonbidatu zuten hitzordura, eta bertzeak bertze, plataformak osatua duen proposamenaren berri eman zuen: «Zerbitzu pribatuei baliabide ekonomiko bakar bat ere ez bideratzea; osasun integralari erantzunen dion sistema bat osatzea. Eriak sendatzeko bai, baina prebentzioan eta osasun egoera ona mantentzean ere lan egingen duena; psikologo, fisioterapeuta eta bertzelako zerbitzuak, modu mugikorrean, osasun eremuen inguru-



200 lagun baino gehiago bildu ziren abuztuaren 27ko bilkuran. ONDIKOL

ruan egituratzea, egungo zerbitzua osatzeko; osasun langileekin elkarlanean aritzea, ulertu eta barneratu dezaten beraien lanak interes orokorrari erantzun behar diela eta horretarako egin beharreko moldaketekin jarrera baikorra izan behar dutela; urtean 200 milioi euro gehiagorekin Nafarroako Osasun Sistema ongi funtzionatzen jartzen ahal dela. Horietako 100 milioi lehen arretara bideratu behar-ko lirateke».

Bilkuran bildutako herritarrak ere hitza hartu zuten. Konparazio batera, Nafarroako osasun kontseilariaren inplikazioa eskatu zuten, eta Baztango kideek azaldu zutenenez, «Baz-

tango, Urdazubiko eta Zugarramurdiko udal ordezkariak osasun kontseilua bildu nahian ari dira ekainetik, baina ez dute Nafarroako Gobernuko kontseilariarekin edo bere ordezkariarekin bilera soil bat egitea lortu, azken horien agenda edota borondate arazoengatik».

Altsasuko Osasun Plataformako kide bat ere izan zen hitzorduan, beraien borrokaren berri emateko. Izan ere, Baztango plataformaren hitzetan, «Altsasu inguruko lehen arreta egoera tamalgarian zegoen duela urte batzuk, eta mobilizazioen eta borrokaren bidez, egoera normaltzea lortu dute».

batzuk alde batera utziko. Aldarrikapen hori ere aitzine-
ra eramanen dugu. Medikua
edo erizaina euskalduna bada
eta norbaitek gatzeleraz arta-

**«ELIZONDOKO
ETA ELBETEKO
EGOERAK PIZTU
DITU ALARMAK»**

tua izatea nahi badu, langile
horiek bi hizkuntzetan lan
egiteko gaitasuna dute. Alde-
rantziz, ordea, ez da egoera
bera eta euskaldunok euskaraz

**«DAGOKIGUNA
LORTU ARTE
LANEAN SEGITZEA
TOKATUKO ZAIGU»**

artatuak izateko eskubidea
dugu. Administrazioaren bo-
rondatearen arabera da
afera, orain arte planifikatze-
rakoan hizkuntza eskubideak
kontuan hartu gabe aritu bai-
tira maiz.

Herritarrei eta administrazioari mezuren bat eman nahi diezue?

Denona dena ez badugu denon artean defendatzen, eskubideak galtzen segituko dugu; beraz, borrokatzeko tenorea da!

HEZKUNTZA

5.782 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdean

Irailarekin batera Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealdea eta Xaretako ikastetxeetan eskolak hasi dituzte

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	0	0	177	8	0	441
Almandoz IP			4			10
Amaiur IP			7			15
Arizkun IP			8			17
Arraioz IP			11			17
Azpilkueta IP			6			19
Baztan Ikastola			65			142
Elizondo IP			29	8		121
Erratzu IP			13			23
Gartzain IP			8			11
Irurita IP			16			37
Lekaroz IP			2			9
Oronoz IP			8			16
Ziga IP			0			4
BERTIZARANA	0	0	28	0	0	52
Legasa IP			14			28
Narbarte IP			14			24
BORTZIRIAK	7	4	195	33	21	468
Arantza IP			21			42
Bera (Ricardo Baroja)			56			122
Bera (Labiaga Ikastola)			39			86
Bera (Jesusen Bihotza)	7	4		33	21	
Etxalar IP			17			47
Igantzi IP			7			37
Lesaka (Irain IP)			29*			84
Lesaka (Tantirumairu)			26*			50

*2 urteko ikasleak barne.

	BIGARREN HEZKUNTZA			BATXILERGOA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	46	0	326	0	0	118
Lekaroz	46		326			118
Elizondo						
BORTZIRIAK	37	3	346	0	0	84
Arantza IP			16			
Bera (Toki Ona)	37	3	287			84
Bera (Labiaga Ikastola)			43			
LEITZALDEA	0	0	263	0	0	109
Goizueta			11			
Leitza (Amazabal)			252			109
MALERREKA	0	0	237	0	0	0
Doneztebe (Mendaur)			237			
XARETA	168	127	143	0	0	0
Senpere (Arretxea)	168	127				
Senpere (Laborantza)						
Senpere (Kattalin E.)			131			
Urdazubi-Zugarramurdi			12			
Guztira	251	130	1.315	0	0	311

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
LEITZALDEA	0	0	105	0	0	282
Areso IP			8			20
Goizueta IP			22			41
Leitza IP (Erleta)			75			221
MALERREKA	0	0	128	4	0	305
Doneztebe (S. Migel)			81	4		210
Ituren IP			17			40
Saldias IP			7			9
Sunbilla IP			23			46
XARETA	70	251	87	176	233	165
Sara (Publikoa)		21		3	30	
Sara (St. Joseph)		36		15	52	
Sara (Oihain Ikastola)			31			63
Senpere (Publikoa)	19	54		66	75	
Senpere (Amotz publ.)	10	16		34	8	
Senpere (Zaldubi ikas.)			46			79
Senpere (St. Joseph)	41	124		58	68	
Urdazubi-Zugarramurdi			10			23
Guztira	77	255	720	221	254	1.713

HAUR HEZKUNTZA

+29

LEHEN HEZKUNTZA

-35

HEZIKETA ZIKLOAK							
LHB/GA		OLH		Erdi M.		Goi M.	
A	D	A	D	A	D	A	D
4		46		144		55	
	4		46		144		55
8		0		26		37	
	8*			26		37	
0		0		0		0	
	0		0		0		0
0		0		0		0	
	0		0		215		
					215		
12		46		170		307	

BIGARREN HEZKUNTZA

+34

BATXILERGOA

+25

HEZIKETA ZIKLOAK

+64

Heziketa zikloak
LHB: Lanbide
Heziketa Berezia
GA: Gela alternatiboa
OLZ: Oinarriko
Mailako Zikloak
Erdi M.: Erdi
Mailako Zikloak
Goi M.: Goi Mailako
Zikloak

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'*Aislatu' edo 'isolatu'?

Aislatu ez da zuzena, *isolatu* erabili behar da euskaraz. Bide batez, *isolatu* aditza batez ere fisikaren eta kimikaren eremuan erabiltzeko aditza dela erran behar dugu:

- Gela bat berotik isolatu.
- Eroale elektriko isolatuak.

Bertzelako adieretarako, hobestekoak dira *bakartu* eta *bakan(du)*.

- *Kasu *isolatu* bat atzeman da > Kasu bakan bat atzeman da.
- *Herri horretan etxe *isolatu* batzuk baino ez daude > Herri horretan etxe bakan batzuk baino ez daude).
- *Jokaldi *isolatu* batean sartu zuen gola > Jokaldi solte batean sartu zuen gola.

Osatu bikoteak

Eraman	Eramazak/n Eramak/n
Ekarri	Ekardazu Ekarridazu
Jakin	Jakizak/n Jakik/n
Eman	Emaguzu Emaiguzu
Esan	Esaidak/n Esadak/n

Oharra: Asmatu zenuen 861. aldizkariko hieroglifikoa? Erantzuna *buruil* da.



Zein da zuzena?

'*Eskuartean' edo 'esku artean'?

Euskaltzaindiak ohartarazi duenez, *eskuarte*, *eskuarteko* eta *esku(en) artean* nahasi egiten dira sarri. Hauek dira adierak eta erabilerak:


- 1- *Eskuarte* ('baliabideak'): Bizitzeko adina *eskuarte* ez zaie faltako.
- 2- *Eskuarteko* ('diru xehea'): Besta denez gero, *eskuartekoa* eman beharko didazu.
- 3- *Esku(en) artean*: Hainbat lan ditu esku artean. Istant batean isuri zaizkigu usteak eskuen artetik.

Beraz, inongo kasutan **eskuartean* ez da zuzena.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61



Irailaren 7an egin zuten urteurreneko lehen ekitaldia. AITZIBER ABASOLO

Bizi-bizi hasi du Labiaga Ikastolak 50. urteurrena

Urteurrena ospatzeko erakusketak, kontzertuak eta antzerki eta musika emanaldia egingen dituzte, berteak bertze

TTIPI-TTAPA

Irailaren 7an egin zuten Labiaga Ikastolaren 50. urteurrenaren aurkezpen ekitaldia. Oraingo eta lehengo ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak elkartu ziren, baita Ikastolen Elkarteko ordezkariak ere.

Clara Rouget lehendakariak egin zuen ongieta, eta 50. urteurreneko ekitaldiak aletu zituen. Berteak bertze, azaroan Ruper Ordorikaren kontzertua, urtarrilean oiha baten landaketa eta ekainean ikuskizun berezi bat egingen dituzte. Ondotik, dantzariak ikastolaren historian oinarritutako dantza

bat taularatu zuten. Hala ere, unerik hunkigarriena ikastolaren hasierako urratsetan lagundu zuten pertsonak oroituz zituztenean bizitu zuten. Berriki hildako eta ikastolako lehendakaria eta sortzailea izan zen Pepi Olaetxeak hil aitzinetik egun horretarako espresuki idatziriko gutuna irakurri zuten.

Ekitaldia bukatzeko, makila bana oparitu zieten ikastolaren ibilbidean urte gehien egin dituzten irakasleei, langileei eta lehendakariei. Ikasleen eskuetatik jaso zituzten hurriz makilak.

Herriguneko turismo bulegoa berritzeko dirulaguntza hartu du udalak

A. LARRETKEA

Udalak 21.009,62 euroko dirulaguntza hartu du Europako Next Generation funtsetatik, herriko turismo bulegoan moldaketa lanak egiteko. Azken aldiaren hainbat ekintza egin dituzte kultur etxean dagoen turismo bulegoa ikusgarriagoa bihurtzeko eta dirulaguntzarekin turistaren harrerarako bulegoa eraberritu nahi dute, espazio haundiagoa eskainiz, irisgarriagoa eta erosoagoa izateko.

Gainera, Ibardinera ailegatzaren diren turistak herrira

erakarri nahi ditu udalak turismo jasangarri baten aldeko apustua eginez, turismoak herrian, gizartean, kontsumoan, kulturen eta ingurumenean duen eragina ikusita.

Bulegoa eraberritzeaz gain, turismo teknikari bat kontratatu nahi dute. Udaberriaren egin zuten lehen deialdia, eta hutsik gelditu zenez, udazkenean egingen dute bigarrena. Izangaiek turismo ikasketak izan beharko dituzte, eta herriko egoeraren diagnostiko bat egin ondotik, turismo plana garatu beharko dute.



UTZITAKOIA

Zelaieta futbol txapelketa arrakastatsua

Irailaren 7an jokatu zuten Matzadan Zelaieta futbol txapelketa solidarioa. Infantil mailako Osasuna, Real eta Baztan-Bidasoko selekzio bat aritu ziren lehian, eta Osasuna nagusitu zen. Ekitaldian bildutako diru dena San Jose egoitzara bideratuko dute antolatzaileek, eta egoiliarrek banatu zituzten sariak.

Argitze, errehabilitazio neurologikorako zentroa

Iktus, traumatismo, epilepsia, Parkinson, Alzheimer eta bertzelako dementzia eta eritasun neurodegeneratiboaren ebaluazioa eta esku hartzea. Lanketa kognitiboa eta motorra. Neuropsikologia eta fisioterapia neurologikoa.



Santiago kalea 51 behe/eskuin
20303 IRUN (Gipuzkoa)
+34 943 051 227

www.argitzeirunestimulacion.com
argitze.irun@gmail.com
@argitze.irun



BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



enean
arkitektura
estudioa

Gabarran kalea, 14 SM Arnute-Kosta
HONDARRIBIA, Gipuzkoa
943 530 841

Uraren kudeaketaz arduratzeko postua oposizio bidez

Urriaren 3ra arteko epea izanen dute izangaiek hautagaitzak herriko etxean zein modu telematikoan aurkezteko

A. LARRETxea

Udalak mantentze lanetan eta zerbitzu anitzetan lanean aritzeko pertsona bat oposizio bidez kontratatzeko deialdia egin du. Hautagaitzak urriaren 3ko 13:30ak arte aurkezten ahal dira, eta aukeratutako izangaia Berako Udaleko funtzionario izanen da.

Lanaldi osoko postua da udalak eskaintzen duena, eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen C mailari dagozkion lan sariak izanen ditu.

Mantentze lanak egin behariko ditu hautatuak, baina batez ere uraren kudeaketa arloari dagozkion zereginak izanen dira: uraren kontsumoa eta kalitatea zaintzea eta aztertzea, egon daitezkeen ihesak detektatzea eta konpontzea, sarearen egoera egiaztatzea, egunero kloroa egiaztatzea eta hilean behin Osasunaren Atalera bidaltzea, ur harguneeen egoera aztertzea, ur hodiak kontrolatzea, urarekin lotutako informazioa eta zerbitzuak ematea herri-

tarrei. Horrez gain askotariko mantentze eta konponketa lanak egin behariko ditu, baita bero sareko eta udaleko biomasa galdararen mantentze lanak ere, eta brigadari lagundu behariko dio agintutako lanetan.

Bete beharreko baldintzak

Izangaiek 16 urte baino gehiago izan behariko dituzte eta titulua izan behariko dute batxilergoan edo II. mailako lanbide heziketan. Horrez gain, B motako ibilgailuak gidatzeko baimena ere izan behariko dute. Euskarazko C1 maila ere izan behariko dute.

Behin izangaia onartuta, euskarazko titulaziorik aurkeztu ez dutenek euskara proba baztertzailerik egin behariko dute lehenik. Ondotik, oposizioak bi proba izanen ditu: alde batetik test motako azterketa teoriko bat, eta bertzetik lanpostuaren edukia-ekin eta eginkizunekin lotutako proba praktikoa bat.

Oposizioa deialdia onartu eta gutxienez bi hilabeteko epean hasiko da.



UTZITAKOIA

Janus Lesterren doinuak Finlandian

Jokin Pinatxo buru duen Janus Lester taldea Finlandian ibili da. Tanperen eta Helsinkin kontzertu bana eman dute Nogen eta Zea Mays taldeekin batera eta Pinatxok kontatu duenez, «esperientzia zoragarria» izan da. Ia 100 kontzerturen ondotik, udazkenean bukatuko du taldeak bere lehen bira arrakastatsua.



UTZITAKOIA

60 lagun elkartu dira Taillonon

Agerra Mendi Taldeak eta Manttalek antolatuta, 60 lagunek hartu zuten parte abuztuaren 31n Taillonera egindako irteeran. Tontorrera igo ziren batzuk, beherago gelditu ziren bertzeak, baina denek gogoan izan zituzten Taillonon zendutako Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi mendizaleak.

Ansonera BERA
MUS TXAPELKETA

Urriaren 4tik abenduaren 20ra
ortziraletan 22:00etan *Urriaren 18an izan ezik

- Izen emateak egun berean 22:00ak arte
- 8 bikote guttienez • 20€ bikote bakoitzak
- Joko-sistema 4 erregetara eta 40 tantora
- Ortziralero lehenbiziko hiru bikoteentzako sariak egonen dira
- Ortziralero puntuak banatuko zaizkie lehenbiziko 4 bikoteei (puntuak partaide bakoitzak hartuko ditu)

📞 649 33 77 23 / 948 630 107

1 ABENDUAREN 20an jokatu da azken saioa eta lortutako puntuen arabera lau sari banatuko dira

1. 800€
2. 400€
3. 200€
4. 100€

Energia komunitatea sortzeko prozesu irekia abiatu da

Irailaren 18an egitekoa zen aurkezpen publikoa eta datozen asteazkenetan egingen dituzte lan saioak herriko etxean

AITOR AOTZENA

Lesakan energia komunitatea sortzeko prozesu parte hartzailearen aurkezpen publikoa egingen dute irailaren 18an, asteazkenean 19:30ean udal-letxe bilkura aretoan. Lesakako Udalak, Artelan elkarteak eta Amairuko Urkilo komunitate energetikoak hartuko dute parte.

Energia komunitatea sortzeko helburuarekin Lesakako Udalak bultzatu du prozesu parte hartzailea, etorkizunean egin ahal izanen dituen proiektu energetikoei lotua izanen dena. Lesakan, herrian bertan energia berriztagarriak sortzeko, kolektiboki autokontsumitzeko eta energiaren ekoizpenaz eta kudeaketaz arduratuko den herritarren erakunde bat sortzeko helburua dute. Udalak sustatuko parte hartze prozesu baten bidez egin nahi dute. Prozesu horretan, interesdunek parte hartuko dute, eta komunitate horrek abiaraziko duen talde eragilean sartuko dira. Talde eragilea herritar taldea da, Energia Berriztagarrien He-

rritarren Komunitatea martxan jartzeaz arduratuko den taldea. Horretarako, pertsona horiek prestakuntza, gaikuntza eta kohesioa jasoko dute parte hartze prozesuan.

Lan saioak datozen asteazkenetan

Honela, datozen asteetan egingen dituzten lan saioen bitartez Energia Berriztagarrien Herritar Komunitatea abian jartzeko beharrezkoak diren hiru elementuen (Energia Berriztagarriak, gizarte kohesioa eta araudia) inguruan talde lan dinamikoa egingen dute. Hurrengo formakuntza saio parte hartzaileak (ez dira hitzaldiak izanen) datozen asteazkenetan izanen dira, irailaren 25ean eta urriaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean, denak 18:30ean eta denetan zerbait berria landuko dute.

BERRIZTAGARRIAK, GIZARTE KOHESIOA ETA ARAUDIA LANDUKO DUTE



UTZITAKOIA

Uxuri Porturi udal harrera egin diote

Uxuri Porturi txirrindulariari harrera egin zion irailaren 5ean udalak, munduko gazte mailako txapelketan lortutako sariengatik. Abuztuko lehen aste hondarrean Alemanian jokatu zen txapelketan, taldeka munduko txapeldun izan zen eta banakako lehiaketan txapeldunorde bere kategorian.

Arrano Elkartearen eguna ospatuko dute irailaren 21ean

Arrano Elkartearen eguna ospatuko dute irailaren 21ean. Larunbat goizean, 09:00etan mendi buelta egingen dute Agiñara, oinez eta bizikletaz, 10:30ean Agiñan gosaria izanen dute. 12:45ean karrika antzerkia Harriondoa atarian. 14:30ean bazkaria izanen dute, Etxalarko *asau* egileen eskutik (txartelak hilaren 15era bitarteko eskura zitezkeen). Bazkalondoan Arrano Band taldearekin musika. 18:30ean Elutxa txarangak joko du eta 22:00etan hasita, DJ Fifi eta Fefarekin musika izanen dute.

Gazteen eta pantailen arteko harremanaz

Gazteen eta pantailen arteko harremana landuz solasaldia eskainiko du Miren Rosek (Bidelagun) irailaren 18an, ortzegunean 17:30ean liburategian. Urriaren 3n, berriz, *Nerabeen garrasia*, *Osasun mentala aldaketa garaian* liburuaren aurkezpena egingen dute 18:00etan liburategian. Aurkezpenaren ondotik, solasaldia izanen da Maitane Ormazabal eta Telmo Lazkano liburuaren egileekin. Lesakako Hezkuntza Foroak antolatu du aurkezpena, liburategiaren laguntzarekin.

22. SAGAR EGUNA 
IRAILAK 29 SEPTIEMBRE, 11:30

**PITARRA TXISTORRA
SAGARDOA HAUR JOLASAK
SAGAR ERAKUSKETA** 


ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com


LARRETXEAK EGVRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427 

Gazteen diagnostikoa lantzeko prozesua abiatu dute

Herriko 15 gazterekin bildu da udala, Elhuyar Aholkularitzarekin batera, «beraien kezkek, arazoak eta beharrak ezagutzeko»

AITOR AROTZENA

Herriko gazteen partaidetza bultzatzeko hainbat ekimen eta ahalegin egin ditu azken urteotan udalak. Oraingoa urrats kualitatibo sendoa emateko unea dela iritzita, Elhuyar Aholkularitzarekin batera partaidetzan oinarritutako gazteen diagnostikoa lantzeko prozesua jarri du martxan. Prozesu honek bi dimentsio izanen ditu. Batetik, «herriko gazteen kezkek, arazoak, beharrak eta interesak ezagutzeko entzute-ariketa bat egin nahi dugu; politika publikoen diseinuan eta garapenean kon-tuan hartzeko eta gazteriako datozen urteetako plana lantzeko». Bertzetik, herriko gazteen parte hartze soziopolitikoaren kultura eragiteko ariketa ere izan nahi du, «entzute ariketa ez ezik, gazteen eta Udalaren arteko zubiak eraikitze ariketa». Prozesua baliatu nahi du udalak elkar-riketa hori sortzeko eta indartzeko baldintzak lantzeko eta etorkizuneko Gazteen Foro baten lehenengo haziak erei- teko.

Gazteak izanen dira prozesu honen protagonista eta subjektu aktibo. Horrela, bada, prozesua gidatzen duen Talde Eragilea herriko hiru gazterekin batera osatu dute. Dagoeneko hasia dute bidea eta gazteekin bi lan saio egin dituzte. Guztira 15 gazterekin egon dira, Lesakan gazte izatea nola bizi duten ezagutzeko. Gazteen interes, behar eta kezkek partekatze lehen espazio hauetan denetariko gaien inguruan jardun dute: harremanak, etxebizitza, kultura, aisialdia eta bestak, parte hartze soziopolitiko, eta abar luze bat.

Lesakako gazteen errealitate gerturatzeko ariketa honek segida izanen du datozen asteetan eta gazteen arteko zein udalarekiko harremanak sendotu eta elkarlanerako baldintzak eratzeko ariketa Topaketa batzuekin bukatuko dute azaroan. Hala ere, prozesu hau hasiera bertzerik ez da izanen; gazteei begirako politika publikoek eta parte-hartzeari loturiko egiturak eraikitzen hasteko lehen urratsa.

Organo kontzertu berezia irailaren 20an elizan

Lesakako Roqués Organoaren Lagunak elkarteak antolatuta, Organorako Musika Nafarroan zikloaren 40. edizioaren barranean, organo kontzertua eskainiko du Jesús Gonzalo López organista eta ikertzaileak, Jose Luis Echechipia organista eta lagunaren laguntzarekin, *Eslava eta bere ikasleak, organorako Espainiako eskola erromantikoa* goiburupean, irailaren 20an, ortziralean 19:00etan hasita, elizan. 1853 eta 1883 artean argitaratutako lanak joko dituzte, batzuk lau eskutara.

Pascual Aldave omentzeko ahots eta piano emanaldia

Pascual Aldave konpositore lesakarraren jaiotzaren mendurrena gogoratuz ziklo berezia antolatu dute. Lehen emanaldia irailaren 29an egingen dute bere sorterrian. Igandean, 19:00etan, omenaldia eskainiko zaio ahots eta piano emanaldiarekin. Noelia Ibañez mezzosopranoa, Maider Ronquete sopranoa, Amaia Zipitria eta Josu Okiñena pianistak, Kanadatik etorriko den Alexandre Da Costa biolinista eta Kea ahots taldea izanen dira. Sarrerak 8 eurotan salgai daude udalaren webgunean.



ARTXIBOKOIA

Sokatira Eguna irailaren 21ean

Beti Gaztek antolatutako Sokatira Eguna egingen dute larunbatean, lehengo eta oraingo kirolariak bilduz. 11:00etan haurrentzat proba konbinatua eta erakustaldi sorpresa egingen dute, gero poteoa soinulariekin eta 14:30ean bazkaria Koxkontan. Bazkalondoan bideo emanaldia izanen dute.



Aguirrezabal
IGOGAILUAK

24 orduko zerbitzua

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak.
Irogailuak | Proiektuak
Karga-jasogailuak, plataforma hidraulikoak
Plater-igogailuak

MARKA GUZTIEN IGOGAILUEN MANTENTZE LANAK

Arretxe Ugalde ind.
Ezurriki kalea, 29 IRUN
943 612 821

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com

Anterola
Tekniko Instalatzailea

ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602

JA-ONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 · Altzate, 21 · BERA

Alberto RETEGI

abokatua

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Usategietako Tradizioaren besta iganderako prest

Sara eta Etxalarren arteko hitzarmena berrestez gain, makila botatzeko munduko IX. txapelketa ere jokatuko da

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 22an egun osoko besta izanen da Lizarietan. Sara eta Etxalarren arteko hitzarmen berrestea dela eta, igandean 10:00etatik 13:00etara bertako ekoizleen merkatua, usazaleen makila egite erakustaldia eta haurrentzako puzgarriak izanen dira. 11:30ean Usategietako makila botatzeko munduko IX. Txapelketa. 12:30ean eginen da 2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalar arteko hitzarmenaren sinaduraren berrestea. 13:00etan bertsolariak eta, ondotik, bazkaria izanen dira. Arratsaldea Joxe Angel musikariak alaituko du.

Uso postuen enkantea

Irailaren 7an, goizean egin zen Usategietako postuen lehen enkantea. Denera 21 ehiza postu esleitzen zituzten eta horietatik bi hutsik gelditu ziren. Gainerako 19 postuengatik gutienez 40.584 euro bilduko ditu herriak, guztienatik aurreikusitakoa baino 1.534 euro gehiago. 5.647 eurotan esleitu zuten hamabi-



Irailaren 7ko enkantea. JM TELLETXEA

garren postua, aurreikusitakoa baino 3.700 euro gehiagotan (370 tanto). Bi posturik garestienak (8 eta 11), bakoitza 3.849 eurotan atera zituzten, eta biak tasatutako prezioan gelditu ziren. Sesta emateko prozedura zabaldu eta sei egun naturaleko epea zuten Iarrendira ehizatzaera joan nahi dutenek, behin-behineko esleipenak hobetzeko. Ondotik, bigarren enkantea egitekoa zuten irailaren 17an.

Ikasturte hasiera

Irailaren 6an, 64 ikasle eta 12 irakaslek eman zioten hasiera 2024-2025 ikasturte berriari Landagain eskolan. Orduz gero zaitua izanen dute aurten.



BIHODI

Bihodi bikotea kontzertuan hilaren 21ean

Altxata elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, udazkeneko Kultur Egunak prestatu ditu. Irailaren 21ean, larunbatean, 19:00etan izanen da elizan. Bihodi taldeak txistu eta organo kontzertua eskainiko du, doan. Europan biran ibili ondotik, Etxalarren joko dute.



UTZITAKOIA

Elizagoiendarrak 'Errautsak hauspotzen'

Errautsak hauspotzen izenpean, orain dela urte batzuk Urola Erdiko Trikitiari balioa emateko proiektua jarri zuten martxan Triki giro Elkarteak eta Kulturaz Kooperatibak. Elizagoien ahizpak ere proiektuaren koordinazio lantaldearen parte izan dira eta orain herriz herri proiektua aurkezteko asmoa dute.

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

ETXALAR

Anduetzeta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

IGANTZIKO BESTAK 2024

Egitaraua

Irailak 21, larunbata

09:30ean gosaria Unanuko ehiztarien bordan. **10:00etan** plater tiroketa Unanuko ehiztarien bordan. **11:00etan** herriko frontenis finalak, gaztetxoak eta helduak. **16:00etan** mus eta partxis lehiaketa Baratzondon. **20:00etan** herriko dantzarien emanaldia.

Irailak 22, igandea

10:00etan karrikabuelta txistulariekin. **11:00etan** Ajoarriero Txapelketa. **12:00etan** XVII. Gazta Lehiaketa. **18:30ean** karrikabuelta kankailuekin eta buruhaundiekin, herriko trikitilari gazteen laguntzarekin. **19:00etan** gazta eta opil dastaketa eta, aldi berean herriko trikitilari gazteen emanaldia.

Irailak 27, ortziralea

17:00etan Goitibera Txapelketa. **20:00etan** altxaferoa txarangarekin. **20:30ean** karrikabuelta kankailuekin eta buruhaundiekin,



gaitariekin lagunduta. **00:30ean** Trikidantzen kontzertua.

Irailak 28, larunbata

10:00etan karrikabuelta gaitariekin. **11:00etan** Toka Txapelketa. **12:00etan** karrikabuelta kankailuekin eta buruhaundiekin, gaitariekin alaituta. **18:00etan** herri kirolak. Aizkora erakustaldi mistoa eta harrijasotze erakustaldia. **Ondotik**, herriko gazteen arteko herri kirol desafioa. **17:00etatik**

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

astelehenetik ortziralera
08:00-13:00
15:00-20:00
larunbatetan goizez

**GOZATU
IGANTZIKO BESTAK!**

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklintika.es
@liderahortzklintika

Ongi pasa Igantziko bestak!

Bailarakoek
Baxi Naturan
%50eko
deskontua
denboraldi
osoan

Tere Sarri
LAND
irrisarriand.com

ZUMARBEL

creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

ONGI PASA BESTAK

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@ info@zumarbel.es
www.zumarbel.es

**Ainhoa
Altzuguren
Mitzelena** ongi
pasa
bestak!

Abokatutza orokorrean
Herentziak
Alokairuak
Arazo
administratiiboak

Zerbitzua euskaraz
ematen dut.
Datu itzordua
hartzeko.

Legia 42, BERA
M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

📍 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
☎ 948 63 10 27 📞 670 598 560
@ info@tabernaedariak.eus
🌐 www.tabernaedariak.eus

Ongi pasa
bestak!

Gora Sanmigelak!
 lagunak diren lekuan,
 beti dago besta!

bortzirudi
 inprimategia
 kopistegia · rotulazioa · serigrafia · papertegia
 948631521 · bortzirudi@gmail.com azulehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30etara



Jauzena
 Denda, 948 631 217
 T. 630 136 863
 Julio Caro Baroja, 6 - BERA
 jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
 Erreformak, etxe berriak
 Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
 eta dirulaguntzen gestioa

Orngi pasa bestak!



OKILA
 zurgindegia

607 88 39 68 · lander@okila.eu
 Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI



00:00etara Lila Puntu informa-
 tiboia. **20:00etan** Hamarru elek-
 trotxaranga. **00:00etan** betizuak
 zezen plazan. **01:00etan** DJ Txin-
 gudi.

Irailak 29, igandea

09:00ean karrikabuelta txistula-
 riekin. **10:00etan** karrikabuelta
 ezpata dantzariekin. **11:30ean**
 meza nagusia abesbatzak abes-
 tua. **Ondotik**, bandera arbola
 doinuari dagokion ikurrin agurra
 eta ezpata dantzarien eta dantza-
 rien saioa. **17:30ean** pilota par-
 tidak frontoian. Gaztetxoetan,
 Aimar eta Aiert Baleztena, Mikel
 Eugiren eta Oihan Anduezaren
 kontra, eta Nahia Almandoz eta
 Ainara Hita, Maddi eta Joana Ira-
 zokiren kontra. Eliteko partidan,
 Julen Alberdi eta Aitor Alduntzin
 Oian Canabalen eta Antton Ape-
 zetxearen kontra. **Ondotik**, mu-
 txikoak. **21:00etan** haurrentzako
 suzko zezena. **21:30ean** Belfast
 mariatxiak

Irailak 30, astelehena

09:00etan gazteen gosaria.
10:00etan karrikabuelta txistu-
 lariekin. **10:00etan** haurrentzako
 puzgarriak frontoian. **11:00etan**
 haurrentzako animaliak zezen
 plazan. **12:00etan** betizuak ze-
 zen plazan Elutxa txarangarekin.
14:00etan haurrentzako herri
 bazkaria. **14:00etan** herri baz-
 karia Julio Soto eta Eneko Lazkoz
 bertsolariekin. **15:00etan** hau-
 rrentzako puzgarriak frontoian.
19:30ean Elutxa txaranga. **Ondo-
 tik**, gaixoa ni.



**Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
 igantziar eta bisitari guztiei**

Berrizaungoen ondotik herriko bestak gainean dira

Sanmigeletako txupinazoaren aitzinetik, asteburu honetan dantza saioa eta XXI. Gazta Lehiaketa izanen dira

ANA ETA ITZIAR

Bestak ate joka ditugu eta herrian nabaria da: dantzariak entsaioekin jotake ari dira buruilaren 21eko saioa prestatzen, Baita abesbatza, gaitero, txistulari, kirolari eta abar ere. Egitarau zabal eta anitza prestatua dago, aitzineko orrietan ikusiko duzuenez.

Horren aitzinetik, ordea, Berrizaungo bestak izan ziren eta ongi pasatzeko aukera ez zuten galdu. Txupinazo eta dantzen ondotik, bazkarirako 70 bat lagun bildu ziren mahai inguruan eta ederki pasatu

zuten musika, kantu eta dantzan, baita bingoan ere.

Datorren asteburu hau ere ekitaldiz gainezka datorkigu: plater tiroketa, frontenis txapelketen finalak eta dantza saioa larunbatean, XXI. Gazta Lehiaketa, igandean. Guzti honen ondotik, San Migeletako txupinazoaren zain gelditzuko gara.

Programaren azal lehiaketa

Udalak antolatutako bestetako azal lehiaketan, Ander Sarasola Zelaietak eskuratu du 150 euroko saria aurtengoa.



UTZITAKOIA

Baratzondo elkartekoak Bilbo bisitatzeko

Baratzondo elkarteko 40 bat lagun Bilbon izan ziren buruilaren 1ean. Hiria bisitatu eta Zubi Esekia ikusi zuten (argazkian). Jubiloteka ere abian da asteazkenetan 16:30ean eta ikastaroek ere badute lekua agendan: buruilaren 11n mugikorren erabilerari buruzko hitzaldia izan zuten.

Errespetuzko komunikazioari buruzko tailerra urriaren 15ean eta 22an

ANA ETA ITZIAR

Urriaroaren 15ean eta 22an, eskainiko den Errespetuzko komunikazioari buruzko tailerrean izen emateko epea zabalik dugu.

Tailer honetan landuko diren gaiak entzule aktiboa, enpatia, mugak, anai-arreben arteko

gatazken kudeaketa eta abar izanen dira.

Nerea Mendizabal izanen da emalea eta interesa duenak urriaroaren 8a baino lehen eman beharko du izena info@bortziriakgz.eus helbide elektronikoan edo eta 634 22 36 59 telefono zenbakian.

Liburutegia urritik maiatzera irekiko dute

Ikasturtearekin batera eta udako atsedenaldiaren ondotik, urriaroan irekiko dituzte herriko liburutegiak ere eta zerbitzua, maiatzera arte eman du. Astelehenetan 16:30etik 17:30era eta asteazkenetan 17:30etik 18:30era izanen da bertaratzeko modua.

Zenbait auzotan ur mozketak egiten ari dira gaez

Aste batzuk badira hainbat gautan ur mozketak ditugula zenbait auzotan. Ur hornidurako sarean isuriak daudela eta, hauek moldatzeko lanetan ari dira. Hala ere, ez dira mozketak hauek deserosoegiak suertatzen ari 00:00etatik 05:00etara izaten baitira.

ANTZUZELAI S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

arropa-denda
etxeko osagarriak | lenteria
Alzate, 30 BERA T. 948 630 136

Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuaren balorazioa doan eta konpromisorik gabe

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • 20304 IRUN | www.3hiruhome.com

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URITIK
609 446 693 - 948 625 663
bidasa@neumaticosbidasa.es
www.neumaticosbidasa.es

Gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

24h ezazu BIDASOA txartela erregain deskontuak lorteko

Alkaiaga Industrialdea Ziobi Kalea 6 31770 Lesaka (Nafarroa)	Noain-Eskiroz Industrialdea Y Kalea 10 31110 Noain (Nafarroa)
--	---

Hamaika lagun apuntatu dira jubilotekan

Astelehen arratsaldetan bi orduko saioa egiten dute Amaia Inda begiralearekin

NEREA ALZURI

Udako atsedendiaaren ondotik, ikasturtea abiatu dute jubilotekako lagunak.

Joan den irailaren 2an izan zuten lehenbiziko eguna, eta geroztik, astelehenetan Zahar Txokon biltzen dira, 16:00etatik 18:00etara, Amaia Inda

begiralearekin. Kuadrilla polita elkartu dira gainera: Anttoni Makirriain, Marixepa Biurrarena, Puri Leiza, Klemen Irigoien, Kontxita Alzuri, Lolita Mutuberria, Lourdes Mutuberria, Pepi Zapirain, Geno Otxoteko, Loreto Taberna eta Lucia Iparragirre.



Jende aunitz bildu zen Esne Beltzaren kontzertuan. GAIZKA PEÑAFIEL

Ederra izan zen Esne Beltzaren agurreko kontzertua

N. ALZURI

Hamazazpi urteko ibilbidearen ondotik, azken kontzertuak ematen ari da Esne Beltza taldea.

Iragarri bezala, herrian ere pausaldia egin zuen abuztuaren 31n Aterpen. Eguraldi iragarpen kaxkarrak ez ziren bete zorionez eta Aterpeko ostatua, terraza eta ataria jen-

dez gainezka izan zen. Ilunabarrean hasi zen Kawadeni Afro taldea eta ikasleen emanaldiarekin. Arratsean berriz, Esne Beltzaren emanaldia izan zen. Taldeko bateria jotzailea eta etxekoa den Iban Zugarramurdirentzat kontzertu berezia izan zen eta momentu hunkigarriak bizi izan ziren.

Josebe Blancorekin hitzaldia izanen da irailaren 27an

Bidazi Bidasoaldeko kontsumo elkarteak antolatuta, hitzaldia izanen da irailaren 27an, ortziralea, herriko liburutegian. Josebe Blanco gonbidatu dute eta *Hausnarrean*. *Ardiek egin naute artzain* bere liburua aurkeztuko du. Solasaldia 19:00etan hasiko da.



Josebe Blanco Arantzara etorriko da.

Uraren hiri zikloa digitalizatzeko dirulaguntza hartuko du udalak

N. ALZURI

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak 1,9 milioi eman ditu uraren hiri zikloa digitalizatzeko.

20.000 biztanletik behetiko toki erakundeentzako deialdia izan da, hornidura sistemak

hobetzeko eta ur galerak murrizteko, eta Arantzako Udala izanen da dirulaguntza hartuko duten horietako bat. Zehazki, 148.638 euro hartuko ditu herri inguruko telekudeaketa, sektorizazioa eta etxeetan kontagailuak instalatzeko.

Eskolaz kanpoko jarduera batzuk hasiak, eta gainerakoak urritik aitzinera martxan

N. ALZURI

Ikasturte honetan ere, eskolaz kanpoko hainbat ikastaro izanen dira aukeran. Hilabete honetan ez bada, urrian hasiko dira.

Iciar Mikelperizenarekin, adibidez, pintura ikastaroa hilabete honen hasieran hastekoa zuten, eta taldea ateraz gero, ortzegunetan bilduko dira.

Bertzetik, Nafarroako Bertsozale Elkartek aurten ere bertso eskola antolatu du. 8 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat izanen da eta asteazkenetan bilduko dira Kattin Madariaga eta Estitxu Arozena irakasleekin. Izena



Madariaga bertso irakasle ariko da.

irailaren 20rako eman behar da elkartearen webgunean.

Aurten, berrikuntza gisa, *cardiofitsaioa* ere antolatu nahi dute. Ortzegunetan izanen litzateke.

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

BERTAKO ENPRESA BERRIA

Beran (Nafarroa) kokatuta dagoen enpresa gaztea da. Gure taldea, gazteez eta motibaturako langileez osatua dago.

Plataformak eta igogailu-saskiak alokatzen ditugu, sektorean sendotzeko helburuarekin.

GURE PLATAFORMAK DIESEL ETA ELEKTRIKOAK

Makina diesel eta elektrikoen aukera zabala eskaintzen dugu, eraikuntza lanetarako, mantentze lanetarako eta bestelako altuerako lanetarako egokiak direnak; bai profesionalentzat eta baita partikularrentzat ere.



Guraize-jasogailu
elektrikoak
8 m - 10 m

Diesel
guraize-jasogailuak
12 m - 18 m

Jasogailu artikulatu
elektrikoak
12 m - 16 m



Diesel jasogailu artikulatuak
12 m - 18 m



Saski teleskopikodun kamioia
16 m / B karneta

GARRAIOA ETA ENTREGA ZURE BEHARRETARA EGOKITUTA

Plataformentzako garraio eta entrega zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dugu. Entregak behar dituzun lekura eta ordura egokitzen ditugu, entrega bakoitzean puntualtasuna eta eraginkortasuna ziurtatuz.



☎ 639 103 305

✉ plataformasbidasoa@gmail.com

📍 Alkaiaga Pol. Ziobi, 15



Irailaren 6an aurkeztu zuten Iruñean ekimena. UTZITAKOIA

Abian da Bardoak Taldekako Bertso Txapelketa

Irailaren 13an zen hastekoa txapelketa Lesakan eta Sunbillan, eta urriaren 26an jokatuko dute finala hiru taldek Garesen

TTIPI-TTAPA

Bueltan da Bardoak Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketa. Irailaren 13an hastekoa zen, eta 19 saio jokatu, urriaren 26an, larunbata, bukatuko da Garesen jokatuko duten finalarekin. 91 lagunek hartuko dute parte txapelketan 13 taldetan banatuta eta talde bakoitzean bertsolariak, gai jartzaileak, epaileak eta antolatzaileak ariko dira.

Bortz helburu nagusirekin antolatu du Nafarroako Bertsozale Elkarteak Bardoak ekimena: Bertso eskolen sarea aktibatzea eta indartzea nahi dute

Nafarroako bertso eskolen arteko harremana bultzatuz, Nafarroako bertsolari eta bertsozaleen harrobia berriro nahi dute, bertsolari gazte eta hasiberriei trebatzeko aukera eman nahi diete plaza berriak emanez eta txapelketaren presiorik gabe, plaza berrietara ailegatu nahi dute ber-

ESKUALDEKO BORTZ TALDE ARITUKO DIRA BARDOETAN

tsolaritza Nafarroako ahalik eta bazter gehienetara eramateko, eta bertsolaritzaz gozatzeko formatu berritzailea eskaini nahi dute.

Eskualdeko parte hartzaileak

Hamahiru taldeek hartuko dute parte txapelketan eta horietatik bortz dira eskualdekoak: Manteleko Sobrak (Leitza, Altsasu eta Barañain), Baztanzopak (Baztan), Hor gu! (Bortziriak), Malerreka ez da Baztan (Malerreka), eta Mutilatuak (Bortziriak eta Baztan). Horrez gain, bertze hiru taldetan ere ariko dira eskualdeko bertsolariak.

Pasa den astean zen txapelketa hastekoa eta eskualdean ere hainbat saio egingen dituzte. Irailaren 13an Lesakan elkarren kontra aritzekoak ziren Hor gu! eta Errimaren Matxinatuak taldeak. Sunbillan, aldiz, Malerreka ez da Baztan! eta Pikutara Goaz taldeak ziren aritzekoak. Irailaren 20an, ortziralea, Lekarozko ostatuan Mutilatuak eta Pirini Bardo taldeak ariko dira 19:30ean eta irailaren 27an, aldiz, Manteleko Sobrak eta Drimtin taldeak Leitza eta Erratzuko elkartean izanen da hilaren 28an, Baztanzopak eta Hor gu! taldeen artean.

Finalurrekoak Tafallan, Irunberrin, Irurtzunen, Etxaurin, Iruñean eta Tuteran jokatuko dituzte eta finala Garesen izanen da urriaren 26an.

Ekonomia feminista eskolaren 3. edizioa

TTIPI-TTAPA

Mundu Bat Fundazioak eta Ara! Gorputz elkarteak antolatuta, hirugarren urtez Ekonomia Feminista Eskolaxoa egingen dute Baztan, Malerreka eta Bortzirietako emakumeei* zuzenduta.

Mundu Bat Fundazioak, Abya Yalan erresistentzian dauden emakumeek* egindako zenbait jakintza kolektiboen sistematizazioa dira ekonomia feminista eskolak, baina, Euskal Herriko testuingurura egokitu. Lehen ikasturtean bi modulu landu zituzten, iaz hurrengo seiak lantzen aritu ziren eta aurten zortzigarrenetik aitzinerakoak landuko dituzte. Patriarkatua eta kapitalismoa, erresistentzia ekonomiatik, bizitza ona eta arrazakeria landuko dituzte aurten bertzeak bertze.

Urrian hasita, sei saio egingen dituzte, denak ere larunbat goizetan Berako Beralandeta aretoan 10:30etik 13:30ak arte. Saiok urriaren 26an, azaroaren 30ean, abenduaren 21ean, urtarrilaren 25ean, otsailaren 22an eta martxoaren 15ean izanen dira.

Izen ematea urriaren 19ra arte egiten ahal da info@aragorputz.eus helbidera mezu elektronikoa bidalita.



Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com



2010ean Sunbillan ospatu zuten euskal artzain amerikanoen besta. ARTXIBOKOA

Euskal artzainen besta urriaren 12an Berueten eginen dute

Autobuserako txartelak irailaren 26ra bitarte eskura daitezke eskualdeko hainbat lekutan

TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketara eguna urriaren 12an ospatuko dute aurten Berueten, izen bereko elkarteak, Nafarroako Gobernuaren eta Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta, Ultzama eta Berueteko udalek lagunduta. Egun horretarako autobusetarako txartelak irailaren 1etik 26ra salgai paratu dituzte. Bortziritan, Lesakako herriko Etxean, Beran (Maitetxu Leonis) eta Igantzin (Jose Mari Yanci) eskura daitezke; Maleurrekan, Sunbillan (Jose Mari Jorajuria) eta Donezteben (Angie Otxandorena) eta Baztanen, Balleko Etxean, Arraiozen eta Ordokin.

Urriaren 12ko egitarau Berueten

10:00etan autobusen iritsiera. **10:00etatik 12:00etara** gosaria. **10:00etatik 14:00etara** erakusketa eta bertako artisaauak. **12:00etan** meza, Ultzama abesbatzak kantatua. **14:00etan** *Highball* eta bazkaria. **16:00etan** Menditarrak kantari. **16:00etan** Ibarra DJ. **19:15ean** autobusen irteera.

Basaburua-Imotz-Ultzama aldetik 215 artzain

Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak eskerrak eman dizkie Ana Olaiz (Iraitzo) eta Lourdes Iraizozeri (Iraitzo) azken bi urteotan Basaburua, Ultzama, Atetz, Lantz, Odieta eta Imotzetik AEBra joan zirenen datuak biltzeagatik, baita udal horiei proiektuarekin erakutsi duten inplikazioarengatik eta Beruete (Basaburua) herrian urtero ospatzen den besta ospatzeko lankidetzagatik ere.

Bildutako datu eta argazkiei dagokienez, 215 pertsona inguruk emigratu zuten haran horietatik. Bildutako materialetik abiatuta, eta Jesus eta Begoña Garate (artzain baten seme-alabak) laguntzari esker, erakusketa bat argitaratuko dute, eta argazkiez gain, emigratio horrek herri horietan eragin zituen datu demografikoak emanen ditu ezagutzera.

Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, Artzain Amerikarraren Ibilbidea diseinatzen ari da.

226.500 euroko dirulaguntza hartuko dute eskualdeko musika eskolek

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Udal Musika Eskolei 3,4 milioi euro ematea erabaki du, mota horretako ikastetxeen mantentze eta funtzionamendurako dirulaguntzen urteko deialdiaren esparruan. Guztira, 51 toki administratibori (edo haiei lotutako erakunderi) emanen zaizkie laguntzak, dagozkien eskoletan erabil ditzaten. Horien artean, eskualdean, Aralar, Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako musika eskolek hartuko dute laguntza. Laguntza ezin dai-

teke izan urteko aurrekontuaren %33 baino handiagoa, ezta erakunde titularrak 2023an egin zuen ekarpena baino handiagoa.

Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolako udal patronatuak 44.431,24 euroko dirulaguntza izanen du; Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako udal patronatuak 11.536,24 eurokoa; Baztango Udalak 44.931,81 eurokoa; Lesakako Udalak 27.741,91 eurokoa eta Lekunberriko Udalak (Aralar udal musika eskola), azkenik, 97.855,01 eurokoa.

9.000 euroko laguntza deialdia egin du Gobernuak baserriak seinaleztatzeko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak laguntza deialdi bat jarri du abian, 9.000 euro inguruko aurrekontuarekin eta udalei zuzenduta, baserriak eta sakabanutako beste batzuk kokatzeko eta seinaleztatzeko, larrialdi zerbitzuek (osasuna, segur-

tasuna eta suteak itzaltzea) larrialdi egoeretan azkar katu ahal izan ditzaten. Larrialdi-zerbitzuek *Helpbidea* identifikatzaile bakarra erabiltzen dute herriguneetatik kanpo dauden etxebizitzetara eta eraikinetara azkar mugitzeko.

PINTURA IKASTAROA

2024-2025 ikasturtea

✓ Ttikiak*

✓ Gazteak

✓ Helduak

*6 urtetik aurrera

Amaiur / Elizondo
Doneztebe / Sunbilla
Arantza / Bera

**MARGOTU, ERLAXATU
ETA GOZATU!**

Tel. 661 010 416

Iciar Mikelperizena

Maribel Petrirena omendu du Ulibeltzak elkarteak

23 urte baino gehiagoz elkartearen garbiketa lanak egin ondotik erretiroa hartu du

MAIDER PETRIRENA

Ezin aipamenik gabe utzi. Ulibeltzak Elkarteak 23 urte baino gehiagoz garbiketa lanetan Maribel Petrirena Murrugarren izan dugu. Jubilatze-ko tenorea ailegatu zaio baina ezin utzi hitz polit batzuk berari eskaini gabe. Uztailean egin zen batzarrean, juntakideek, elkarte guztiaren izenean aunitz eskertu zuten Maribel-ek urte guzti hauetan egingo dako lana. Horrez gain, oroigarri bezala, lore sorta bat ere oparitu zitzaion. Emozioz jaso zuen oparia eta berak ere aunitz eskertu zuen urte guzti hauetan berari lagundu dioten bazkide guztiak. Eskerrik asko Maribel eta orain aunitz gozatu etapa berri horretan.



Maribel Petrirenak erretiroa hartu du.

dagoeneko elkarteak 239 bazkide ditu.

Elkarteak urtero bezala, besta ederra antolatu du, urriaren 5erako. Urriko lehen larunbatean, 11:00etan, mus txapelketa izanen da. Eguerdiren partean, bazkari ederra dastatzeko aukera eta eguna ezin hobeki akitzeko, Luzianoren eskutik musika izanen da. Apuntatzeko txartelak fonda ostatuan salgai izanen dira, 40 eurotan.

Batzarra abuztuaren 30ean eta besta urriaren 5ean

Ulibeltzak elkarteak batzarra abuztuaren 30ean egin zuten. Bertan hainbat gai jorratu zituzten, horien artean bestetako kontuak, bazkide berriak, elkarteak besta... Ulibeltzak elkartearen sei bazkide berri sartu zaizkigu eta, horiek,



MAIDER PETRIRENA

150 txirrindulari VI. BTT ibilaldian

150 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 8an Sunbillako BTT ibilaldiaren seigarren edizioan. Ibilbidea akitutakoan jatekoa eta edatekoa izan zuten. Dortsalaren arabera, opariak zozketatu zituzten aurten ere. Katea Bikek oparitzen duen bizikleta Liher Lastiri Aranbarri herritararentzat izan zen.

Tuneleko ipar aldeko lotunea ere bi altueretan egiteko proiektua abian

MAIDER PETRIRENA

Sunbillako iparraldean erdi lotunea eraikitzeke proiektua, N-121-A errepedeko 51+000 kilometro puntuan proiektua abian da. Proiektuaren xedea da N-121-A errepedeko 51+000 kilometro puntuan dagoen bidegurutzera aldatzea, eta egungo biribilgune zatituaren ordean erdi lotune bat jartzea da, ibilbideen gurutzaketa maila desberdinetan egin dadin. Horretarako, NA-1210 errepede jarraipena emanen zaio N-121-Aren azpitik, egitura berri baten bidez. Proiek-

tua behin behineko onetsi eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jakinarazi du Gobernuak. Proiektua jendaurrean egonen da, bai proiektuaren eduki teknikoari dagokionez, bai lurra okupatu beharri dagokionez, desjabetzearen ondorioetarako. Epe horretan, ohar edo alegazioak egin ahalko dira, idatziz. Interesdunek eskura dute proiektua Lurralde Kohe-siorako Departamentuko Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren web-orrian eta herriko etxean.

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sunbilla • Tel: 948 450 862

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
IBILGAILU ELEKTRIKOAK
DOMOTIKA
EGUTZI PANELAK
Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Besta ttikiak hilaren 20an eta 21ean ospatuko dituzte

Gaszte Burrunbak egitarau oparoa prestatu du udalaren eta hainbat ostaturen laguntzarekin

OIER ZULAIKA

Besta giroan murgilduko da herria irailaren 20an eta 21ean. Gaszte Burrunbak besta ttikiak antolatu ditu udalaren eta Ttiti, Irrintzi, Ameztia, Cafe, Xar-mant, Maylin eta Shanti ostatu- en laguntzarekin.

Bestak ortziralean hasiko dira. 18:00etan haurrentzako txokolate jatea eta aurpegi margotzea egingen dituzte Santa Luzia plazan. 20:00etan txupinazoa botako dute eta herriari itzulua egingen diote Tukutuku txarangarekin batera. 22:00etan zezensuzkoa

izanen da Bear Zanan eta 23:30etik aitzinera, Zutik eta Oier Mendizabal DJa izanen dira.

Larunbatean 11:00etan erraldioiek eta gaitariak karrikabuel- ta egingen dute. 12:30ean hau- rren dantza emanaldia izanen da Santa Luzia plazan eta 14:00etan zikiro jatea egingen dute. 17:15ean Zutik elektro- txaranga ariko da ostatuz os- tatu, eta 18:00etan haurren- tzako zirku tailerra izanen da. 20:00etan Chuchin Ibañez ariko da eta gauerditik aitzin- era Gabezin eta DJ Ventura.



Errekako eta Loyolako jokalariek partida ondotik. UTZITAKOIA

Superkopako txapeldunorde izan da Errekako gizonezkoen taldea

TTIPI-TTAPA

Joan den denboraldian kopa- ko txapeldun izan zen Erre- kako gizonezkoen eskubaloi taldea. Ligan, berriz, Loyola taldea. Hain zuzen, ligako eta kopako txapeldunak aurrez aurre izan ziren Iruñeko San Ignacio ikastetxeko kiroldegian irailaren 7an. Denboraldiko

lehen titulua izan zuten jokoan, Nafarroako Superkopa eta Errekak partida bikaina joka- tu baldin bazuen ere, eta azken minutuak bitarte berdindu, 30-25 galdu zuen kategoria bat goitiago dagoen taldearen kontra.

Koparekin hasiak dira, eta aitzinerago hasiko dira ligan.

Hainbat moldalaketa egin dituzte herrian azken hilabeteetan

OIER ZULAIKA

Uda sasoi a aprobetxatuta, hainbat konponketa eta ber- rikuntza lan egin ditu udalak herrian. Alde batetik, esko- lako komunak berritzeko aprobetxatu dute haurren opor sasoi. Horrez gain Ameztia etorbidea zoladura

eta tapak berri dituzte, eta erreka bazterreko baranda garbitu dute. Egurrezko zu- bian ere hainbat lan egin asmo dituzte. Udan garbitu egin dute zubia, eta hurrengo pau- sua gaizki dauden egurren konponketa eta zubia mar- gotzea izanen dira.



Lekualdatutako zaborrontziak.

Bertzalde, lau aparkaleku egokitu dituzte 20 minutuz aparkatzeko, Amezti inguruan aparkaleku berriak ezarri di- tuzte, zaborren edukiontzia- k goiko aparkalekura lekual- datu dituzte eta hainbat ur ihes moldatu dituzte.

Horrez gain, aitzinera segi- tzen dute osasun zentro zaha- rra egokitu eta lanbide zerbi- tzuko bulego berria egiteko lanek.

THAT'S ENGLISH!

- ✓ Aurrez aurreko nahiz online tutoretzak.
- ✓ Oinarrizko mailatik (A2) maila aurreratura (C1).
- ✓ Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulu ofiziala.
- ✓ Ikasmaterialak: ikasliburuak, e-learning plataforma eta aplikazioa barne.



Matrikula zaituz
thatenglish.com-en

URRUTIKO INGELESEKO IKASTARO OFIZIALA
200€ + tasak

Doneztebeko Mendaur Ikastetxean - 948 45 60 05

MATRIKULAZIOA: Urriaren 31ra arte





Iturengo Joaldunak eta hartza, Zarauzko malekoian, Euskal Jaiaren mendeurrenean. UTZITAKOA

Joaldunen Eguna ospatuko dute irailaren 21ean

Joaldunak eta trikitilariak baserriz baseri ibiliko dira eta herrira bilduta, herri kirolak, bertsolariak, bazkaria... izanen dituzte

ARKAITZ MINDEGIA

Udari agurra emateko, aurten ere prest dute Joaldunen Eguna, Ibintza Kultur Taldeak, Joaldunen Elkarteak eta Inauterietako komisioak antolatutako ohiko egitarau ederrarekin. Beti bezala, larunbat goizean zehar joaldunek eta trikitilariak beraien ibibidea eginen dute baserriz baseri eta herrian. 13:30ean herri kirolak izanen dira, berriki Nafarroako Herriz Herri txapelketan parte hartu duten Iruritarren eta Arraiozen arteko proba konbinatua. Ondotik, Jexux Mari Irazu eta Aitor

Mendiluze bertsolariak ariko dira eta bi bertsolari hauek alaituko dute gero, 15:00etan plazan hasiko den herri bazkaria ere. Ohitura mantenduz, Zubillaga cateringak eskainiko duen bazkarirako txartelak salgai zeuden Herriko Ostatuan irailaren 16ra arte, 45 eurotan. Oraindik orain eskura daitez-

JEXUX MARI IRAZU ETA AITOR MENDILUZE ARIKO DIRA BERTSOTAN

ke, 5 euro gehiago ordainduta, baina egunean berean ez da txartelik salduko. Bazkal ondotik, dantzaldia izanen dute Frantxiskurekin. Antolatzailerak ohartarazi dutenez, antolakuntza lanetan (karpa jarri eta kendu, mahaiak eta bankuak jaitsi...) herritarren laguntza eskertuko dute.

Zarautzeko Euskal Jaiaren mendeurrenean

Aitzineko zenbakian aipatu bezala, Iturengo joaldunak Zarautzeko Euskal Jaiaren joareak jotzen ibili ziren irailaren 9an. Urtero hutsik ez dute egin kostaldeko jairik garrantzitsuenean. Hala ere, aurtengoa berezia izan da, 100 urte egiten baitzuen Zarauzko Euskal Jaiak eta mendeurrena behar bezala ospatu zuten. Berezia izanagatik, herriko joaldun koadrila elkartu eta denak elkarrekin goiz goizetik alaitu zituzten hondartza ondoko malekoia, baita gainerako kaleak ere.

Herriko bertsolariak hasiak dira Bardoak txapelketan

Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa abian da. 13 talde eta ia 100 parte hartzaile ariko dira. 13 talde horien artean herriko bertsolariak ditugu. Gorosterrazu anaiak Malerreka ez da Baztan taldean ariko dira. Lehen fasea Sunbillan abiatu zuten irailaren 13an Ulibeltzak elkartean, Pikutara goaz taldearen aurka eta Atarrabian aritzekoak dira irailaren 27an. Alazne Untxalo, berriz, Baztanzopak taldean aritzekoak da. Irailaren 27an eta 28an izanen ditu saioak Erronkarin eta Erratzun.

Hiru urteko zazpi ikasle hasi dira Pulunpa eskolan

Gure herriko eskolan ere, Pulunpan, gainerako eskoletan bezala abiatu dute kurtso berria. Ikasleak irailaren 6an hasi baldin baziren ere, irakasleak irailaren 1erako gelako eta lantxoak prestatzen hasiak ziren. Aurtengoan irakasleetan aurpegi berriak ditugu eta, nola ez, hiru urteko zazpi ikasle berri. Zazpi txapelkun berriak gogotsu hasi dira, beti bezala batzuk besteak baino hobeki, baina denak gustura etapa berri honetan. Eskolarekin batera, jantoki zerbitzua ere martxan dago.

ORBELA
SENDERSMOIA ATERPETAIA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

DESINBERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK · HEGAZTIEN KONTROLA
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

MÁRMOLES AMEZTI
Desde 1994
SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU
info@marmolesamezti.com · www.marmolesamezti.com
Iruñea Irun errepidea, z/g.
ORONÓZ-MUGAIRI
T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295



Kaitin Allenderen bakarrizketek eta bertsoek osatzen dute ikuskizuna. LANKU

'Kilimaterioa' emanaldia irailaren 28an estalpean

Kaitin Allenderen bakarrizketak eta Irati Anda eta Nerea Elustondoren bertsoak entzungai izanen dira

FERMIN ETXEKOLONEA

Kilimaterioa emanaldia eskainiko dute irailaren 28an, larunbatean 19:00etan hasita Zubietako estalpean. Zubietako Udalak, Lankuren eskutik, antolatu duen emanaldian Kaitin Allenderen bakarrizketak eta Irati Anda eta Nerea Elustondo bertsolariaren bertsoak aditzeko aukera izanen da.

Kaitin Allendek sortutako *Klimaxetik klimateriora eta buelta* (Komendialdia jaialdiko txapelketako irabazlea) bakarrizketatik sortu da *Kilimaterioa*.

Kilimaterioa

Zer gertatzen da emakumearen bizitzan klimaterioan sartu eta menopausia ate joka dagoenean? Nola sentitzen gara? Alboan duguna akabatzeko moduan gaude. Suminkortasunez beteta abanikoen erreginak bilakatzen gara. Eraldaketa prozesu honek bestelakoak ere ematen dizkigu. Kilimaterioak klimaxera iristeko autopista bilatzen ari denean klimaterioarekin topo egiten duen emakumearen ibilerak kontatuko ditu, bakarrizketa eta bertsoak uztartzuz elkarriketara bidea egiteko.

Herriko Ostaturia errentan hartzeko proposamenak urriaren 4ra arte

Zubietako herriko ostaturia errentan emateko deialdia egin du Zubietako Udalak. Taberna, jatetxea eta logelak kudeatu beharko ditu maizter berriak. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 4ra arte zabalik dago. Lan egunetan 08:00etatik 11:00etara aurkez-

daitezke proposamenak herriko etxean bertan, 948 45 01 61 telefonora deituz edo www.zubieta.eus webgunearen bidez. Urte hasieran ere egin zuen deialdia udalak eta azken maizterrek martxoaren 23an inaguratu zuten herriko ostaturia.



Ikastaroan parte hartu zutenak, Edorta Salvador okinarekin. UTZITAKOA

Ogiak egiteko ikastaro arrakastatsua burutu dute Edorta Salvadorrekin

Hamar lagunek parte hartu zuten abuztuaren 31n Edorta Salvadorrekin, ogi bereziak egiten ikasteko tailerlean. Zubietako udalak antolatutako ikastaroa estalpean egin zuten eta Basque Culinary Center ikastetxeko okinarekin eskutik, ogi gaziak eta gozoak, haziekin, barazkiekin... egin zituzten.



Ogi goxoak egin zituzten ikastaroan.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

«Egindako esfortzuaren emaitza izan da saria eta kontent nago»

OIHAN IRIARTE JAUREGI NAFARROAKO VOLKSWAGENEN APRENDIZ HOBERENA

Volkswagenen akademian ibili da 20 urteko donamariarra, eta ez hori bakarrik, aprendiz hoberenaren saria ere lortu du. Esperientzia aberasgarria izan dela kontatu du

G. PIKABEA DONAMARIA

Ttikitatik argi izan omen du bere pasioa mekanika izan dela, eta horri tiraka, bidea egiten ari da Oihan Iriarte Jauregi (Donamaria, 2003). Berriki Nafarroako Volkswagenen Aprendiz Hoberenaren Saria eman diote. «Ustekabea», baina aldi berean «kontent» hartu du saria, eta ikasten eta prestatzen segitu nahi duela azpimarratu du.

Ttikitatik mekanikaren bueltan... Nire pasioa beti mekanikaren mundua izan da. Ttikitatik motorren bueltan ibilia naiz, motorzahar batzuk hartu eta batean gauza bat hautsia zela eta bertzean bertzea, horrela ibiltzen ginen. Geroztik berdin segitu dut. Ikasketetan ere lerro hori segitzen saiatu naiz, eta kontent nago hartutako bidearekin.

Mekanizazioa eta Mekatronika Industrialak zikloak ikasi dituzu...

Lehenbizi Elizondoko Lanbide Eskolan mekanizazioa ikasi nuen, erdi mailako zikloa, eta ondotik, Berako Toki Ona institutura pasatu nintzen, Mekatronika Industrialak goi mailako zikloa ikastera. Garbi nuen mekanikako mantentze lanetan akitu nahi nuela, eta ataklehenbizi mekanizazio ikastea egitea aholkatu zidan, bertzearen osagarri zela. Hala egin nuen. Goi mailakoa eginda ez nuen garbi ikasten segitu edo ez, eta Volkswagenen akademian sartzeko aukera sortu zitzaidan.

Nafarroako Volkswagenen Aprendiz Programan parte hartu duzu. Nolatan?



Oihan Iriarte Jauregi donamariarra Alemanian egindako sari banaketan.

Goi mailakoa eginda, praktikak Volkswagenen Landabengo lantegian egin nituen. Egia erran ez nuen ideiarik ere akademia existitzen zenik, baina lagun batzueri aditu nien. Praktiketako dagoen jendearen artean, azterketa bat egiten dute sei lagun aukeratzeko, eta sei horiek akademiara sartzeko aukera dute. Akademian urte bateko master bat bezala egiten da, graduondo bat, eta Volkswagenen instalazioetan sartzeko prestatzen zaituzte. Azterketa egin eta akademiara sartu nintzen.

Zer moduzko prozesua izan da? Mila kontzeptu eta gauza daude, eta fundamentuarekin ari behar duzu, baina nire kasuan, mundu hori betitik gustatu izan zaidanez, ez zait hain gogorra

egin. Lanetik atera eta nire aldetik ikasten aritzen nintzen.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Teknologia. Harritua gelditu naiz han ikusitakoarekin, ez du deus ikustekorik eskolan edo udan bertze toki batzuetan lanean arituta ikusi dudarekin. Arrunt interesgarria izan da.

Gainera, espedienterik hoberenaren saria lortu duzu. Espero zenuen?

Ez nuen inondik inora espero. Akademian badira lau espezialitate: mekatronika industrialak, txapa eta pintura, automozioa eta ibilgailuaren mekatronika. Praktikak egindakoen artean, azterketa eginda, espezialitate bakoitzetik sei hartzen dituzte, eta 24 horien artean notarik hoberena lortzen duenari saria ematen diote. Ez nintzen hel-

buru horrekin joan; ahalik eta gehien ikasten eta ahalik eta hobekien lan egiten saiatu nintzen, eta sariak ustekabean harrapatu ninduen.

Zer erran nahi du sariak zuretzeko? Urte hauetan egindako esfortzuaren eta ikasitako guziaren emaitza izan da, eta harrotasun handi sentitzen dut.

Sariak atek irekiko ote dizkizu? Ez dakit. Oraingoan, suertea izan dut eta Volkswagenen Landabengo lantegian zuzenean mantentze lanetan hartu naut lanean. Normalean, mantentze lanetan hasi aitzinetik, produktora bideratzen zaituzte, eta gero batetik bertze mugitu. Baina nik suertea izan dut. Gerora, zer gertatuko den pentsatzen ez naiz hasi.

Saria Alemanian hartu zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Ekainean, aste baterako Alemaniara bidali gintuzten, eta arrunt esperientzia polita izan zen. Mundu guziko ikasleak elkartu ginen eta hainbat jarduera egin genituen: Berlin bisitatu, Wolfsburgeko fabrika zentrala ezagutu, museoak... Dena Volkswagenen bueltan. Ez dut inoiz atzenduko.

Ez dute denek halako programa batean parte hartzeko aukera. Zer gomendio emanen zenuke?

Egiatan gustatzen zaionari eta ikasten segitu nahi duenari sartzen saiatzeko erranen nioke. Dagoeneko bati baino gehiagori erran diot saiatzeko, bada-kidalako gustatuko zaiela eta ikasteko aukera ona dela.

Etorrizunera zer asmo dituzu?

Ez naiz luzera begira jarri. Mantentze lanetan segitu nahi dut, eta aukera berriak ateratzen badira, ongi etorriak izanen dira. Baina, oraingoan, akademian ikasitako guzia barneratze denbora beharko dut.

Baduzu ikasten segitzeko asmorik?

Beti izan dut goi mailako bertze ziklo bat edo ingeniarietza mekanikoren bat egiteko ideia buruan. Baina Volkswagenen bertan formazio aunitz daude eta horiek probestu nahi ditut. Ez dut geldirik egoteko asmorik, prestatzen segitu nahi dut.



Natalia Rekarte Donamariako alkatea eta Eugenio Tamayo antolatzailea. ADC

Dorrealdia tarteko Kukai dantza taldea Donamarian

Dorrealdia festibalaren harira, bi saio antolatu dituzte eta bildutakoa Kurdistango Mirzo Music Fundazioaren alde izanen da

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Hasitako biderei segituz, aurretik ere Dorrealdia elkartasun festibala antolatu dute. Lau garren edizioa da eta bi hitzordu izanen dira: lehenbizikoa, irailaren 14an egitekoa zuten eta bigarrena 28an izanen da.

Irailaren 14an, Jauregia dorretxean Xabier Zeberio *Pause* kontzertua egitekoa zuen. Irailaren 28an, larunbata, 19:00etan Donamariako pilotalekuan, Kukai dantza taldearen *Jazoerak-Sucesos* ikuskizuna ikusgai izanen da. Sarrerak 15 euro balio du, baina bi emanaldietarako sa-

rerak hartuak izatekotan, 20 euro. Sarrerak online eros daitezke www.papeleriatamayo.com webgunean.

Elkartasuna

Aitzinekoetan bezala, elkartasun jaialdia da. Bi emanaldietan bildutakoa Kurdistanen ISISek bahitutako neska laguntzera bideratuko dute. Bortz urtez torturatuak, bortxatuak eta sexu esklabo erabiliak izan ziren. Egun errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira eta musikaren eta bertze artearen bidez, beraien bizitzak berregiten ari dira.

Animazio eta bideo joko artisten topaketa irailaren 19tik 22ra

TTIPI-TTAPA

Truxa Muxa izenarekin, animazioa eta bideo jokoak egiten dituzten artisten eta zaleen topagune bihurtuko da ortzegunetik igandera, irailaren 19tik 22ra, Malerreka. Zehazki, Donezteben, Elgorriagan eta Iturenen egingen dute.

Formakuntzarako, ezagutzen elkartrakerako eta profesionalak sarean lan egiteko baliatu nahi dute Truxa Muxa eta animazioaren eta bideo jokoaren industriako maisu klaseak, ikastaroak eta jarduerak izanen dituzte, Caro Waro,

Paco Martinez edo Patri Romanov bezalako artisten eskutik. Urban Sketching eta Light Painting tailerrak ere egingen dituzte. Topagunea bertze profesionaleri ere irekia da, hala nola, diseinatzaileak, gidoigileak, zuzendariak edo musikariak.

Bertako kultura eta natura ezagutzeko jarduerak ere eginge dituzte Donezteben eta Iturenen; eta hilaren 21ean, larunbatean, Elgorriagako Bainuetxean networking afaria eta gaudia egingen dutela iragarri dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oiztarrek ere bestak ospatu dituzte

Irail hasierako egunak seinatuak izaten dira Oizen, herriko bestak izaten baitituzte. Aurten ere ez dute hutsik egin. Gazteen herri kirol saioaren ondotik –argazkian herri kirolean aritu zirenak–, beraiek izan ziren txupinazoa bota zutenak, eta hiru egunez, besta giroan ibili ziren.

Energia komunitateei buruzko aholkularitza zerbitzuaz bilera Donezteben

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur elkartearen eta Nasuinsaren arteko lankidetzaren bitartez, Nafarroako Mendialdean energia komunitateei buruzko aholkularitza zerbitzua emateko teknikaria hasi da lanean: Leire Ros. Berarekin harremanetan jartzeko

telefonoa 696 15 30 20 da, eta helbide elektronikoa lrossora@nasuwinsa.es.

Helburua «informatzea, sentsibilizatzea eta aholkularitza tekniko, juridikoa eta finantzarioa ematea» izanen da, «Nafarroan energia komunitateak abian jartzeko». Hala, Ce-

dernak esplikatu duenez, Nafarroako Energia Eraldaketarako Bulegoetako (EEB) talde tekniko osatua gelditu da.

Teknikaria Cederna Garalurrek Antsoainen duen bulegoan ariko da lanean, baina sare eta emanen dituen zerbitzuak aurkezteko bi hitzaldi informatibo antolatu dituzte. Hain zuzen, horietako bat Donezteben izanen da: irailaren 25ean, 11:30ean, Herrigunean.



Leire Ros teknikaria. CEDERNA GARALUR

Herri ttikietan ere euskara ikastaroak antolatu nahi dituzte

Udalekin elkarlanean, Saldiasen, Beintza-Labaienen, Eratsunen edo Ezkurran euskara ikastaroak eskaini nahi ditu euskaltegiak

TTIPI-TTAPA

Udalekin elkarlanean, Malerrekako euskaltegiak euskara ikastaroak martxan paratu nahi ditu ikasturte honetan Saldiasen, Beintza-Labaienen, Eratsunen edo Ezkurran.

Apuntatu nahi dutenek irailaren 30era bitarte eman behar dute izena: 948 45 15 55 zenbakira deituta edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera mezua bidalita. Izena ematen duten pertsona kopuruaren arabera erabakiko dute klaseak zein herritan emanen dituzten. Taldea ateratzeko



Irailaren 30era arte apuntatzen ahal da.

gutxieneko kopuru batek izena eman behar du eta bat egin behar dute mailan eta klasea emateko aukeratzen dituzten egunetan eta orduetan.



Hamaika erakusketaren inaugurazioan hartutako irudia. UTZITAKO ARGAZKIA

Makroproiektu eolikoaren kalteak agerian utzi nahi izan dituzte Eratsunen

TTIPI-TTAPA ERATSUN

Hamaika izeneko erakusketa artistiko eta antieolikoa ikusgai jarri zuten abuztuaren 30etik irailaren 1era Eratsunen.

Abuztuaren 30eko arratsaldean inauguratu zuten erakusketa. Malerreka Bizirik plataformako kide batek hartu zuen hitza eta bildutakoiei

Malerrekako eta Bortzirietako mendietan eraiki nahi dituzten makroproiektu eolikoaren kalteen berri eman zien. Hainbat datu eta irudi jarri zituen mahai gainean, «industrialde eolikoak eta fotovoltaiakoak ez direla ez garbiak, ez berdeak, ez jasangarriak erakutsiz». Ondoko egunetan ere ikusgai izan zen.



NAGORE ESKUDERO

Emakumeak omendu dituzte Eratsunen

Abuztuaren 31n Iruñarri Eguna ospatu zituzten Eratsunen. Besteak beste, Iruñarrira oinez joan ziren, eta horrez gain, uztailleko paella jatean bildutako dirua -3.000 euro- Adacen Burmuinean Kalte Hartutako Nafarroako Elkarteari eman zioten. 70 urtetik gorako emakumeak ere omendu zituzten.



NAGORE ESKUDERO

Giro ederra Eratsungo pestetan

Nagore Eskudero alkateak botatako txupinazoarekin hasi ziren lau eguneko pestak Eratsunen. Hortik aurrera, musika, otorduak, aizkora eta arpana apustuak, frontenis txapelketa, mus txapelketa, dantzariak, tortilla lehiaketa, pilota partidak... Denetarik izan zuten. Aspertzeko tarterik gabe ibili ziren.



Herri bazkaria larunbatean izanen dute aurten ere plazan. JAIONE ARIZTEGI



Ortzeguneko suziria baino lehen haur jokoak izanen dituzte.

San Migel bestak irailaren 26tik 29ra prestatu dituzte

Egun handian Doneztebe abesbatzaren eta dantzarien emanaldiak eta aizkora erakustaldia izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Berriz ere San Migel bestak gogotsu ospatuko dituzte Urrozen irailaren 26tik 29ra. Beti bezala, egitarau zabala izanen dute, ortzegun arratsaldeko, haur joko, txupinazo eta kalejirarekin abiatu eta hondar eguneko abesbatza, dantza saio, aizkolarien erakustaldia eta tortilla eta postre lehiaketara bitarte.

Irailak 26, ortzeguna

18:00etan haur jokoak. 19:00etan suziria eta kalejira herriko trikitaliarekin. 19:30ean herri kirolak. 21:00etan zopak

herriko ostatuan. 00:00etan dantzaldia Modesto akordeoilariarekin.

Irailak 27, ortziralea Haurren Eguna

Goize eta arratsaldez puzgarriak. 16:30ean mus txapelketaren hasiera. 18:00etan haurren-tzako merienda. 19:00etan emakumeen arteko pilota partida. 20:00etan DJ J&J. 21:30ean paella afaria herriko frontoian. 00:00etan DJ J&J.

Irailak 28, larunbata

11:00etan mus txapelketaren finala. 14:00etan herri bazka-



Gazteak joan den urtean egin zuten herri kirol saioaren ondotik.

ria Xalbador eta Hidoi abeslariarekin. Ondotik, musika Joxe Angel akordeoilariarekin. 21:00etan xingar eta txistor jatea. 23:00etan musika DJ Endara taldearekin.

Irailak 29, igandea San Migel eguna

11:00etan Meza Nagusia. 12:00etan Doneztebeko abesbatza. 12:30ean Doneztebeko dantzariak. 18:00etan aizkolaria: Iker Vicente eta Joxean

Etxeberria, Larrañaga eta Saralegiren kontra. Ondotik, Eneko Saralegiren erakustaldia. 19:30ean tortilla eta postre lehiaketa. Ondotik, beste amaiera emanen zaie.

TORTILLA ETA POSTRE LEHIAKETA IZANEN DUTE HONDAR EGUNEAN

ONGI PASA BESTAK!

Joseba Babaze
ITURGINTZA

Leurtzako-etorbidea, 29. URROZ • T. 678 99 40 00

PINTURA eta DEKORAZIOA
BIDASOA

Kalitatea, azkartasuna eta bermea
Lan mota guztiak egiten ditugu

Tel.: 619 88 97 23 • Malerreka, Baztan eta Bortzirak

Urrozko Udalak

besta zoriontsuak opa dizkizue urroztar eta bisitari guztiak

Ikastaro gehiago iragarri ditu Arkupeak Elkarteak

Pintura klaseak izanen dira Amaiurren, Beran eta Elizondon, eta joskintza ikastaroa Donezteben

TTIPI-TTAPA

Ikasturte honetan ere hainbat ikastaroa izanen dira bazkideentzat, eta azken aldizkarian aipatutakoez gain, bertze batzuk ere iragarri ditu elkarteak. Amaiurren pintura klaseak izanen dituzte astelehenetan 19:00etatik 20:30era. Beran ere pintura izanen dute ortziraletan 15:00etatik 16:30era. Elizondon, aldiz, pintura astelehenetan 16:30etik 18:30era izanen da, eta asteartetan 17:30etik 19:30era. Donezteben joskintza ikastaroa izanen da asteartetan 15:30etik 17:30era.

'Herri zahar, biztanle aktibo'

Bizimodu aktiboago eta osasungarriagoa lortu nahi duten 65 urtetik goitiko herritarrentzat *Herri zahar, biztanle aktibo* programa egingen dute Arizkongo Mugarkin, eta elkarteko bazkideek deskontuak izanen dituzte.

Astean bi indar saio eta talde saio bat izanen dira eta programa pertsonalizatua izanen da. Bazkideek %5eko deskontua izanen dute hilabeteko tarifa (39 euro) eta baita fisioterapia kontsultan ere (45 euro).



Irteerako parte hartzaileak Oianume sagardotegian bazkaltzen. UTZITAKOIA

222 lagun elkartu dira elkarteak urtero Arantzazura egiten duen irteeran

TTIPI-TTAPA

Urteroko irteera garrantzitsuenetako bat izaten da Arkupeak Elkarteak Arantzazura santutegira egiten duena. Aurtengo irteera abuztuaren 31n egin zuten, eta 222 lagun joan ziren. 11:00etarako ailegatu ziren bertara, eta meza-tara joan aitzinetik, eguraldia

lagun, bertako txokoak ikusteko aukera izan zuten, baita bertan paratutako postuetan hainbat erosketa egiteko ere. Meza ondotik, Urrietako Oianume sagardotegian bazkaldu zuten, eta bazkaldoan, Jose Angelen doinuekin dantzan aritu ziren. Egun ederra pasa zuten parte hartzaile denek.



Doneztebeko aurkezpenean parte hartu duten erakundeetako ordezkariak.

'Landa Adimena' proiektua aurkeztu dute Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak, Cederna Garalur Elkarteak, EDER Partzuergoak eta Erdialdeko Partzuergoak Tokiko Ekintza Taldeekin lankidetzan, *Landa Adimena - Lankidetzan diharduten eta irakasten duten lurraldeak* izeneko lankidetzaproiektua aurkeztu dute.

Ekimen berriak etxebizitza, gazteria eta landa agenda ditu ardatz nagusi, eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko FEADER funtsek finantzatzen dute 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren bidez. Proiektuak 509.279 euroko aurrekontua du, eta 2025eko ekainean akituko da.

Alderdi berritzaileak

Donezteben aurkeztu zuten proiektua irailaren 3an, eta bertan izan ziren Nafarroako Gobernuko zein ekimena sustatzen duten erakundeetako ordezkariak. Proiektuaren hiru alderdi berri edo berritzaile nabarmendu zituen Jose Maria Aierdi Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak: «Landa garapena baldintzatzen duten hiru zutabe lantzen ditu programak: etxebizitza, gazteak eta Europako agenda».

Arantxa Arregi, Doneztebeko alkate eta Cederna Garalurreko presidentea aurkezpenean nabarmendu zuenez, «gaur egun, gure gizarteak hainbat erronkari aurre egin behar die: etxebizitza eskuratzea, klima aldaketara egokitzea, gazteen enplegua edota adinekoen arreta. Hiri eta landa-inguruneen erronka komunak dira, baina kausa eta ondorio espezifikoak dituzte landa-ingurune bakoitzean, hirieta-koen ezberdinak diren gainera. Gure lurralde ezberdin eta anitzetatik eskatzen duguna da, administrazio publikoek kontuan har ditzatela arazo espezifiko horiek eta egokitu ditzatela politikak haietara».

Ahotsa emateko

Landa Adimena landa-inguruneen bizilagunei ahotsa emanen die Nafarroako gizarte osoari beren eguneroko errealitatea erakutsi diezaizoten, aurreiritziak eta topikoak aldera batera utziz. Landa inguruneen arazoak edo gabeziak ezkutatu gabe, proiektuak landa-eremuak dituen indarguneak eta aukerak erakutsi nahi ditu, Nafarroako gizarte kontzientziazatuz landa lurraldeen berezitasunetara egokitutako politikak eta zerbitzuak garatu beharraz.



Abuztuaren 26an Narbarten egindako elkarretaratzean hartutako irudia.

Sexu erasoaren harira, hautetsiak dimisioa eman du

Narbarteko sexu erasoarekin zerikusia duen hautetsiaren «berehalako dimisioa» eskatua zuen udalak

TTIPI-TTAPA NARBARTE

Bertizaranako Udalaren kargua uzteko eskariari erantzun dio hautetsiak. Udalak abuztu hondarrean eskatu zuen Narbarteko bestetan gertatutako «sexu erasoarekin zerikusia duen hautetsiaren berehalako dimisioa». Eta Andres Etxenike alkateak TTIPI-TTAPARI baieztatu dionez, halaxe egin du; «zinegotziak dimisioa aurkeztu du».

Adierazpen instituzionala

Horrekin batera, adierazpen instituzionala ere onartu du udalak, «beti eraso matxista guzien aurkako gaitzespen erabatekoa erakutsi duela» nabarmenduz.

Abuztuaren 23ko goizaldean gertatutako sexu erasoaren harira, bere «gaitzespena eta kondena» erakutsi ditu udalak adierazpenean, «edozein pertsonaren aurkako edozein sexu indarkeria dela eta». Eta bide batez, bere «babes osoa» adierazi dio biktimari: «Karrika, gaua, eguna, pertsona guzien gozamenarako eta dibertsiorako dira, eta deusekez du justifikatzen pertsonak beren askatasuna eta segurtasuna galtzea».

Hala, «esparru guzietan genero indarkeriarekin akitzeko neurriak bultzatzen segitzeko» konpromisoa agertu du: «sexualean, bestetan, politikoan, legegilean, ekonomikoan...». Sentsibilizazio eta prebentzio neurriak eta berdintasun politikak hartzea ere adostu du eta «pertsonak jasaten duten edozein indarkeria motaren kontra, guziek segurtasunez eta askatasunez bizitzeko eskubidea» aldarrikatu du.

Sexu erasoaren kontrako protokolo bat adostea ere erabaki du udalak, Malerrekako Mankomunitatearekin eta Narbarteko, Legasako eta Oierregiko kontzejuekin batera.

Mankomunitatearen gaitzespena

Aitzinetik Narbarteko kontzejuek eta Malerrika eta Bertizaranako mugimendu feministak egin bezala, Malerrekako Mankomunitateak ere Narbarteko bestetan izandako sexu eraso salatu du. Aldi berean, «erasoa jasan zuenari gure babesa eta elkartasuna» helarazi nahi izan dizkiote, eta «zerbaitetan lagundu ahal izatekotan, gure prestutasuna adierazi».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Besta parte hartzaileak Legasan

Dianak, buruhandiak eta erraldoiak, dantzariak, pilota partidak, herritarren arteko lehia, aurpegi margotzea eta jokoak, zirku tailerrak, arrolak eta zuhaitzak, zezensuzkoa... Ekitaldi ugari izan zituzten Legasako bestetan. Hala ere, «jendearen parte hartze eta prestutasun aparta» izan dira nabarmentzekoak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Inoiz baino jende gehiago Leokadian

Irailaren 7an eta 8an Leokadia ermitaren ingurua legasarren bestarako topagune bihurtu zen. Gainera, inoiz baino jende gehiago ibili zen. Konparazio batera, larunbateko afarian, 90 bat lagun elkartu ziren, eta biharamuneko bazkarian, berriz, 150 bat lagun. Otorduak, musika eta dantza, giro ederra izan zuten.

Herri Aretoko kultur eskaintza berriz ere martxan

Hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteburuetan zinema izanen da eta bigarreanean antzerkia

TTIPI-TTAPA

Udako etenaldiaren ondok, hastear da mugimendua Leitzako Herri Aretoran. Urrian hasiko dute ofizialki denboraldia, baina azken urteetan bezalaxe, aurretik saio berezi bat antolatu dute herriko adinekoekin. Aurtengoan, ez dira bakarrik izanen; herriko haurrek ere parte hartuko dute eta belaunaldien arteko topaketak egingen dituzte. Irailaren 30ean, 10:30ean, *104. Haurra antzezlana* ikusteko elkartuko dira Erleta eskolako ikasleak, Arkupeak Elkarteko kideak eta Jubilotekakoak. Belaunaldi desberdinen arteko zubirik sortzea da asmoa eta elkarrekin emanaldiaz gozatu ondok, solasaldia ere izanen dute. Yarleku Teatro konpainiako kideak igoko dira taula gainera eta gida didaktiko baten



Belaunaldiak elkartuko ditu antzezlanak.

lanketa ere egingen dute elkarrekin.

Zinema eskaintza

Hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteburuan zinemaz gozatzeko aukera izanen da. Egun bakoitzean bi pelikula proiektatuko dituzte, 17:00etan eta 19:30ean. Hala, larunbatean zinemara joateko aukerarik izan ez duenak, igandean joateko aukera izanen du. Garrantzitsua da aipatzea,

17:00etako saioak ez direla beti umeentzako saioak izaten. Urrian hasiko da denboraldia eta lehenbiziko asteburuan, *Lagunak erreskatera* filma ikusteko aukera izanen da 17:00etan eta *Bitelchús Bitelchús*, 19:30ean.

Zine bonuak

Zine bonuak ere salgai jarri dituzte; berrogei euro eta erdi ordainduta, bederatziz sarrera lortu daitezke. Bi bonu mota daude salgai, 17:00etako pelikuletarako bat eta 19:30etarako beste bat. Zine bonuak 2024ko irailaren 16tik 2025eko ilbeltzaren 7ra arte egonen dira salgai. Bonuak izendunak dira, baina beste pertsona batzuekin partekatu daitezke. Bonua kontsumitzeko epea 2024ko urriaren 1etik 2025ko maiatzaren 19ra artekoa da eta erabiltzaile bakoitzak nahi adina bonu eros ditzake.

Antzerkia

Hilabeteko bigarren asteburuan, berriz, antzerkiaren gozatzeko aukera izanen da. Urriaren 13an, Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Asier Hormaza aktoreak igoko dira oholtzara *Artea* antzezlana eskaintzera.

Eskolako jangela zerbitzua zazpi euro eta erdian eskainiko dute

TTIPI-TTAPA

Ikasturtea hastear zela, zalaparta sortu zen eskolako jangela zerbitzuaren bueltan. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi zuen, Ausolanen esku geldituko zela zerbitzua eta zaintza gehitzean, 11'5 eta 13'50 euro artean igoko zela eguneko menuaren prezioa. Hori ez zela bideragarria salatu zuen guraso elkarteak eta, handik gutxira, Hezkuntza Departamentuak zazpi euro eta erdira mugatu zuen azken prezioa. Azaldu dutenez, jangelaren afera «oso gorabeheratsua izan da azken urteetan. Gainera, herri batetik bestera eta urtetik urtera prezioan alde izugarria dago eta zerbitzuaren kalitatea ere gutxitu da». Orain arte, ezer gutxi zegoen beraien esku, baina Foru Dekretu berri bat onartu dute eta horrek, 2025-2026 ikasturtetik aurrera, eskola komarkaletan jangelak tokiko erakunde bidez kudeatzea ahalbidetuko du. Aukera hori baliatu nahi dute: «herrian bertan kudeatu eta zaintza erdigunean jarriko lukeen jangela eredu bat martxan jartzeko». Horretarako, lantalde bat sortu dute: «eskolako zuzendaritzako kideak, guraso elkarteak, udalekoak, Zaindu Leitzaldekoak eta jangelako langileak elkartu gara». Datozen hilabeteetan alternatiba bat landu nahi dute: «Zaindu Leitzaldeak jangela kudeatzeko aukera jarri dugu mahai gainean, irabazi asmorik gabeko proiektua litzateke eta gurasoak bazkide izanen ginatke». Elkarrekin hartuko dituzte hainbat erabaki: «menua, zaintza eredu, zaintzaileen lan baldintzak... oreka bilatzen saiatu behar dugu, proiektu duin bat egiteko». Bideragarria dela ikusiko balitz, jangelaren kudeaketa bere esku uzteko eskatuko lioke Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari.

Artea palestinarren aurkako genozidioa salatzen

Palestinaren aurkako genozidioa salatzen ari dira Leitzan. Irailaren 7an performance bat egin zuten plazan, Israelek eraildako palestinarren irudikatuz. Udaletxean irailaren 22ra arte ikusgai egonen den *Stop Genozidioari!* erakusketaren atariko izan zen.



PABLO FEO

Liburutegia arratsaldetan irekiko dute

Udako ordutegia atzean utzi dute eta aurrerantzean arratsaldean irekiko dute liburutegia: 14:00etatik 20:00etara. Ohiko ordutegira bueltzarekin batera, liburutegian antolatzen dituzten ekimenak ere bueltan datoz. Irakurle taldearen lehenbiziko saioa urriaren 9an izanen da. Talde irekia da eta norbaitek parte hartu nahi badu liburutegitik pasa beharko du. Gainera, astelehenetan, 19:00etatik 20:00etara xakean eta beste jolas batzuetan ibiltzeko aukera izanen da liburutegian.

'Euskaraz, kirolean, plazan!' aritzeko deia irailaren 21ean

Ekitaldi ugari antolatu dituzte eta, tartean, Euskal Herria Mendi Erronka, Union Tuter a taldea eta Xabier Amuriza omenduko dituzte

TTIPI-TTAPA

Euskal Herrian Euskaraz elkar-teak, Gure eskuk eta Gu ere bai! ekimenak, Leitzako Udalaren eta Tximutxe Euskara Elkartearen laguntzarekin antolatu dute hitzordua. Hizkuntza, kirola eta lurraldetasuna oinarri hartuta, *Herri libre bat. Euskaraz, kirolean, plazan!* aritzeko aldarrikapena egin dute.

Bakoitzak bere eremutik, baina denek bat egiten dute helburuarekin: «Euskal Herri euskalduna, librea, kirolaria, osasuntsua eta berdinzalea izatea». Hori lortzeko diote ezinbestekoa dela: «herri libre bat izatea, gure koloreak nazioarteko zein bertako kirol ikuskizun eta lehiaketetan erabiltzeko eskubidea izatea, nazioarteko onarpena lortzea eta ofizialtasuna lortzea». Aldarrikapen horiek guztiak eramanen dituzte irailaren 21ean plazara.

Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira, Gure Eskuk antolatu duen mahainguruarekin. Eguerdian, 12:00etatik aurrera, Leitzako kirolariek karate, gimnasia artistiko, herri kirol eta txintxurrin erakustaldiak eskainiko dituzte.

Omenaldietarako tartea ere izanen da eta Euskal Herria Mendi Erronkak, Union Tuter a kirol taldeak eta Xabier Amurizak jasoko dute aitortza. Omenaldiak bukatutakoan trikipoteoa egingen dute eta arratsaldean, 17:00etatik aurrera, pilota partiduak antolatu dituzte. Pilota jaialdiarekin hasteko, Ados pilota elkar-teko emakumeen partidua izanen da: Iturriagak eta R.L. Mugikak, Barrokal eta Agirre izanen dituzte aurkari. Segidan, Aurrera pilota elkar-teko gizonen txanda izanen da: Bidart eta Ugartemendia, Baleztena eta Alkortaren aurka ariko dira.

Omenduak

Leitzako ordezkari gisa Euskal Herria Mendi Erronkak jasoko du omenaldia. Union Tuter a taldeak, berriz, kirolaren bidez Erriberan euskara hauspotzeko egiten duen lanagatik jasoko du omenaldia. Xabier Amuriza bertsolaria izanen da hirugarren omendua. Euskaingintzan eta nazioingintzan egin duen ekarpena aitortuz. Berak dio, esaterako, «bertsoa, hitzaren kirola» dela.



E. IRAOLA, P. FEO ETA I. ZABALO

Taloak, azoka eta herri kirolak plazara

Barru giro zegoen irailaren 8an, baina talo goxo bat jateko aukera ez zuten galdu nahi izan ehunka herritar zein bisitarik. Talogileen aldamenean, Mendialdeko ekoizleen postuek jantzi zuten plaza. Herri kirolak ere ez zen falta izan, Nerea Arrutik aizkoran eta Gaztelu sega eskolako erakustaldiak borobildu zuten eguna.

Labore ikastaroa eskainiko dute ostegunetan Zaindu Leitzaldeko egoitzan

TTIPI-TTAPA

Jostorratza eta haria fin erabiltzen ikasteko gogoia dutenek, Zaindu Leitzaldeko egoitzan izanen dute aukera. Labore ikastaroa eskainiko dute ostegunetan, 17:00etatik 18:30era. Arantxa Grajirena arituko da irakasle lanetan eta bainika,

gantxilloa, hardangerra... nola egin ikasi edo teknika hobetzeko aukera izanen da. Ikastaroan parte hartzeko, izena ematea beharrezkoa izanen da: Zaindu Leitzaldeko egoitzara joan edo 621 14 33 73 edo 948 61 06 11 telefonora deituta.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- 📍 Kanttonberri, 1 | BERA
- ☎️ T. 948 631 218
- ✉️ joxemi@kateabike.com
- 🌐 www.kateabike.com



Jende ugari bildu zen pasa den urteko enkantean. ARTXIBOA

Uso postuen enkanteak irailaren 21ean eta 28an

Hogeita zazpi postu aterako dituzte enkantera eta hasierako lizitazio prezioak jakinarazi dituzte

ENERITZ IRAOLA

Urtero bezala, iraileko azken bi larunbatetan Urteagako uso paradaren enkantea egingo dute. Udaletxeko batzar aretoan 18:00etan izango da hitzordua. Irailaren 21ean izango da lehenbiziko enkantea eta astebetz seстарako aukera eman ondotik, irailaren 28an izango da bigarrena.

27 postu enkantera

Hogeita zazpi postu aterako dituzte enkantera eta ohikoa denez, Peña, Perratokieta, Goiegi, Uniate, Museo eta Gañar-beko ehiza-parada guztiak

herriko Usoa Ehiztarien Elkarteari esleituko zaizkio zuzenean.

Uso postuen lizitazio-prezioak zehaztu dituzte. Bigarren, hirugarren eta laugarren postuen hasierako prezioa 660 eurokoa izanen da. Lehenengo, bosgarren, hogeita batgarren eta hogeita bigarren postuen lizitazio prezioa 360 eurokoa izanen da eta gainerako paradena 240 eurokoa. Azken urteetako zifrak nabarmen hobetu zituzten pasa den urtean eta behin betiko errematearen ondotik, 18.484 euro bildu zituen Aresoko Udalak, duela bi urte baino 10.382 euro gehiago.

Dantza ikastaroa eskainiko du herrian Oinkari dantza taldeak

ENERITZ IRAOLA

Azkeneko bi urteetan bezalaxe, ikastaroa eskainiko du herrian Oinkari dantza taldeak. Asteazkenetan izango dira klaseak eta izen emateko epea irailaren 12ra arte egon da zabalik. Ordaindu beharreko kuota eta osatuko diren taldeak

izena ematen duten ume kopuruaren arabera izango dira. Pasa den ikasturtean hiru eta hamasei urte arteko 26 haur eta gaztetxo aritu dira euskal dantzak ikasten. Ikasturtean ikasitakoa herriko festetan egindako emanaldian erakutsi zuten.



ENERITZ IRAOLA

333 parte hartzaile mendi martxan

Eguraldi iragarpenak ez ziren bete eta eguzkia alde izan zuten irailaren 1ean. Mendizaleak plazatik atera zirenean zeruan kolore grisa zen nagusi, baina lainoak arindu eta giro eta bista ederraz gozatzeko aukera izan zuten azkenean. 333 lagunek osatu zuten itzulia eta bukaeran paella janzek elkartu ziren denak plazan.

Baserriko tresneria eta argazkiak biltzen ari dira Mendialdeko Azoka Ibiltarirako

ENERITZ IRAOLA

Urriaren 13an egingo du geldialdia herrian Mendialdeko Azoka Ibiltariak. Azken urteetan bezalaxe, Mendialdeko nekazari, ekoizle eta artisauak beraien postuak jarriko dituzte goizetik hasi eta ordu biak aldera arte. Hitzordua boro-biltzeko, erakusketa berezi bat ere antolatu nahi izan dute. Aresoko baserriak gaitzat hartu eta argazki zaharrak, lanabesak, tresnak... jarri nahi dituzte ikusgai. Erakusketa osatu ahal izateko, herritarrei laguntza eskatu nahi diete.



Argazki zaharrak bildu nahi dituzte.

Etxean erakusketarako baliagarria izan daitekeen argazkiren bat, lanabesen bat... baldin badute, udal taldekoekin harremanetan jartzeko eskatu dute.



Areson eskola txikien aldeko manifestazioa egin zuten iaz. E. IRAOLA

Eskolen arteko topaketak herrian irailaren 28an

Goizetik iluntzera arteko festa egun polita antolatzen ari dira guraso elkarteak

TTIPI-TTAPA

Beste urte batez, festa giroan elkartuko dira Leitza, Goizuetan, Arano, Areso eta Ezkurra. *Dantza, salto eta festa* heldu baita topaketa. Aurten Basakabin gora joan beharrik gabe, Leitzaldekoak izanen dira iraileko azkeneko larunbatean herrira etorriko direnak. Irail-

laren 28an, Goizuetan ospatuko dira eskolen arteko topaketak. Hortaz, festa bai, baina lana egitea ere tokatuko zaie aurten eskolako gurasoei.

Topaketen 23. edizioa izanen da aurtengoa eta urtero bezala bost herrietako haur, guraso eta irakasleek elkar ezagutzeko da asmoa eta berdinta-

sunean eta errespetuan oinarritutako harremanak lantzea. Nolabaiteko zubiak sortzea ere bai, denak Leitzako Institutuan elkartu aurretik.

Egun osoko festa

Irailaren 28an, 11:00etan hasiko dira topaketak, bisitariei ongietorria eginez. 11:30ean jolasak egingen dituzte eta, iaz aresoarrek egin bezala, festa gune bakarrera mugatu beharrean, herrian barna ibiliko dira jolasean. 14:00etan mahaiaren bueltan bilduko dira bazkaltzeko. Musikak ere ezin zen falta eta 16:00etan Irumaita txaranga aterako da kalera. Gero, jokoak antolatu dituzte eta indarrak berreskuratzeke arratsaldekoa egingen dute 18:00 aldera. Herriko trikitilariak jotako piezekin dantzan bukatuko dute eguna.

Bazkarirako txartelak Areso, Goizuetako eta Leitzako eskoletan jarriko dituzte salgai datozen egunetan. Hau idazterakoan salneurria oraindik ez zuten itxia. Autobus zerbitzua ere izanen dute Leitza eta Aresotik, gutxieneko kopuruak betetzen badira. Kotxez etortzea erabakitzen dutenei, berriaz, kotxea partekatzeke eskaera egin diete.

Arainbururen irteerak irailaren 28an eta urriaren 5ean

Irailaren 28an, Erroiarri eta Onzubita lotuz, bost ordu eta erdiko itzulia osatzeko proposamena egin dute. Urriaren 5ean, berriz, Arantzara egingen dute ateraldia. Sei orduko itzulia osatzea da asmoa, Arantzako Aterpean bazkaldu eta 18:00etan hartuko dute bueltako autobusa. Irteerara joan nahi dutenek Amaia kafetegian eman behar dute izena urriaren 3a baino lehen. Jakin, 28 lagunentzat dagoela tokia. Autobusa hamar euro ordaindu beharko da eta bazkaria hogeita bost.

Liburutegi ibiltariaren bisita irailaren 27an

Udan goizez egin du Goizuetan eta Aranora joan-etorria Liburutegi Ibiltariak, baina ikasturtea hasita, ohiko ordutegira bueltatuko da. Iraileko azkeneko ostiralean izanen da Goizuetan, 14:30etik 15:30era eta Aranon, 16:00etatik 16:30era.



UTZITAKOIA

Urteroko hitzordua Artikutzan

Abuztuaren 28a egun seinalatua izaten da goizuetarrentzat, San Agustin Eguna ospatzen baitute Artikutzan. Urteroko osagaiak, ongi nahasi: meza, pilota, herri kirolak, jan-edana... eta lagunartean giro ederrean pasa zuten eguna. Ez dakigu joaneko bidea baino laburragoa egin ote zitzaizen itzulerakoa...

Euskara eta kulturartekotasuna lantzeko egitasmoa prest Xalto eskolan

TTIPI-TTAPA

Goizuetako eskolan jatorri anitzeko ikasle ugari dago, azken urteetan familia dezente etorri delako herrira bizitzera. Horrek panorama berri bat ekarri du: hizkuntza, kultura eta jatorri anitzeko herritarrak espazio berean elkarbizitzen aritzea. Egoera hori ongi kudeatu behar da batzuen eta besteen sentimenduak errespetatu, aintzat hartu eta elkarbizitzak sintonia onean aurrera egiteko. Behar horri erantzuteko, *Euskara eta kulturartekotasuna Xalto ikas-tetxean* egitasmoa sortu dute

Xalto eskolak, guraso elkarteak, UEMAK eta Goizuetako Udalak. Asmoa, bertako- ez bertako dikotomia hautsi eta komunitate anitza eraikitzea da, betiere, euskaratik. Bereziki eskola komunitatearen barruko komunikazioan jarriko dute arreta eta eskolakomunitatean hizkuntzak kudeatzeko irtenbide praktikoak bilatuko dira; familiekiko eta gurasoekiko komunikazioan: guraso batzarretan, mailaz mailako bileretan, gurasoen arteko whatsapp taldeak, gurasoentzako oharrak eta komunikazioak... idazterakoan.

«Baigorri eta Baztanen arteko harremanak sendotu nahi ditugu»

ANE FAGOAGA IZQUIERDO IZPEGIKO BESTETAKO ANTOLATZAILEA

Baigorriko eta Baztango herritarrak elkartzea helburu, bigarren aldiz antolatu dituzte aurten Izpegiko bestak. Hainbat ekintza prestatu dituzte irailaren 20an eta 21ean Izpegiko lepoan.

R. OSKARIZ ERRATZU

Joan den urteko arrakasta errepikatu nahian, Izpegiko bestak antolatu dituzte aurten ere Erratzuko gazteek, Baigorriko Basaizea elkarteak eta Baztango Gazte Asanbladak. Egitarau zabala prestatu dute irailaren 20tik 21era eta helburua argi dute: «inposatutako mugen gaineratik zubiak eraikitzea». Antolatzailerako bat da Ane Fagoaga Izquierdo erratzuar gaztea.

Nondik sortu zen Baigorriko gazteekin batera bestak antolatzeko ideia?

2022ko urtarrilean, dagoeneko, seinaletikari buruzko ekintza bat egin genuen elkarrekin, mugaren salaketa egiteko helburuarekin. Lehendabiziko kontaktu horretatik sortu zen Izpegiko bestak antolatzeko ideia. Hala, joan den urtean aitzinerat eraman genuen ideia hori eta Izpegiko besten lehendabiziko edizioa egin zen Baztango Gazte Asanblada, Basaizea eta Erratzuko gazte batzuen arteko elkarlanean.

Nola joan zen?

Orokorrean, arras ongi. Lehendabiziko aldia izanda, antolaketa prozesua konplikatu eta luzea izan zen, baina motibazioa ere handia zen, eta inguruko jendea gustura egon zela ikustean gu ere kontent gelditu ginen. Egunean berean arazoren bat edo bertez eduki genuen, elektrizitate sorgailuak azken momentuan



Izpegiko bestetako antolatzailerako bat da Ane Fagoaga erratzuarra. UTZITAKOIA

huts egin zigun eta argi gabe gelditu ginen... Baina ahal bezala aitzinerat atera genuen eta azkenean denek oroitzapen arras ona altxatzen dugu. Egun berezia izan zen.

Bi herrien arteko harremanak sendotu nahi dituzue. Gaur egun, nolako harremana dute baztandar eta baigorriarrek?

Oraindik ere nahiko eskasa dela erranen nuke. Egun eta besta puntualaz gain, Baztandarren Biltzarran edo Nafa-

rroarean egunean, adibidez, ez dago elkartzeko ohiturarik, ondoan bizi garen arren. Baigorriko gazteekin elkarlanean aritzearen alde positiboentako bat haiekin sortu eta indartu dugun harremana izan da, zalantzarik gabe.

Eta Erratzuko gazteek, zehazki, zein harreman duzue Baigorriko gazteekin?

Beti egon izan da ohitura Baigorri alderat joateko bestetara eta abar, edo haiek Erratzu-

rat etortzeko. Baina, hala ere, gustatuko litzaigukeena baino harreman gutiago dugu orokorrean.

Horrelako ekimenak baliagarriak dira loturak sendotzeko?

Bai, dudarik gabe. Uste dugu horrelako ekimenak arras lagungarriak direla gure artean inposatu zaizkigun muga fisiko zein psikologikoak hausteko eta elkarren arteko harremanak indartzeko. Hori izan zen, bertez bertez, Izpegiko bestak antolatzearen helburuetako bat.

Zein filosofiarekin antolatu duzue besta?

Elkarren ondoan kokatutako bi herri banatzeko inposatu zaizkigun muga horiek hausteko antolatu genituen besta hauek iaz. Aurten, jasaten ditugun inposaketan asimilazioaren kontra egin nahi dugu batez ere. Gure hizkuntzaren kasuan nabaria da asimilazio hori, erdal hizkuntzak geroz eta presenteago daude eta eskuara baztertzen ari gara. Hortaz, ezinbertzekoa da erreferente propioak izatea; sareak, aliantzak eta egitura propioak sortzea. Eguneroko errepresioa ere bada asimilazioaren adibide argia: atxiloketak, neurrigabeko isunak, polizia, enpresa erraldoiek inposatu nahi dizkiguten makroproiektuak... Inposaketa horien guzian kontra egiteko bidean ezinbertzekoa da zubiak eraikitzea eta saretzea, eta bide horretatik antolatu ditugu Izpegiko bestak bigarren aldiz. **Lan handia da dena prestatzen?** Iaz lan handiagoa izan zen, lehendabiziko aldia zelakoz eta zerotik hastea konplikatua delakoz beti. Aurten errazago egin dugu, joan den urteko akatsetatik ikasi dugu eta prozesua arinago joan da. Gainera, dagoeneko ongi eza gutzen dugu elkar eta lanearako dinamika ere hartua dugu. Lan handiena besten aitzineko astean eta egunean berean izaten da. Hortaz, aunitz eskertzen dugu laguntzera hurbiltzen den eta txan-

«INPOSAKETEN ASIMILAZIOAREN KONTRA EGIN NAHI DUGU»

«JOAN DEN URTEKO AKATSETATIK IKASI DUGU AURTENGO ANTOLAKETARAKO»

detan parte hartzen duen jendea.

Erasoak prebenitzeko eta artatzeko protokoloa ere prestatu duzue, ezta?

Bai, egunean berean Brigada Morea egonen da, eta protokolo bat prestatu dugu edozein eraso motaren aitzinean erantzun bat eman ahal izateko eta berehalako neurriak hartzeko. Izpegiko bestetan ere denentzako espazio seguru eta aske bat sortu nahi dugu, ez dugu tokiz kanpoko jarrerarik onartuko.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Bertzetik gabe, eskerrak eman modu batera edo bertzera besta hau antolatzen lagundu gaituzten guzietan, eta jendea aurtengo edizioan parte hartzera animatu nahiko nuke, egun polita izanen da eta!

Autobus zerbitzua

Izpegiko lepora igotzeko eta bertatik jaisteko autobus zerbitzua izanen da larunbatean egun osoz, bai Baigorritik, eta baita Elizondotik ere.

Igotzeko 10:00etan, 12:00etan eta 19:00etan aterako da Elizondotik, eta Erratzutik ere pasako da. Itzultzeko, aldiz, 20:30ean, 03:00etan eta 06:00etan aterako da Izpegiko lepotik eta Erratzun geldialdia eginda Elizondora joanen da. Baigorritik igotzeko 11:00etan, 13:00etan, eta 20:00etan aterako da autobusa, eta itzulera 19:30ean, 02:00etan eta 05:00etan izanen da.

Zerbitzuak 3 euroko prezioa izanen du.



Abuztuaren 29an Izpegin aurkeztu zuten besta. UTZITAKOIA

Izpegiko bestak 2024

Egitarau oparoa prestatu dute ortziralearraren eta larunbat osorako:

Irailak 20, ortziralearra

- **20:00etan** Asisko eta Dom Campistronek marrazki emanaldia Bereko Bentan.

Irailak 21, larunbata

- **08:30ean** mendi martxa Baigorritik Izpegira.
- **11:00etan** bizikleta igoera Izpegiko lepora, Baigorriko elizako plazatik.
- **11:00etan** Porrotxeekin Irri kantu eta jolas.
- **12:00etan** zintzur bustitzea Baigorriko eta Erratzuko gaiteroekin eta Inen da zeit txarangarekin.
- **13:00etan** ekitaldi nagusia.
- **14:00etan** bazkari herrikoia Inen da zeit txarangak alaitua.
- **17:30ean** poteoa Elektroxorongorekin, hiru bentetan barna.
- **21:00etan** afari eskaintza Baigorriko Ikastolaren eskutik.
- **22:30ean** kontzertuak: Spartak dementziala, Tatxers eta DJ Üzkülüz.

Behi azienda piriniotarraren feria irailaren 21ean eta 22an

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Cederna Garalurrek eta Aspina-Conaspik Behi Azienda Piriniotarraren XXXV. Lehiaketa-Enkante Nazionala antolatu dute aurten ere Elizondon. Ortziralearan 15:00etatik aitzinera hasiko dira abelburuak Merkaturako Plazara eramaten, eta asteburu osoko egitaraua izanen du:

Irailak 21, larunbata

09:00ak baino lehen azken abelburuak sartuko dituzte. 09:00etatik 14:00etara azienda kalifikatzeko txandak egingen dituzte. 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Baztango artisautza eta nekazaritza elikagaien azoka izanen da. 17:30etik 20:00etara, berriz, behi azientaren erakustaldia egingen dute.

Irailak 22, igandea

09:00etatik 12:00etara behi azientaren erakustaldia izanen da, eta 10:00etatik 14:00etara Baztango artisau eta nekazarien azoka. 11:30ean Nafarroako aratxea dastatzeko aukera izanen da, eta 12:30ean, berriz, behi azientaren enkantea. Akitzeko, 13:00etan sari eta garaikurren banaketa egingen dute.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRATEGIA DE CONSTRUCCIÓN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

OTEIZA
ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Iruirita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

DESIGNER
CERTIFIED
PASSIVE HOUSE
DESIGNER

oteizaarquitectos



Ortzirale gauean hartuko dituzte baztan zopak. ARTXIBOTIK

Anizko bestak urriaren 4an, 5ean eta 6an

Besta giroa nagusi, egitarau oparoa izanen dute hiru egunez aniztarrek

TTIPI-TTAPA

Urriak 4, ortziralea. 11:00etan ezkila jotzea, haurren altxafe-roak eta herriari itzulia herriko musikariekin. 11:30ean herri krosa eta 12:00etan frontenis txapelketa. 14:00etan bazkari autogestionatua elkartean eta 17:00etan frontenis txapelketa finalak. 20:00etan mutil dantzak eta 21:00etan baztan zopak. 00:00etan dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin eta goizaldean xingar jatea.

Urriak 5, larunbata. 11:00etan puzgarriak. 12:00etan paella lehiaketa eta 14:00etan paella jatea frontoian. 16:00etan mus

eta partxis txapelketa. 19:00etan herri kirolak eta ondotik dantzaldia Nahia eta Jasonerekin. Afaltzeko bokatak izanen dira eta iluntzean su artifizialak.

Urriak 6, igandea. 11:45ean luntxa eta 12:00etan Xarutako haurren pilota partidak, ondotik mus eta partxis txapelketa finalak. 13:30ean mahaia paratzea eta 14:00etan zikiro jatea Beñat Mitxelenaekin. 17:00etan bingo txapelketa eta 19:00etan karaokea. Ondotik dantzaldia Beñat Mitxelenaekin, xingar jatea eta kantaldia. Akitzeko, Gaixoak aniztarrek eta herriari itzulia.



NEREA MORTALENA

Ederki joan dira Arraiozko bestak

Abuztuaren 30etik irailaren 2ra besta giro betean izan ziren arraioztarrak. Bestak ongi hasteko, 180 lagun inguru bildu ziren zopetan, eta haurrek ere jostetarako tartea izan zuten. Grand Prixa ekitaldi jendetsuena izan zen, laxo zelaia jendez lepo baitzegoen, eta zikiro ederrarekin akitu zituzten bestak.

BRIKO BAZTAN, SL
 Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
 Pinturak
 Fatxadak
 Pladurra
 Egur lakadura eta bernizadura
 Birgaitzeak eta obra berriak
 Lur-mugimenduak
 T. 608 016 052
 San Andres, 66 · NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

JOSEPHINE'S
 20 ENGLISH 13
 BAZTAN
 Pedro Axular karrika, 2 Eizondo
 IRAKASLE NATIBOA
2024-2025 MATRIKULA IREKITA
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak
 Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

Saharaztanen Tonbola Solidarioan laguntzeko deia

Elizondoko ferietan tonbola paratuko du aurten ere Saharaztan elkartek, eta laguntzekoa deia egin diete eskualdeko komertzio, enpresa, artista eta sortzaileei, bertzeen artean. Lagundu nahi dutenek saharaztan@hotmail.com helbidera idazten ahal dute.

Arrakastatsua izan da Ordokiko 4x4 trialaren XI. edizioa

25 kotxek parte hartu zuten proban, Euskal Herritik zein Galiziatik etorritakoak

TTIPI-TTAPA

4x4 ibilgailuen ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten irailaren 7an Arizkunen eta jendetza bildu zuen ekimenak. Goiz eta arratsalde aritu ondotik, lau kategoriatan banatu zituzten sariak.

Ibilgailu homologatuak: 1. Iker Telletxea eta Xabi Bidaur (Lesaka/Igantzi), 2. Peio Mitxaus eta Miguel Anton (Lekunberri) eta 3. Mixel Iribarren eta Aritz Zabaleta (Amezket).

Ibilgailu modifikatuak: 1. Andoni Galdos eta Aitor Arnaiz (Oñati), 2. Eneko Elizalde eta

Ander Zelaieta (Elizondo/Lekaroz) eta 3. Unai Iparragirre eta Xabi Iparragirre (Bera).

Ibilgailu modifikatuak: 1. Manex Ordoki eta Xiker Ordoki (Bera), 2. Juxto Mendikoa eta Rafa Mitxelena (Elizondo) eta 3. Javier Galar eta Cesar Ziaurriz (Iruñea).

Prototipoak: 1. Raul Lopez (Galizia) eta 2. Ruben Azkuna (Bizkaia).

Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: «egun aski polita izan zen, ilusio handiarekin prestatu genuen eta arratsaldean, batez ere, jende



25 ibilgailuk parte hartu zuten aurtengo lehian. UTZITAKOAK

aunitz etorri zen». Aste osoan egindako euriak pataska ederra sortu zuen pistan, «baina larunbatean eguraldi ona egin zuen eta makinaren laguntzarekin ongi moldatu ginen».

Azkenik, «eskerrak eman etorri ziren guztiei, babesleei, eta, batez ere, lagundu zuten; makinekin aritu zirenak, epaile lanetan, zerbitzatzen... haiek egiten dute hau posible».

Zapatillera Lagun kanpaina abiatu du Baztango Musikazaleen Elkarteak

TTIPI-TTAPA

2021ean sortu zuten Elbeten Zapatillera proiektua, bertako musika taldeei entseatzeko eta kontzertuak egiteko espazio bat emateko asmoarekin.

Orain, finantziarioa lortzeko, Zapatillera Lagun kanpaina abiatu dute: laguntzaileak,

30 euroko ekarpena eginda, urte osorako Zapatillera Lagun izanen dira, hau da, antolatutako kontzertuetarako sarrera dohainik izanen dute, eta kamiseta bat lortuko dute. Informazio gehiagorako, eskuragarri dute 665 88 02 20 eta elbetzapatillera@gmail.com.



Kanpainaren aurkezpena. ZAPATILLERA

Urtaro bat, kontzertu bat

Kanpainari hasmenta emateko, *Urtaro bat, kontzertu bat* ekimena sortu dute, hau da, urtaro bakoitzeko kontzertu bana antolatuko dute.

Lehenbiziko kontzertua irailaren 13an egin zuten eta Bidenabar eta Fusible taldeak izan ziren oholtzaren gainean. Gainerako urtaroetako kontzertuak aitzinago iragarriko dituzte.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean






Ekitaldiz betetako eguna izan zuten irailaren 7a. MAITANE MARITORENA

Berroetan ospatu dute aurtengo Basaburuaren Eguna

2015ean Berroetan hasi zen Basaburuaren Eguna eta aurtur bigarren itzuliri ekin dio. 2026an Almandozen izanen da

MAITANE MARITORENA

Goizean 20 lagun inguruk bi orduko mendi itzulia egin zuten: plazatik abiatu, Marabilako presatik barna, Ateketa-ko peñetarat... itzuliaren ondoren, haurrak birziklatutako materialekin eskulanetan aritu ziren bitartean, kokorxeagoak ginkana egin zuten. Bitartean, 18 bikote musean aritu ziren, eta txapeldunak Almandozko Gorka eta Itziar izan ziren. Kantuz ere aritu ziren zenbait Baztan Kantuz ekimenarekin.

Eguerdian 130 lagun bildu ziren bazkaltzera. Bazkalondoa



Gorka eta Itziar mus txapeldunak.

Andoni Mitxelena akordeoi-lariak animatu zuen, eta ilunabarra, berriz, J&J DJak. Gauak luze jo zuen, zenbaitendako bestak Berroetatik kanpo ere segitu baitzuen.



JUAN MARI ONDIKOL ETA IZASKUN AIZPURI

Bikain joan dira Txokotoko bestak

Irailaren 6tik 8ra ekitaldiz betetako asteburua izan zuten Txokoto auzoan: kontzertuak, zikiroa, txaranga... Igande goizean tortilla patata lehiaketa egin zuten eta 12 tortilla aurkeztu zituzten. Irabazlea Maribel Iturria izan zen bigarren urtez, eta bigarren saria Amiano ahizpek lortu zuten.

MARMOLÉS
SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 Lesaka
T. 948638077



Amaiurko eta Erratzuko familiak omendu zituzten. ONDIKOL

Comète Sarea gogoratu dute Amaiurren

85 lagun inguruk parte hartu zuten Lauzetatik Amaiurrerako ibilaldian eta ekitaldi nagusia egin zuten bertan

TTIPI-TTAPA

II. Mundu Gerran hegazkin-lariei muga zeharkatzen lagundu zien sareak 83 urte bete ditu, eta egun berezia prestatu zuen Comète Baztan-Bidasoak irailaren 8an.

Lauzetatik atera zen ibilaldiarekin abiatu zuten eguna, eta eguerdi partean ailegatu ziren Amaiurrerat. Elkarrean ekitaldi nagusia egin zuten; Comète Baztan-Bidasoko lehendakari den Juanbi Mihurak, Ixabel Aleman Amaiurko alkateak, Fernando Anbustegi Baztango alkateak eta Ana Ollo kontseilariak parte hartu



Aurreksua omenaldian. ONDIKOL

zuten. Horrez gain, Amaiurko eta Erratzuko Kanttorrenokomendia, Mortalen borda eta Jauriko bordako familiak omendu zituzten, sareari emandako laguntzagatik.

Azken egunak Kultura eta Euskara Zerbitzuen dirulaguntzak eskatzeko

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak hainbat dirulaguntza deialdi atera ditu herritar, elkarte eta komertzioendako.

Elkarreendako laguntzak

Guraso elkarteek antolatutako kultur jardueretarako gehieneko 6.000 euroko partida onartu du udalak, «haurren kultur prestakuntzan lagunduko duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzeko». Zehazki, 2023ko azaroaren 1etik 2024ko azaroaren 1era bitarte egindako jarduerak lagunduko dituzte eta azaroaren 3ra arte aurkez daitezke eskaerak.

Gainerako irabazi asmorik gabeko kultur elkarreendako gehienez, 22.000 euroko partida onartu dute, eta 2023ko azaroaren 8tik 2024ko azaroa-

ren 8ra bitarte egindako jarduerak sartuko dira. Emanen den gehienezko zenbatekoa ez da gastuaren % 75 baino gehiago izanen, eta gastuen justifikazioa azaroaren 8ra arte aurkezten ahalko da.

Euskalduntzeko laguntzak

Azken ikasturtean Baztanen euskara ikasi duten herritarrei matrikularen gastuekin laguntzeko deialdia egin dute. Gehienez ere 435 euro emanen dute onuraduneko.

Hizkuntza paisaia euskartzeko, aldiz, 2.000 euroko aurrekontua onartu dute eta komertzioetako erroto luak, irudi korporatiboak eta webguneak euskaratzera bideratuko dira. Irailaren 30era arte egin daitezke eskaerak bietan.

Informazio gehiago eskuragarri baztan.eus webgunean.

Komunitateen estatutuak aldatzeko deia apartamentu turistikoak debekatzeko

TTIPI-TTAPA

Urtearen bukaeran bizitegi blokeetako bilkura aunitz eginen direla baliatuz, Talde Ekosozialak «etxebizitzaren esku-bidearen arazoarekin sentiberak diren herritarrak» animatu dituzte haien komunitateetan apartamentu

turistikoak galaraztera. Blokeetako estatutuetan, behe solairuetan ez bertze, jarduera komertziala espresuki debekatzeko aski dela adierazi dute. Izan ere, «apartamentu turistikoaren ondorioa alokairuko bizitegiaren eskaintzan zuzena da».

MUGARKI
+65
entrenamendu
pertsonalizatua
taldean!

Gehien bat indar entrenamenduak eginen ditugu gihar masa mantentzeko helburuarekin.

●●●●●●●●●●

Entrenamendu hauek 2 motako diabetesa, buru osasuna, depresioa eta antsietatea murrizten laguntzen dute.

●●●●●●●●●●

Osasunbidearekin elkarlanean.

●●●●●●●●●●

Garraio zerbitzua eta nutrizionistaren kontsulta ere eskura.

622 903 055 · kaixo@mugarki.com · Ordoki poligonoa. ARIZKUN · [@mugarki_](https://www.instagram.com/mugarki_) · www.mugarki.com



Fermin Iriarte, herritarrek inguraturik, elizako eskaileretan.

Ongi merezitako omenaldia egin diote Fermin Iriarteri

Herriko historiari, kulturari eta etnografiari buruzko hamar bilduma eta bertze lanak eginak ditu

MARIFA ETA KORO

Ongi merezitako omenaldia egin zitzaion irailaren 1ean Fermin Iriarteri. Zugarramurdiko historia, kultura, eta etnografiaren bilketak egiten urteak eramaki ditu Ferminnek. Momentu honetan hamar bilduma eginak ditu. Horietako lau Herriko Etxean utziak ditu, nahi duenak ikus dezan, eta bertze lan haundi bat (*Zugarramurdi 1000 eta 2000 urteen bitartean*) museoan salgai dago.

2015ean Pilotarien Batzarrearen omenaldia ere hartu zuen Iriarterek Logroñon, bere



Herritarrek omendu zuten iriarte

garaian, palaz Espainiako txapeldun izan baitzen.

Omenaldia behar den bezala finitzeko, herritarrez inguraturik, elizako eskaileretan argazki bat egin zuten.



«Erasotzaileak eta lerdetsuak seinalatzeko tenorea» dela adierazi zuten.

Indarkeria matxistaren kontrako elkarretaratze jendetsua egin dute

MARIFA ETA KORO

Gure herriko eta inguruetakoen bestetan gertatutako zakarkeria eta agresibitateak kontuan harturik, errefeta bezperan kontzentrazio bat egin zen plazan *Indarkeria matxistarik ez! Askida!* lelopean, gisa horretako jarrerak ez ditugula onartzen erakusteko. Zugarramurdiko feministek eta Akelarre elkarteak egin zuten elkarretaratzerako deia: «Azken asteetan Itsasun, Amaiurren, NARBARTEN, ELIZONDON, BERAN, LESAKAN eta bertze hamaika herritan egoera bortitzak bizi eta salatu dituzte. Zugarramurdiko bestetan bizitakoa ez da ezberdina izan. Bortxaketa baten berri izan ondotik, bortxatzailea bestetatik kanporatu dugu. Gainera, plazan jarrera egokia mantentzen ez dakiten hainbat pertsonaren ekintzak kudeatu behar izan

ditugu». Hala, «erasotzailea eta lerdetsuak zuzenki seinalatzeko tenorea ailegatu» delakoan daude.

Hala ere, zoritxarrez errefetako gauean herritar eta sarratar gazte batzuk (beren buruan zer duten erakutsiz) basakeriatan aritu ziren: auto batekin plazan sartu ziren, arriskuan jarri zuten jendea, mehatxuak egin zituzten, animalia hilak bota zituzten...

Astoak hezten dira, baina asto-pitoak ezin direla behin ere hezi ematen du.

Bi berrikuntza

Bertze aldetik, bi berrikuntza garrantzitsu ditugu aipagai: alde batetik, herriko langileek auto berria estreinatu dutela; eta bertzetik, eskolako leihoak berri dituztela udan, eta berogailuaren galdara berria emanen dutela udazkenean.

Benboire eta Saint-Martin garaile errefetako mendi lasterketan

MARIFA ETA KORO

Besta eta zikiro giroa izaten da usaian errefeta eguna, baino aurtengoan kirolarekin hasi genuen eguna: goizeko hamarretan 6 kilometroko mendi lasterketa bat egin zen, Loia-ra, Urbia, Mendibil eta Mal-korren barna. Auzo herrietan

aunitz dira, baina lehen aldiz egin da mendi lasterketa herrian. Ea bada, segida izaten duen.

27 parte hartzaile izan ziren eta txapeldunak Maider Benboire (emaztekietan) eta Pantxo Sain-Martin (gizonetan) izan ziren.



Errefetako mendi lasterketako korrikalariak. MARIFA ETA KORO



Joan den urtean ospatu zituzten lehen aldiz Leorlasko bestak. ARTXIBOKOA

Leorlas auzoko bestak prest dituzte aste hondarrerako

Ortziralean mus eta pilota partidak izanen dituzte eta larunbatean mendi ibilaldia, finalak eta bazkaria

ARANTXA ETA IRAIA

Bigarren urtez ospatuko dira aurten Leorlas auzoko bestak eta joan den urteko arrakasta ikusirik, egitarau zabala pres-tatu dute heldu den irailaren 20 eta 21erako. Ortziralean hasita, arratsaldean, 17:00etan emanen diote hasiera beste mus eta pilota partidekin. Ondotik, zintzur bustitzea egonen da hurbildutakoentzat. Larunbat goizean, 09:00etan, mendi ibilaldi bat egingen dute eta ondotik, 11:30ean, mus eta pilotako finalak jokatu dituzte. 14:00etan bazkari eder batekin emanen diote segida

egunari, Joxe Angelen dantzaldiarekin animaturik. Eguna borobiltzeko, iluntzean, afari pikoteo batez gozatzeko aukera izanen da, beste behar bezalako akabera emanez.

Kontrabadisten lasterketak urriaren 12an eta 13an

Urdazubiko Kontrabadisten Lasterketak urriaren 12an eta 13an egingen dituzte. Urteroko gisan, larunbat gauean Gaueko Lanak lasterketa (9,5 km) egingen dute eta biharamunean, igande goizean, maratoi erdia. Izena emateko aukera irekia: pyreneeschrono.fr

Hiru urteko bederatzi haur lehen aldiz hasi dira Urdazubi-Zugarramurdiko eskolan

ARANTXA ETA IRAIA

Udako oporrak bukatu ahala, irailean sartu orduko klaseen hasiera izaten da sasoi honetako data seinalatuenetako bat. Urdazubi-Zugarramurdiko eskolako haurrek, joan den irailaren 6an eman zioten hasiera eskola kurtso berriari.

Aurten aipatzekoa da 9 izan direla eskola lehenengoz hasi duten hiru urteko haurrak. Iraileko erritmoa hartuz, poliki poliki ere eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen hasiak dira, nahiz eta jarduera gehien urrian emanen zaien hasiera.



AITOR/GANEX/SARAKO IZARRA

Giro ederrean joan dira Sarako bestak

Larunbateko mendi bizikleta ibilaldiarekin abiatu eta arratseko Kilimak eta Esne Beltzaren kontzerturako 2.000 sarrera saldu ziren. Igandean beteranoak eta kirolariak ohoratu eta arratsaldeko desfilean giro ederra izan zen. Pilotak ere hartu du bere lekua plazan, euriak utzi duenean.

Neomak eta Maider Cigarroaren kontzertu berezia larunbatean lezeetan

GANEX

Irailaren 21 ean, larunbatarekin, Neomak taldearen lehen diskoaren birako azken kontzertua antolatu dute Sarako lezeetan. 20:00etan abiatuko den gaualdia hasteko, Maider Cigarroaren ahots liluragarria aditzeko aukera izanen da eta

gero, 22:00etan, Neomak taldearen kontzertuarekin segituko dute, Sarako lezeetako atari dotorearen azpian. Jatekoak eta edatekoak bertan izanen dira, hori bai, dagoneko sarrera eskuratua baduzu. Izan ere, aspaldian saldu ziren sarrera guztiak.

Larrungo trenaren mendea irailaren 18tik 22ra ospatuko dute

Larunbatean 'Versant Vivant' kontzertua Lur Berrin eta igandean, Bote luze, bertsolariak, dantzariak eta Ruper Ordorika gainean

TTIPI-TTAPA

Larrungo trenaren mendeburu ospatzeko hainbat ekitaldi antolatatu dituzte irailaren 18tik 22ra.

Irailaren 18an, asteazkenean, Xantako-San Inazio bizikleta bidearen estreinaldia eta irekitzea egitekoa zuten.

Irailaren 20an, ortziralean 16:00etan *Larrungo trena: trenbide istorioak* mintzaldia izanen dute Urruñako Herriko Etxeko areto nagusian.

Irailaren 21ean, larunbatean 16:30ean *Versant Vivant* ikuskizuna izanen da denentzat Lur Berri gelan. *Versant Vivant* kontzertu marraztu eta animatua da. Musika konposizioak eta oholtzan zuzenean eginitako marrazkiak uztartzen ditu, Emilie Tarascou, animazio-zinemako marrazkilaria eta Simon Kansara, musikari, sortzaile eta ikus-entzunekoen gidoilariaren eskutik. Egun berean, 18:00etan, Berako Beralandetan, *Larrunen historia, mugaz gaindiko lekukotasunak* mintzaldia emanen du Fernando Mikelarena, Zaragozako Unibertsitateko historia doktoreak, euskaraz eta espainolez.

Irailaren 22an, igandean 09:45ean, *1924-2024: Larrungo trena, mende bat igaten* erakusketaren bisita gidatua egingen dute San Inazio lepoan. Igandean 11:00etatik 18:00etara, Larrungo gailurrean egingen dira ekitaldiak. Xabxab mural margolariak oroimenezko fresko bat egingen du. 11:00etan Bote luze pilota partida jokatuko dute Sarako Izarra eta Berako Gure Txokoako pilota taldeko pilotariek. 12:00etan

bertso saioa izanen da Bertsolarien Lagunak elkarrekin lankidetzan: Haira Aizpuru, Ekhiñe Zapiain, Xumai Murua eta Sustrai Colina ariko dira kantuan. 12:30ean Sarako eta Berako erraldoiak aterako dira. 14:00etan eta 16:30ean, Jour de Fête antzerki taldearen eskutik *Maite nautenek trenera igan daitezela* ibilbide poetiko eta berezia egingen dute. 15:00etan, Brilili Banda dantza talde xiberotarraren eskutik *Behin bazen...* ikusgarria. Ekitaldiak bukatzeko, 17:30ean itxiera kontzertua eskainiko du Ruper Ordorikak, Arkaitz Minier musikaria lagun duela.

Asteburua Larrunen

Larrungo trenaren mendeburuaren kariatara, ttikienek historia eta bioaniztasuna ezagutzeko parada izanen dute eta saiak behatzen ahalko dituzte, Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren eta Lapurdi Itsasbaterreko IEZiren eskutik. Animazioak irailaren 21ean eta 22an, larunbat eta igandearekin izanen dituzte.

Bertzalde, *Larrungo trena, gure ondarea* erakusketa ibiltaria abiatuko da irailaren 21ean eta 22an Baionako Departemendu Artxibategian, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. Hilabete batez ikusgai izanen da.


IGANDEAN EGUN OSOKO EKITALDIAK IZANEN DIRA LARRUN GAINEAN



UTZITAKOA

Joko Berri txapelketako finalak

Joko Berri txapelketako finalak jokatu zituzten irailaren 1ean. Ellande Alfarok eta Denis Endarak 40-34 irabazi zieten Manex Etxeberri Pachecori eta Iñaki Jauregiri. Gazte mailan, berriz, Unai Berasategik eta Eneko Marinek 40-32 irabazi zieten Kaiet Alduntzini eta Eneko Semerenari.



UTZITAKOA

Larrondek zilarrezko domina Txinan

Abuztuaren 21etik 25era Txinan jokatu den munduko junior mailako pistako txirrindularitza txapelketan parte hartu du Ellande Larrondek. Zilarrezko domina lortu zuen taldekako jazarpen proban. Bakarkako jazarpenean, berriz, laugarren izan zen eta *Omnium* proban bederatzigarren.

Yoga egokitu tailerra emanen dute Sarako lezeetan buruilaren 27an

GANEX

Yoga egokitu tailerra emanen dute buruilaren 27an, 09:00etatik 10:15era Sarako lezeetan, Sarako Gizarte Zerbitzuak eta Kattuyogak proposatua. Gehienez 12 pertsona onartuko dituzte. Izen emateak mailez: ccad.saran@gmail.com ala

herriko etxera deituz: 05 59 54 20 28 edo 06 07 83 34 93.

Saioa leku berezi batean iraganen da, argiztaturiko lezezuloan. Hortaz, tapiza bat eta jantzi beroak ekartzeko deia egin dute. Nahi izanez gero, tisana eta estalki bat ere eramán daiteke.

Jean-Pierre Cachenaut apezari eskertza eta agurra

Ibilbide luzea egin du elizan, azken bederatzi urteak Larrungo Izpiritu Saindua Parropian eta erretreta hartu du orain

JL BESSONART

Senpereko eliza mukuru beterik, Larrungo Izpiritu Saindua parropiako eliztarrak bildu dira zeremoni eder batean, eskertu nahirik azkeneko bederatzi urtetan artzain zintzoa izan den Jean-Pierre Cachenaut apeza. Honen ibilbide luzean, hainbertze leku eta jende desberdin kausitu ditu, berak dioenez zorionkoa eta aberasgarri izan baita beretako.

Jean-Pierren esku eta bihotz zabala baita honen ele gozoek eskas eginen dute, hala ere Jean Baptiste Bui bikario berriak hartzen du segida. Aldaketek jarraituko dute, hala nola gure erretora Jean Eliçagaray joanen zaigu urriaren 6an. Jean-René Predaignek ohartuko du bere tokia. Ongi merezitako bertso bereziek, auresku eta zintzur bustitzearekin agurtua izan da. Mila milesker Jean-Pierre, ongi goza zure erretretadun garaia.

Thomas Kahn kontzertuan

Soul Music delakoaren printze bezala ezagutua da Thomas



Cachenaut apeza omendua.

Khan kantari ospetsu hori. Honen ahotsak oroitarazten du Otis Redding baita Ben Harper ere. Irailaren 21ean, larunbatean, 21:00etan, entzuten ahalko da bere ahotsa, bere zaz musikariekin, Larreko kulturgunean. Senpereko Kultur eta Ondarea antolatzaila lanetan. Erreserba Euskal Herriko Turismo bulegotan, prezio osoa: 25 euro; 21 urtez behetik: 15 euro. Musikaz gozatzeko aukera.

Ibarrungo bestak irailaren 27tik 30era ospatuko dituzte ekitaldiz beteak

JL BESSONART

Jondoni Mikel besten ospakizunak, hor dira irailaren 27tik 30a artean Ibarrun auzoan. Ekitaldi garrantzitsuenak eta larriki, ortzirale arratsean muslehiaketa (19:00), Inharria baserrian. Izen emateak 07 89 03 08 telefonora deituz edo,

tokia geldituko balitz, Inharrian berean 18:00etatik aitzinera. Taldeko 20 euro. Auzoko aperitifa Inharriako terrazan, osatua eta taloak. Larunbat goizean pala txapelketetako finalak eta eguerditan xerrikume errearen bazkaria Inharrian (14:00) Kiki Bordatxok



Esku huska galdu egin zuten Harotçarenek eta Abadek. UTZITAKOIA

Joko Garbin irabazi eta esku huska eta frontballean galdu dute gure pilotariak

Pilotako Aste Handia kari, herriko 5 ekipo bagenituen finaletan eta bik txapela erdietsi dute. Joko garbian, kimuak, Ibai Mendiboure-Sein, Odei Larrebourg-Bonnet eta Gilen Iciaga nagusi Amikuzeri, 40-23; gaztetxoak, Julien Fagoaga, Peio Gonzalez eta Matiu Trunday garaile Bidaxunekoan kontra,

40-29. Esku-huska, gaztetxoak, Julien Harotçarenek eta Antton Abadek galdu dute Aiherraren kontra, 30-22. Frontball-ean, gaztetxoak, Hegoa Negelouak ezin izan du irabazi Lehuntzeko Antonenaren aurka eta lehen mailan, Marie Goyenechek, amore eman du Arbonako Housset-en kontra.

Dolores Redondo idazlearen eskutik 'Sartzea beltzean' gualdia Mediatekan

Sartzea beltzean gualdia antolatu du mediatekak urriaren 3an, ortzegunean, 19:00etan Larreko kulturgunean. Gualdi horretan, Dolores Redondo ezagutzeko parada izanen da, eleberri beltzaren eta polizia-aren idazlea, fama hartu duena Baztango trilogiarekin, baita

bertze eleberri batzuei esker. Gertakari hau Paueko Zinema beltz eta polizia festibalaren partaidetzarekin antolatu da, baita joan-etorria beltzean partaidearekin, 64 departamenduko liburutegiekin eta Larrungo mediateken sarearekin ere.

animatua. Arratsean Puntu Kakotx txaranga, Piseo eta OPH, Maskak eta gualdirako Trikidantz taldearekin dantzaldia. Etxera itzultzeko hara-honako ibilgailua urririk. Igande goizean, Mikelietako meza Inharrian, Emak-Hor taldeak alaiturik (10:30) eta eguerdian apetitifa. Arratsaldean, Casetasen idekitzea pilota plazan Ibarrungo ostalariarekin (16:00) eta hipnotiza-

tzaileen ikusgarria (17:00). Mutxikoak Patxi ta Konpaniarekin (18:00), Kilimak (20:00), Kode (22:00) eta gauerditan DJ Doilu Soinu Sistema. Asatelehenan, Woostock Eguna, Kuxkuxtuk alaiturik, goizean gazteen eskeak (11:00), esku huska pilota partida (18:00), legatza jastaketa Bonnet osatua (20:00) eta, bestak bururatzeko, dantzaldia Beñat Elizondorekin (21:00).

Baztan Futbol Taldea Superkopako txapeldun

Arronizko Zarramonzari irabazi ondotik, Espainiako Erregearen Kopan aritzeko aukera emanen lukeen kanporaketa jokatu du

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Nafarroako Futbol Federazioaren 2024-25 denboraldiko lehen titulua irabazi du Baztan Futbol Taldeak: Nafarroako Superkopa. Abuztuaren 25ean jokaturako joaneko partidaren, Arronizen, bana berdindu zuten Zarramonzak eta Baztanek. Beraz, abuztuaren 31n Giltxaurdin jokaturako itzuliko partidaren erabaki zen titulua eta Baztanek ez zuen hutsik egin, 5-1 irabazita lortu baitzuen Superkopa bereganatzea. Tituluaz gain, bertze sari bat ere badu Baztanek: Espainiako Erregearen Kopako aurrekanporaketa jokatzeko eskubidea izanen du, zozketaz, partida bakarrera, Aragoi, Katalunia edo Balear irletakoko talde baten kontra eta, hori gaindituz gero, lehen mailako talde baten kontra aritzeko aukera ere izan dezake.

Zarramonza taldeak joan den denboraldian Nafarroako Federazioaren Kopa irabazi zuen eta horrek eman dio Superkopa jokatzeko eskubidea. Baztan futbol taldeak, berriz, hirugarren mailara igotzerik ez zuen lortu, Garesen kontrako kanporaketa galduta eta horregatik jokatu du Superkopa. Mendeurrenaren urtea titulu batekin eta sari potolo batekin hasi du, beraz, Baztan Futbol Taldeak.

Omenaldiak aitzinetik

Giltxaurdiko itzulerako partida besta handi bat izan zen, baita partida hasi baino lehen ere. Superkopako partida garrantzitsua baino lehen omenaldiak ere izan zituzten Giltxaurdin. Elkarteko presiden-

te izandako Lander Santamaria, Laureano Calvo, Esteban Ustariz, Antton Olondriz, Luis Mari Iturriria eta Felix Gonzalez omendu zituzten, Aurreku batekin eta oroigarriekin. Minutuko isilunea ere gorde zen berriki hildako Mayi Juanikotena bazkide eta jarraitzailea, gogoratuz.

Gero, partida bikaina

Baztan futbol taldea nagusi izan zen partidaren hasieratik, baina Zarramonzako atezainak zapuztu zituen etxekeo aukera gehienak. Ez ordea Imanol Zokoren lehen gola, 17. minutuan. Markagailuko aldea zabaltzeko aukera gehiago ere izan zituen Baztanek, baita bakarren bat Zarramonzak ere, baina dena zabalik uzten zuen 1-0arekin joan ziren atsendaldira.

Bigarren zati hasiera, ordea, ezin hobea izan zen Baztan futbol taldearentzat. Hirugarren minutuan, bigarren txartel horia ikusi zuen Zarramonzako jokalaririk eta segidan bigarren gola sartu zuen Elur Meokik eta, gero, hirugarrena Unai Bengoetxeak. Partida eta finala ia erabakita, oho-rezko gola lortzen saiatu zen Arronizko taldea eta penalti baten bitartez lortu zuen (3-1). Baina Baztanek bertze bi gol egin zituen partida bukaera aldera, Javier Urrutia eta Ion Osacarren bitartez (5-1).

Kiroltasun handiz jokaturako partida izan zen eta Zarramonzakoek pasilloa egin zieten Baztangoei garaikurraren bila joan zirenean. Hain zuzen, Javier Urrutia kapitainak hartu zuen garaikurra.



Baztan Futbol taldeko kideak, gustura Superkopa irabazita. JUAN MARI ONDIKOL



Presidente izandakoak omendu zituzten Giltxaurdiko partida hasi baino lehen.



Baztan eta Zarramonzaren arteko Giltxaurdiko partidako jokaldi bat.



Javier Urrutiak Rafael del Amoren eskutik hartu zuen Superkopa.



Lesakako XXI. Rallysprinteko podium nagusia. AVM

Muñoz eta Martinez nagusi Lesakako XXI. Rallysprintean

Irabazleen Porschearen gibeletik, Joseba Beola beratarra eta Joxelu Iratzoki igantziarra bigarren izan ziren, 61 autoen artean

AITOR AROTZENA LESAKA

Ziharka Sport eskuderiak antolatutako Lesakako 21. Rallysprint auto lasterketa burutu zen irailaren 7an Agiñan.

Sailkapen orokorrean, Adelmata Competición taldeko Ivan Muñoz eta Gabino Martinez nagusitu ziren, Porsche 997 autoarekin. Bigarren, Male-

rrerka Motorsport eskuderiako Joseba Beola beratarra eta Joxelu Iratzoki igantziarra izan ziren, Peugeot 208 autoarekin. Hirugarren postuan gelditu ziren Ikullu Razing taldeko Garmendia anaiak, BMW M3 E36 autoarekin. Podiumetik urrats batera, laugarren izan zen Ziharka Sport eskuderia-

ko Hodei Unсион beratarra, Maria Aranberri kopiloto zuela (BMW E30), zazpigarren Berako Jokin Huizi eta Oier Zapiain taldekideak (BMW E36) eta zortzigarren Malerreka Motorsporteko Gorka Iribarren doneztebarra eta Haizea Txoperena lesakarra.

Klaseen araberako sailkapena

Ibilgailuen klaseen araberako sailkapenei dagokienez, seigarren klasean ere Muñoz eta Martinez nagusitu ziren, lehen klasean Hierro-Lazaro (Citroen Saxo), bigarren klasean Malerreka Motorsport taldeko Pedro Grajirena eta Garikoitz San Miguel urroztarrak (Peugeot 206 RC), hirugarren klasean Artola-Avenidaño (BMW E36), laugarren klasean Jimenez-Ararras (Clio Sport), bosgarren klasean Joseba Beola eta Joxelu Iratzoki; bederatzigarren klasean Bujan eta Mugerza (Sierra Cosworth) eta hamargarren klasean Unсион eta Aranberri (BMW E30)

Izena emandako 61 ibilgailuetatik hamabik ez zuten proba bukatzerik izan. Lau txanda egin behar izan zituzten, Agiñako errepidean goiti eta beheiti, 37,2 kilometro denera.

Aritz Legarreta aranoarra txapeldun Donostian

Aritz Legarreta, Umore Onako pilotari aranoarra Donostiako XXV. Euskal Jaiak pilotari txapelketan txapeldun suertatu da. Oiarpeko Galardirekin bikote eginez, irailaren 5ean Trinitate plazan jokaturako final estuan 18-17 irabazi zieten Alde Zaharrako Sorondori eta Ziortzako Arrutiri, nesken infantil mailan. Aurretik, finalerdietan, Legarretak eta Galardik 18-8 irabazia zieten Hernaniko Esnali eta Astigarragako Mundarroko Zabalarri. Ez da aranoarrak lortzen duen lehen txapela eta seguru ez dela azkena izanen!



Galardi eta Legarreta txapeldun.



JUAN MARI ONDIKOL

Baztanek omendu du Jon Pacheco

Baloiari bere lehen ostikadak Baztanen eman zizkion Jon Pacheco futbolariak. Parisko Joko Olinpikoetan urrezko domina eskuratu duela eta, omenaldia eskaini dio Baztan Futbol Taldeak irailaren 7an. Zapia eta taldeko kamiseta hartu zituen, Txema Garaikoetxea presidentearen eskutik.



UTZITAKOA

Nafarroako emakumeak txapeldunorde

Emakumezkoen taldekako herri kirol triatlaiaren hirugarren edizioa jokatu dute abuztuaren 30ean Elgoibarren. Nafarroa (Iturengo Estefi Etxebeste harri jasotzailea, Berako Nerea Sorondo aizkolaria eta, txinga eramaten, Iranzu Fierro) bigarren izan zen, Gipuzkoa txapeldunaren gibeletik.

IRAILAK 19 - URRIAK 3

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



SARA Larhugo trenaren mendeburua ospatzeko jardunaldiak

Mintzaldia, ikuskizuna, erakusketa, mural margoketa, antzerkia, kontzertua... xehetasunak 48. orrialdean.
Irailaren 18tik 22ra.

MUSIKA

LESAKA

Jesus Gonzalo Lopezen organo kontzertua

Elizan, irailaren 20an, 19:00etan.

Pascual Aldaveren omenezko ahots eta piano emanaldia

Harriondoan, irailaren 29an, 19:00etan.

ETXALAR

Bihodi taldearen kontzertua

Elizan, irailaren 21ean, 19:00etan.

SARA

Neomak eta Maider Cigarroaren kontzertua

Lezeetan, irailaren 21ean, 20:00etan.

BERA

Pilar Cabreraren organo kontzertua

Elizan, irailaren 27an, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

'Ztandap' bakarrizketa

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairekin.
Arizkunenean, irailaren 19an, 19:00etan.

BERA

'Hegaldia' dantza ikuskizuna

Kultur Etxean, irailaren 21ean, 19:00etan.

DONAMARIA

'Jazoerak' ikuskizuna

Kukai Dantza Taldearekin.
Pilotalekuan, irailaren 28an, 19:00etan.

ZUBIETA

'Kilimaterioa' emanaldia

Estalpean, irailaren 28an, 19:00etan.

IRURITA

'Askatu: armairuko gogoetak' antzerkia

Gizarte Bilgunean, irailaren 29an, 18:00etan.

ERRATZU

Ane Lindaneren bakarrizketa

Elkartean, urriaren 3an, 19:00etan.

SOLASALDIAK

BERA

Bizitza eta dolua

San Jose egoitzan, irailaren 18an, 18:00etan.

1924an eta 1925ean

Larhunen izandako gertakariak

Fernando Mikelarenarekin.
Beralandetan, irailaren 21ean, 19:00etan.

LESAKA

'Hizkuntza-nahasmenduak haur elebidunen garapenean' ikastaroa

Belen Compainsekin.
Harriondoan, irailaren 20an eta 21ean.

'Nerabeen garrasia, osasun mentala aldaketa garaian' liburuaren aurkezpena

Maitane Ormazabal eta Telmo Lazkanorekin.

Liburutegian, urriaren 3an, 18:00etan.

JARDUNALDIAK

ITUREN

Joaldunen Eguna

Irailaren 21ean.

LEITZA

'Herri libre bat. Euskaraz, kirolean, plazan'

Irailaren 21ean.

LESAKA

Arrano Elkarteen Eguna

Irailaren 21ean.

ELIZONDO

Behi Azienda Pirinotarraren XXXV. Lehiaketa-Enkante Nazionala

Merkatuko plazan, irailaren 21ean eta 22an.

GOIZUETA

Eskolen Arteko 23. Topaketa

Irailaren 28an.

SENERE

'Sartzea beltzean' gauldia

Larrekon, urriaren 3an, 19:00etan.

BERTZELAKOAK

SARA

Yoga egokitu tailerra

Lezeetan, irailaren 27an, 09:00etatik 10:15era.

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak elkartearen azoka

Irailaren 21ean, 22an eta 28an.

«Herritarren inplikazioa inportantea da herria bizirik mantentzeko»

JOKIN MITXEO ETXEBERRIA IGANTZIKO GAZTEA



24 urteko igantziar gaztea da Jokin Mitxeo Etxeberría. Mendia du zaletasun nagusia, «oinez edota lasterka ibiltzen naiz aunitzetan». Eta noski, parrandazalea ere bada; «besta egitea eta lagunekin denbora pasatzea gustatzen zait». Baina besta egiteko, lehenik antolatu egin behar da, horregatik, besta batzordean parte hartzen du eta Biltokiko juntakidea da.

Ekintzaz ekintza

«Urte osoan herrian hainbat ekintza antolatzen dituen elkarte» da Biltoki. «Poto-loena edo kanpotik jendea ekartzen duena Igantziko Duatloia izaten dugu, lan eta denbora dezente eskatzen dituenak. Bertzalde, mus txapelketa, gazta lehiaketa, kultur ekintzak eta abar eskaintzen ditugu herrian».

Joan den urtean sartu zen elkarteko juntan; «bi urteko txandak egiten ditugu eta hau azkeneko urtea dut. Bertan sartzeko boluntario aurkez zaitezke, nahiz eta jendea ia beti bozketa bidez sartzen den».

Bi astetik behin gelditzen dira, eta «lan pila egiten dugu herriaren alde. Lehenengo eta nabariena, zerbitzu bat ematea; bazkide den guziak nahi duenean hor du Biltoki eskura. Bertzalde, herri ttikietan ekintzak antolatzea zailago denez, esku zabalekin hartzen dira antolatutako

«BILTOKIK LAN PILA EGITEN DU HERRIAREN ALDE»

gauzak, beraz, elkarte inportantea dela erranen nuke».

Mitxeoren kasuan, «*bodegero* lanetan ibiltzen naiz nagusiki, nahiz eta egiten diren ekintza guztietarako gogotsu eta prest egoten naizen beti». Herritarren aldetik ere parte hartze ona dute; «zerbait desberdina planteatzean ez dakizu funtzionatuko duen edo ez, baina urtero errepikatzen diren ekintzetan erantzun ona izaten da. Datak ere bere eragina izaten du, sanmigelak iristen diren heinean beti animatzen da jende gehiago herriko ekintzetara».

Antolaketan buru-belarri

Irailaren 27tik 30era ospatuko dituzte aurten Igantziko bestak (egitarau osoa 20. orrialdean) eta horretarako antolakuntza lanetan ere aritzen da. Azaldu duenez, «besta batzordean herriko talde guztiak elkartzen gara eta denen artean ateratzen ditugu aitzinera bestak».

«Herriko gazteen eta Biltokiren izenean» joaten da batzordera, «eta bertan bakoitzak bere ardurak hartuz betetzen ditugu egunak». Aitortu duenez, «hilabete osoko lana izaten da, baina lan polita da eta bestak ongi ateratzen direla ikusita, merezi izaten du».

Egun bereziak

Igantziako bestak «aunitz gusatzan zaizkit, herrikoak, betiere, bereziagoak izaten baitira. Gauko bestaz aparte, egunez antolatzen diren ekintzek bertze xarma bat izaten dute beti. Bestak denentzako bereziak direla erranen nuke, baina

niretzako bereziki gaez izaten diren betizuak politikak izaten dira. Jende aunitz ekartzen du eta herrian horrelako giroa ikustea ederra da».

Ttikitatik bizi izan ditu bestak; «ez dakit zein diren nire lehenbiziko oroitzapenak, baina hobereenak txupinazorenak dirak. Herriko betizuen eguna ere hagitz gustura hartzen nuen».

Gaur egun ere, «bezpera da egunik hobereena niretzako. Nahiz eta bestak ilunabarrean hasi, aitzinetik bazkaria izaten dugu. Ondotik txupinazoa bota eta denak Biltokiko afarira joaten gara. Bertatik aterata txaranga izaten da eta jende guzira giroan sartua egoten da».

Egitarauari dagokionez, «zaila da denen gustukoa egitea, baina ez nuke deus aldatuko. Igantziko bestek ona dutena da beti badagoeila zerbait egiteko herrian; dantzari eta txistulariek ez dute atsedenik hartzen».

Herria mugituz

Herriari hainbertze ordu eskainita, herrigintzaren garrantzia azpimarratu du Mitxeok. «Herritarren inplikazioa guztiz inportantea da herria bizirik mantentzeko. Hagitz gaste-tatik hasten gara herrian gauzak mugitzen eta eskertzen da gazteen bizitasuna. Hala ere, pentsatzen dut leku guztietan gertatzen den bezala, jendearen inplikazio haundia beharrezkoa dela uste dut. Denon artean ideia gehiago eta gauza gehiago egiteko aukera izanen dugu eta hori ederra izanen zen».

Etorkizunera begira, «momentuan lagunekin eta familiarekin ongi pasatzea da nire helburua, eta denbora-ekin gaztetasun hau mantentzea». Azkenik, «Igantziako bestetara hurbiltzera animatu nahiko nuke jendea. Giro polita izanen da!».

«IGANTZIKO BESTETAN BETI IZATEN DA ZERBAIT EGITEKO»

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ETXE AGENTZIAK



Saiaa Mitxelena
ETXEBIZITZEN AHOLKULARITZA
609 057 040
nereetxea@hotmail.com
www.inmobiliariasaioamitxelena.com

ETXE KONPARTITUAK

DONOSTIA. Unibertsitateko ikaslea pisu eta pisukide bila dabile Donostia edo inguruko herriren batean. ☎617 80 88 48 / 644 17 40 73.

BAZTAN. Pisua konpartitzeko, ahal bada irakasleren batekin. Eguzkitsua 90 m². Hiru logela. ☎659 78 69 52.

BERA, LESAKA EDO ELIZONDON gazte bat pisu konpartitu bila. ☎617 79 34 62.

DONEZTEBE. Kurtso hasieratik kurtso bukaera arte, gela errentan emateko. Komuna pribatua da, egongela eta sukaldia konpartituak. ☎637 35 56 45.

IRUÑEA. Neska batek logela bat partekatuko luke. Norbaitek libre badu, mesedez deitu. ☎649 94 36 52 / 616 95 61 94.

ERRENTAN EMATEKO

SUNBILLA. Pisua errentan emateko. 2 logelako pisua, duela gutxi berritua, 70m², bi balkoi. ☎669 76 77 83.

BERA. 90 m²ko pisua errentan emateko. 3 logela eta garajearekin. ☎669 95 41 35.

DANTXARINEA. Apartamentua urte baterako errentan emateko. Egongela, sukaldia, terraza eta gela batekin. ☎690 38 81 34.

HERNANI. Pisua errentan emateko. Erdigunean. Donostiara, EHUra.... doan autobus geltoki ondoan. 110 m². 5 logela. Ikasleentzat aukera bikaina. ☎ 678 74 11 96 / 675 70 52 38.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTANEN, BORTZIRIETAN EDO MALERREKAN pisu, baseri edo etxe bila errentan hartzeko. Hilabetean 1.000 euro ordaintzeko prest. Mas-kotarik gabe. ☎693 69 49 76.

Familia gaztea baseri bila errentan hartzeko, konpontzeko edo zaharberritzeko, Etxalarren edo inguruan. ☎646 67 08 43.

Berara lanera eta bizitzera etorri den familia batek pisua behar du errentan hartzeko. ☎649 33 77 23.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58 🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61 @ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira


TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

GARAJEAK/LOKALAK

DENETARIK



IRUN. Jubilazioagatik ortopedia traspasatzeko, urte luzez lanean aritutakoa, eta orain ere lanean ari dena. ☎688 88 35 38.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Lurpeko aparkalekua errentan emateko, Eltzetako plazan. ☎629 48 06 24.

LURRAK/ORUBEAK

EROSTEKO

Belai edo landa lursail (*rustico*) baten bila. 3.000 metrotik gotikoa. Borda-ekin edo gabe. Elizondo eta Elizondoko inguruko herrietan. ☎629 56 49 22.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK



ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

LANA

ESKAINTZAK

IBARDIN. Benta Mendi Mendiandian jatetxerako zerbitzari baten bila. Ordutegia 11:30-16:30 eta astero bi jaiegun. Frantsesez solastatzea kontuan hartuko dute. Bidali curriculuma: mendimendian@hotmail.com. Edo deitu. ☎948 63 07 23.

IBARDIN. Benta Mendi Mendiandian jatetxerako sukaldari baten bila. Ordutegia: 09:00-16:30 eta bi jaiegun astean. Bidali curriculuma: mendimendian@hotmail.com. Edo deitu. ☎948 63 07 23.

BERA. Eguberrietako kanpainarako Martikoko lantegietarako produktzio-ko langileen bila ari dira. Uda ondolik sartzeko interesa baduzu, deitu 699 77 56 21 edo eman izena webgunean <https://martiko.com/personas-martiko/ofertas-de-trabajo/>.

ARIZKUN. Berro Bide enpresan mekanikoa eta soldatzaila behar dituzte. Bidali Curriculumak info@berrobide.com helbidera. ☎948 45 33 43 / 690 94 18 01.

ELIZONDO. Zahar etxean lana egiteko auxiliarrak behar dituzte goizez, arratsaldez eta gauzez lan egiteko. Hainbat ordutegi. Bidali curriculumak: admin@zibaztan.com edo administracion@zibaztan.com.

DANTXARINEA. Benta Peion saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travaillezevecnous@venta-peio.com.

IBARDIN. Benta Peion saltzaileak behar dituzte. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travaillezevecnous@venta-peio.com.

DANTXARINEA. Mas Por Menos dendan lanaldi osoan aritzeko bi langile behar dituzte (40 ordu). Iraitlean hasi eta epe luzerako. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. ☎687 73 92 40.

IBARDIN. Benta Gorrian zerbitzari bat behar dute. Ordutegia: 12:00-16:00. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculumak: bentagorria@hotmail.com. ☎618 00 27 31.

IGANTZI. IrrisarriLanden urte osorako zerbitzari bila, berehala hasteko. Lanaldi osoa eta jarraitua: 08:00-16:00/16:00-00:00. Esperientzia izatea, gida baimena izatea eta berzte hizkuntzak jakitea kontuan hartuko dute. Bezeroen arreta, mahai eta erreserben kudeaketa, inbentarioan

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,51 €
- 1.koa 5,39 €
- 2.koa 5,27 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,62 €
- 1.koa 5,48 €
- 2.koa 5,37 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,52/5,62 €
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90 €
- 8-10 kilokoak: 7,40/8,10 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 56 €

Zerri gizona 1,752 €

Zerramak 0,790€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 30etik irailaren 6ra bitarteko prezioak)

eta stockean laguntzea eta kaxaren kudeaketa. CVA: rrhh@irrisarriand.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

IGANTZI. IrriarriLanden asteburuetan urte osoan aritzeko zerbitzari bila, berehala hasteko. 16 ordu, lanaldi jarraituan. Esperientzia izatea, gida baimena izatea eta bestelako hizkuntzak jakitea kontuan hartuko dute. Bezeroen arreta, mahai eta erreserben kudeaketa, inventarioan eta stockean laguntzea, eta kaxaren kudeaketa. CVA: rrhh@irrisarriand.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

DONEZTEBE. Suma harategian langile bila. Lanaldi osoan aritzeko, astelehenetik larunbatera, goizez eta arratsaldean. Hilabeteko soldata gordin 1.296,25 euro. Bidali curriculum: supermercadoslink@gmail.com. Edo deitu. ☎948 45 08 71.

DANTXARINEA. Mikelenborda jate-txean asteburuetan aritzeko zerbitzari bila. Eguerditik aitzinera 12:00etatik bukatu arte, 17:00 aldera arte. ☎650 60 75 09.

Eguerdietan lanean aritzeko zerbitzari bila. Igandeak eta astelehenak libre. Idatzi Whatsappez. ☎654 48 99 62.

NARBARTE. Ikastetxetik arratsaldetan haur bat hartzeko pertsona baten bila. Merienda emateko, parkean egoteko eguraldi ona egiten badu edo etxera eramateko. Gehienez hilabetean 10-15 egun, 16:00etatik 18:30era, gutxi gorabehera. Deitu 18:30etik aurrera. ☎686 84 03 80 (Blanca).

ESKARIAK

BORTZIRIAK. 41 urteko emakumea interna lanean ariko litzateke. Lesakan errolatua eta erreferentziakin. Euskaraz harremanetan jarri nahi izanez gero, 649 72 96 65 zenbakira deitu, eta gaztelaniaz, telefono zuzena, ☎631 30 99 36.

Gizon euskalduna astegunez lan bila dabil jardunaldi erdian aritzeko, 20 ordu astean. Jende helduaren zaintza, garbiketa, lorezain eta abar. ☎675 03 14 77.

59 urteko gizonezko bat lan bila, % 33ko desgaitasunarekin edozein lanetarako eta edozein ordutegian aritzeko prest. ☎659 09 13 05.

Carol izeneko 41 urteko emakumeak zaharrak edo gaixoak zaintzen lan egingen luke, interna. ☎631 30 99 36.

Berako neska bat adinekoak eta haurrak zaintzen ariko litzateke. Segidan lanean hasteko prest. ☎603 10 11 92.

BERA. Mutil bat pintore lanetan ariko litzateke. Esperientziarekin. ☎627 31 04 10.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK



BERA. Beratik Lizuniagarako bideko 2. kilometroan giltza hauek aurkitu dituzte. ☎636 59 32 42.

LESAKAN EDO IBARDINEN audifono batzuk galdu dituzte euren kaxa zurian. Aurkituz gero, deitu faborez, ☎618 96 26 45 (Ana).

LEITZA. Erastun bat galdu zuten uztailaren 27an, larunbata, plazan, uste dutenez. Zilar kolorekoa eta erdian harri batekin. Oroigarri bat da eta berreskuratu nahi dute, sari bat eskainiz. ☎616 76 89 46.

Berako bestetan zilarrezko eskumuturreko bat galdu zuten. Katea fina eta erdi-erdian zortea ematen duen begi urdinaren irudia. ☎659 32 71 97.

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

OPARITZEKO



Txotxongilo polit honi bizitza eman nahi diozu? Beintzako Ostata-Aterpetxean kendu behar eta gustura emanen dute. ☎659 47 73 96 (Whatsappa).




GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

**SANTESTEBAN
TAILERRAK**

**DACIA DUSTER
4X4 EXTREM 130 CV
0 KM – MATRIKULATU BERRIA
AUKERA BIKAINA!!!**
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakume bixi eta maitagarria etxe bila. ☎652 75 08 17.

Mendaur Motor

Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

NISSAN TERRANO II
3 ATE | 125cv



NISSAN TERRANO II
3 ATE | 125cv



www.mendaurmotor.com

MOTORRAK

SALGAI



Fiat Panda 1.3 Multijet 4x4 autoa salgai. 96.000 km. Remolkerako engantxearekin. ☎686 54 46 45.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>

EZKONTZAK

- **Ramuntxo Soudre** eta **Maitane Gerad**, uztailaren 26an Saran.
- **Lauren Trebesses** eta **Cathy Laby**, abuztuaren 11n Saran.
- **Jean Bernard Sonalet** eta **Clayre Vennequies**, abuztuaren 13an Saran.
- **Benjamin Brizard** eta **Jean Hild**, abuztuaren 16an Saran.
- **Anthony Latesa** eta **Anais Lesage**, abuztuaren 31n Saran.
- **Frederic Lancbernet** eta **Enmanuelle Etxeberri**, abuztuaren 31n Saran.

URTEBETETZEAK



Arantzako **Suhar Sorli Lizardi**k 5 urte bete ditu irailaren 5ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partez!! Besarkada haundi-haundi bat, aunitz *matte zattugu!*



Xabat Andueza Arruabarrena lesakarrak 4 urte bete ditu irailaren 3an. Zorionaaak *mattia* eta muxu handi bat familia guztiaren partez!!



Laia Zugarramurdi Sorrondegi goizueta-rrak 4 urte beteko ditu irailaren 19an. Zorionak nire sorgintxo! Segi orain arte bezala denon bizitzak alaitzen! Askok *matte zittut!*



Etxalarko **Izaro Marin Berruetak** 7 urte beteko ditu irailaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak **T**TIPI-**T**TAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; **T**TIPI-**T**TAPAFEN **bulogora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta.

KONTATU KONTUAK



Erraldoien Topaketa Beran. Berako Erraldoien Konpartsak antolatuta, II. aldiz erraldoien topaketa egin zuten abuztuaren 31n. Bera, Sara, Doneztebe, Oronoz-Mugairi, Irurita, Elizondo, Barañain, Amasa-Villabona eta Miranda de Ebroko erraldoiak bildu ziren.



«**Herriko zuhaitzak hausten dituan/ditunan hori: Ergela haiz!**». Elizondon, Txokotoko bestetan Axular karrikan dagoen zuhaitz bat hautsi zuten. Cercis siliquastrum espeziekoa zen, orain bi urte landatua. Ba, gertatutakoa salatzen Baztango Talde Ekosozialak kanpaina abiatu du: «Herriko zuhaitzak hausten dituan/ditunan hori: Ergela haiz!».

HILBERRIAK

- **Gerard Valdoveno**, Sarakoa, abuztuaren 21ean, 75 urte.
- **Aitziber Almandoz Inda**, Elgorriagakoa, abuztuaren 29an, 45 urte.
- **Francisca Oiaregi Lekaroz**, Doneztebekoa, abuztuaren 30ean.
- **Daniel Halty Dainziart**, Zugarramurdikoa, irailaren 3an, 64 urte.
- **Francisco Telletxea Goikoetxea**, Ezkurrakoa, irailaren 5ean, 89 urte.
- **M^a Dolores Azkarraga Jaimerena**, Doneztebekoa, irailaren 5ean, 77 urte.
- **Mari Karmen Lujanbio Etxeberria**, Goizuetakoa, irailaren 5ean.
- **Alejo Mindegia Mindegia**, Oierregikoa, irailaren 8an, 61 urte.
- **Angel Jaimerena Ilzauspe**, Erratzukoa, irailaren 8an, 65 urte.

Baztan Bidasoa Ehorzketak | **m** memoria

BAZTAN ELIZONDO · Santiago Kalea, 79
MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 | **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO


Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK
• ELIZONDO • BERA • DONEZTEBE
• ARANTZA • IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe


948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HITZ GEZIDUNAK

	Igeri egiten dutenak	Amerikako estatua	Bi ken bat	Gertu	Emankor
	◆ Deitura	Opil mehea		Masaileko	Ez eme
			Arrainen galgarriak		
			Hilobia		
	Elizkoia				
	Material, gai				
Irauli	Era eman		Telebista, labor-labor		Kontso-nantea
Trikiti jotzaileak	◆ Izena		Bilboko itsasadarra		Bokala
Larrua			Obalo formako		Bokal biribila
Bidasoa, esaterako			Erabat bustita		Gipuzkoako udalerrria
			Italiako hiria		Argona
			Emakume izena		Bits
Ingelesez, da		Antzezlearen joko		Umore onez	
Arrain jateko on		Lehenengo letra		Txakurra	Euskaltegi sarea
				Epallearen erabaki	
				Zilarra	
Txistu, listu		Errieta			Potasioa
Soineko zabal eta luze		Bokal mehea			Kontso-nantea
			Idorra, sikua, lehorra		

◆ Gure lurraldeko olerkaria, baztandarra


GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Matematika eragiketen ondorioak. [2] Iturengo auzoa.
- [3] Platera, gure iparraldeko haurrudeek erraten duten bezala.
- [4] Berako Altzate auzoko jauregia. [5] Ehun mota.
- [6] Gabezia. [7] Egoki, ongi.
- [8] Zurginaren lanabesa. [9] Samurra, ez zaila
- [10] Zoruko zikinkeria biltzeko tresna. [11] Erbestea.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN

ZORIONAK!
LOREA PEREZ ERBITI

861. aldizkariko irabazlea zara!

ZENBAT

Zenbat txita dabilta inguru harrigarri honetan? Eta zenbat txori edo hegazti ikusten dituzu? (Oiloak ez ditugu kontuan hartuko)



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiarri)

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 744 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
WOWpark sarreraren zozketan parte hartuko duzu!



ZER?!

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Jarri iruditxo bakoitzari bere hizkia, eta esaera zahar bat azalduko zaizu. Erabili hizki-marrazki alfabetoa



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eu/>

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

861 zenbakiko
irabazleak >

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
M^a Josefa Ariztia Sanzberro | ARIZKUN

Bua Txabal - Kamiseta bat
M^a Eugenia Arozarena Sanzberro | ELIZONDO

Ez Kexa - Kamiseta bat
Francisco Mitxelena Zelaia | ZUBIETA

Irrisarri Land - Sarrera bat
Jose Luis Portu Echavide | LESAKA

Kimetz - Saski bat
M^a Concepción Etxeberria Erasun | BEINTZA-LABAIEN

La Rhune - Sarrera bat
Juan Esteban Goienetxe Hardoy | ZUGARRAMURDI

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Mertxe Ordoki Larretxea | ARANTZA

Lirain arropa-denda - Lote bat
Mila Nieve Albiasu | LEITZA

Baga-Biga - Hiru CD
Begoña Urrutia Juanikotena | IRAIZOTZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

HARA BI
www.harabi.eus



Poltza bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

SALTING IRUÑEA
www.saltngcenters.com



Bi sarrera

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

MENDUKILO
www.mendukilo.com



Bi sarrera

ANIKOTE
@AnikoteLeitza



Spinning saioa

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETXEAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttapi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Bi liburu



Katxiporreta
KOOP.E

www.katxiporreta.eus



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!